



## 'Gosariak', Korrika Kulturalean

Eskoriatzako Zaldibar antzokian kontzertua egingo du Gosek bihar, zapatua | 30

Otsail amaieran landatuko dute Arbolapetako arbola: haritza | 10



Bihar irtengo dira Santa eskean aramaioarrak | 8



Aloña Mendi da Oñatin bazkide gehien dituen elkarte | 15

## Erdigunea oinezkoendako

Antzuola barruko zirkulazioan aldaketak ekarriko ditu udal planak | 20



Ibilgailuak Herriko Plaza inguruan aparkatuta. Hori ezin izango da egin.

JAGOBA DOMINGO

# Aretxabaleta barruko bidegorriaren lehen zatia, aurten

Aurrekontuan jasotako inbertsio garrantzitsuenetakoa da | 22



Geltoki plaza zeharkatuko du bidegorriak. | ARETXABALETAKO UDALA

**puntuia**

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

**Erreportajea: txotx denboraldian, sagardotegietara bisita**

**Elkarrizketa: Jagoba Arrasate**

**Mendia eta eskia**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

## goienagida

# 2015

DEBAGOIENEN MERKATARITZA GIDA

## DATORREN ASTEAN ETXEAN IZANGO DUZU!



- ORATI
- BERGARA
- ANTZUOLA
- ELGETA
- ARRASATE
- ARETXABALETA
- ESKORITAZA
- LEINTZ GATZAGA
- ARAMAIO



OSATUAGOA, BERRITUA, HOBEA

**GOIENA.EUS/GIDA**

Sarean, mugikorretan, tabletetan eta paperean

**SINADURAK**

JOXAN LARRAÑAGA | 5

GOIATZ ARANA | 5

GAIZKA ERAÑA | 9

MIREN ZUBIA | 14

JAIONE CARPINTERO | 18

AITOR AGIRIANO | 21

XABIER HERRARTE | 25

MIKEL IRIZAR | 40

# Bidegorriak eta garraio publikoa, mugikortasun "paradigma berri"

Elorregira iristen den bidegorri zatia eta geltokia inauguratu egin dituzte

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Bergarako Ibarra kaletik Elorregiko Tavesa enpresaren lursailen mugaraino iristen den bidegorri zatia inauguratu zuen atzo, egue-na, Larraitz Ugartek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako diputatuak, Bergarako eta Arrasateko udal ordezkariak lagunduta.

Tarte horrekin, Bergara eta Elorregi arteko bidegorri sarea ia amaitutzat eman dute; izan ere, guztiz bukatzeko, Tavesa enpresaren lursailen eta Elorregiko biribilgunearen arteko 500 metroak egitea bakarrik falta da. Kontua da tarte horrek arazoak eman dizkiola Aldundiari; izan ere, lursailaren desjabetzea egiteaz gain, lurra kutsatuta dago, eta horri konponbidea jarri behar diote. Lurrak desjabetzeko administrazio lanak hasi dituzte, baina oraindik ere luzerako izango direla esan du Ugartek.

## Bi milioi

Kontuak kontu, atzo 2,6 kilometroko zatia inauguratu eta "oso pozik" azaldu dira Bergarako eta Arrasateko udal ordezkariak. Bestalde, Mugikortasun diputatu Ugartek eskualdea bidegorri bitartez lotzearen garrantzia azpimarratu zuen; eta baita proiektua hasiera batean baino merkeago egitea lortu dutela ere.

Hain justu ere, emandako datuen arabera, hasieran bi milioi

euro inguruko obra izan behar zena, proiektua berraztertu eta gastuak murriztu ostean, 740.000 euro inguru ordaintzera pasa da Gipuzkoako Foru Aldundia.

## Ur-zikinak, araztegia

Bada, Eskoriatza eta Bergara bidegorri bitartez lotu ostean, eta Elorregi eta Oñati arteko bidea amaitu ostean, Bergara eta Antzuola arteko tartea bakarrik falta da Debagoieneko bidegorri sare osoa amaitzeko. Azken tarte hori Beasain-Durango korridorearen obrekin batera egingo dute, eta Bergarako alkate Jaione Isazelaiak jakinarazi zuen bidegorria eraikitzeaz batera bidegorriaren azpian dagoen hoderia aldatu egingo dutela ur-zikinak araztegia bideratzeko. Modu horretan, Antzuola errekatik Deba ibaira doan ura garbi botako dute.

## Elorregikoa, martxoan

Bada, bidegorriaz gainera, Gipuzkoako Diputazioak Elorregin eraiki berri duen autobus geltokia ere inauguratu zuten politikariek. Eta oraindik markesina jartzea falta bada ere, autoentzako aparkalekua eta autobus geltokia inauguratu zituzten, hain justu ere.

Hala, Ugarte diputatuak jakinarazi zuen martxoaren 1ean jarriko dela martxan geltoki berria, eta Oñatiko eta Antzuola-

lako herritarrentzako onura handiak ekarriko dituela.

Hark jakinarazitakoaren arabera, bi autobus zirkular egongo dira eskualdeko herriak konektatzen eta ordu erdian behin pasatuko dira Antzuolatik eta Oñatitik; autobus zirkular horiek, eskualdeko herriez gainera, Legazpi eta Zumarraga lotuko dituzte.

## Mugikortasun eredu berria

Horrekin batera, Elorregiko autobus zerbitzua etorkizunean eskaripekoa izango dela esan zuen Larraitz Ugartek. Oraingoan, bai-



Erakundeetako ordezkariak, atzo. | JAGOBA DOMINGO

na, sistema hori martxan jarri bitartean, autobus guztiak bertan geratuko direla argitu zuen. Eta bukatzeko, adierazi zuen bai

bidegorri sarearen obrak zein autobus geltokiarena mugikortasun "paradigma berri" baten aldeko apustua dela.

# Sherpa arrisku kapital funtsarena da Oñatiko Cegasa, eguaztena ezkerro

Oraingoan, bi milioi eta erdi euroko operazioa da

U.M. / J. I. | OÑATI

Eguaztena ezkerro (urtarrilaren 28a) Cegasa Taldeko Oñatiko 131 langileek Sherpa arrisku kapital funtsarendako dihardute lanean. Eta enpresa batzordetik GOIENARI esandakoaren arabera, gainontzeko 300 langile pasari eragingo dien kaleratze enplegu erregulazio espedienteak egunotan ziren sartzekoak.

## Zazpi milioi euro

Salerosketa operazioa bi milioi eta erdi euroren truke egitea adostu zuten bi aldeek, hasiera batean. Izan ere, kopuru horri beste hiru milioi euro gehituko litzaizkioke, baldin eta 2015. urte amaieran negozioaren zenbatekoak 48 milioi euroak gaindituko balitu.

Horrez gainera, beste 6,3 milioi euroko ekarpena egingo luke Sherpak, lanean jarraituko duten 131 lagunei kalte-ordainik eman beharrik ez izanda.

Azkenik, ekoizpena finantzatzeko zazpi milioi euro sartzeko

konpromisoa ere hartua du Sherpa kapital funtsak.

Adostutakoaren arabera, gainera, eta Cegasaren langileei dagokienez, %10 eta %20 artean jaitsiko diete soldata urtean 40.000 eurotik gora irabazten dutenei.

## Gazi-goza

Oraingo asteko martitzen arratsaldean izan dute Cegasako enpresa batzordeak eta konkurtso administrazioak aurrekordioa lortzeko azkeneko batzarra. Eta orduantxe adostutakoaren gainean Oñatiko enpresa batzordeko ordezkariak GOIENARI balorazio gazi-goza egin zioten: "Behartuta moduan hartu dugu operazioa. Ez geneukan bestelako aukera gehiagorik, egia esan. Nahi genuena zen bizirik geratzen den negozio zatiarekin aurrera egitea. Hemendik aurrera falta dena da gurekin lotutako baldintzak negoziatzea: organigrama nolakoa izango den... Baina poto-loena egin dugu: jarraitzea", adierazi zuten.

Unibertsitatea,  
inguruko  
gizartearekin  
inplikatzeko ere bada.  
**erronkarako #prest**

Juan Cabanzón,  
Gastronomia eta sukaldaritza arteak,  
2. maila.

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**  
ARRASATE • OTSAILAK 7  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**DONOSTIALDEA • OTSAILAK 28**  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**  
OÑATI • OTSAILAK 7  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA • OTSAILAK 12**  
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

**BILBAO • OTSAILAK 7**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
ESKORIATZA • OTSAILAK 7  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETAK • OTSAILAK 7**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
- Basque Culinary Center  
DONOSTIA • OTSAILAK 12  
Osteguna, 18:00 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI  
**902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

## Debagoieneko merkataritza gida erabilgarri dago

U.M. | DEBAGOIENA

Eskualdean gehien erabiltzen den telefono edo informazio gida da Goienak urtero berri-tzen duena. "Horrenbeste datu komertzial, enpresarial eta, oro har, negozioekin lotutako datuak jasotzen dituen bestelako gidarik ez dago Debagoiengan", azpimarratu du Mireia Larrañagak, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari komertzialak.

Bada, gida horren papereko formatuaren 9.400 ale banatuko dituzte Leintz ibarrean -Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaio-; Bergara aldean 6.200 ale -Bergara, Antzuola eta Elgeta- eta Oñati aldean 3.300 ale.

Negozioren telefonoak batzeaz gain, informazio praktikoa eta osagarria ere badakar Goiena Gidak: guardiako farmaziak, hondakin bilketak, intereseko telefono orokorrak...

### Harpidedunek, doan

Egubakoitzeko GOIENA pape-reko eta Goiena Klubeko har-pidedunek jasoko dute 2015eko merkataritza gida bana, doan. Hortik aurrera, halako besteren bat behar duenak erosteko aukera izango du, sei eurotan, Goienak Arrasaten duen egoitzan, hain zuzen ere.

### Sarean, mugikorretan...

Edozein modutan, 2015eko merkataritza gida erabilgarri da dagoeneko. *Goiena.etus* Interneteko atarian kontsulta daiteke, *Zerbitzuak* izeneko tartean, *Goiena Gida* izenarekin. "Kasu horretan, gainera, Interneten egoteak berak negozioei sarean ondo kokatuta egoten laguntzen die, eta, era berean, presentzia dute egunero 5.400 erabiltzaile bakar duen webgune batean", nabarmendu du Larrañagak.

Eta, jakina, Goienaren aplikazioaren bitartez, norberaren eskuko telefonoetan, tabletetan eta bestelako euskarri mugikorretan erabil daiteke Goiena Gida, Android zein IOS sistema operatiboetan. Azken zerbitzu horrek, esaterako, aukera ematen du zuzenean deitzeko gura den negozioaren telefonora.

### "Erabat eguneratua"

"Goiena Gida osatua izateaz gainera, erabat eguneratutakoa ere bada. Garrantzitsua da azken hori, urtero izaten direlako telefono aldaketak, negozio itxierak, berrien irekierak... bada, hori guztia jasotzeko ahalegin handia egiten da, Goienaren bezeroei ahalik eta zerbitzu onena emateko", azpimarratu du Mireia Larrañagak.



Goiena Gida Interneten zein smartphoneetan ere erabil daiteke. | U.M.

## Hassana Aalia sahararraren aldeko mobilizazioa Bilbon

Debagoienetik autobusak antolatu dituzte, Oñatin "anaia politikoa" duen gaztea babesteko

AMAI TXINTXURRETA | OÑATI

Hassana Aalia ekintzaile sahararrari asilo politikoa ukatu dio Espainiak. Hilaren 19an erabaki horren berri ematearekin batera, hamabost eguneko epea eman zioten Espainiako lurraldea uzteko.

Bada, hori salatzeako mobilizazioa egingo dute bihar, zapatua, Bilbon. Eta Debagoienetik autobusak izango dira hara joateko -izen-ematea Oñatiko Arrano eta Arrasateko Irati eta Jai Zale tabernetan-. Izan ere,

Aaliaren "anaia politikoa" Oñatin bizi da, eta Aalia bera Bilboko familia batekin bizi da.

### Bizi guztiko kartzela zigorra

Protestarako arrazoia da Gdeim Izik kanpalekuko protesta bake-tsuaren parte hartu ostean auzitegi militar batek Aalia epaitu (2013) eta bizi guztiko kartzela zigorra ezarri ziotela, errebel-dian aitortuta. Harrezkero, Espainian dabil, adibidez, erregimen marokorren "bidegabekeriak" salatzen.

Ino Galparsoro | Arrasateko alkate ohia eta 04/08 epaiketan inputatua

## "Egoera 'kafkiano' honek bukatu egin beharko du momenturen baten"

- ▶ Abokatuen atxiloketaren ostean, oraindik ez dakite noiz hasiko den epaiketa
- ▶ Hamar urteko kartzela zigorra eskatzen dute inputatuendako

UBANE MADERA | ARRASATE

Ino Galparsoro Arrasateko alkate ohiak oraindik ez daki noiz hasiko den 04/08 epaiketa, bera eta ezker abertzaleko beste 34 hautetsiri eragiten dion epaiketa, alegia.

### Ez duzue egutegirik, ala?

Pasatu ziguten programa bat, urtarrilaren 12an hasi eta ekainaren 8ra artekoa, San Fernando de Henares-en dagoen epaitegira joateko -Auzitegi Nazionala obretan dagoelako-, hilero hainbat egunetan. Urtarrilaren 12an, 07:00etan, gurekin hotelean zeuden abokatuetatik hiru atxilotu zituzten, guztiz zentzugabe eta bortitza izan zen polizia operazioan, eta aste hartako epaiketa egunak bertan behera geratu ziren. Orain, demaseko nahasmena sortu da. Hainbat abokatuk beste epaiketa batzuk ere badituzte, epaileak berak beste epaiketa bat... Ez dakigu noiz hasiko den. Pentsatzen genuen urtarrilaren 26rako erantzuna izango genuela, baina ez da horrela izan. Aprobetxatu nahi dut polizia operazio hau salatzeke, Euskal Herriaren eta euskal presoan kontrako operazio ulertezina da eta.

### Epaiketa aurten hasteko arrazoia non kokatzen duzue?

Euskal Herrian zabaldu den garai berrien bidearen aurkako politikaren barruan kokatzen dela uste dut, orain arteko beste hainbat sumario eta epaiketa moduan.

### Atzera egin dezagun apur bat. 2008an atxilotu zintuzteten, kartzelara sartu...

Atxiloketaren inguruan bada gauza bat esan beharrekoa: ni zitatua izan nintzen Madrilgo Auzitegi Nazionalera joateko apirilaren 30erako, 10:00etan. Ordu hartan han ez zegoen ezer nire kontra; ez poliziaren txostenik, ezta beste ezer ere. Uste dut presaka eta korrika poliziak egin zuela txosten bat, eta, horren arabera, egun berean, 11:30ean, lehen aldiz izan genuen aukera hura eskuratzeko. Konturatu ginen poliziaren txostenaren sarrera 11:10ean izan zela. Kontuak kontu, han azaltzen ziren orain leporatzen dizkidatenak: batetik, prentsaurreko batzuetan parte hartu izana -orduko hauteskunde orokorren aurrean abstentzio aktiboa eskatuz-; eta bestetik, otsailaren 11n Garzon epaileak ilegalizatutako ANVren (EAE) autoan esandakoa ez nuela bete. Eta ondorioz, nire kontrako karguak honako hauek izan ziren: zilegi ez den elkarteko kide izatea eta agintari judizialarekiko desobediencia larria.

### Ez da zilegi prentsaurreko batean parte hartzea abstentzioa eskatuz?



Ino Galparsoro, Arrasaten. | UBANE MADERA

### "Euskal Herrian zabaldu den garai berrien bidearen aurkako da"

### "Ezker abertzaleko kargu instituzional guztiak kanporatu egin nahi zituzten"

Edozein estatu demokratikoan bai, baina sartu zuten Garzonen teoriaren barruan: *Dena da ETA*. Eta ni kartzelara bidali.

### Abuztura arte...

Uztailaren 28ra arte. Hiru hila-bete eskas. Atera nintzen 30.000 euroko fidantzepean eta astero-astero epaitegira sinatzeko bete-beharrarekin, eta estatu espainoletik kanpora joateko debekua-rekin. Harrezkero, astero-astero joaten naiz epaitegira sinatzera. Epaileak froga moduan erabiltzen dituen artean Arrasateko osoko bilkuren akta batzuk daude...

60.000 folio dira, guztira. Eta bai, badira aktak eta beste hainbat udal dokumentu. Niri leporatzen didaten delitua -prentsaurrekoetatik aparte- desobediencia da. Diote otsailaren 11n ANV legez kanpo utzi arren, izen hori erabiltzen segitu izana Udaleko jardueran. Eta hori horrela da; kontuan izan behar da apirilaren 14ra arte ez zela auto hori jaso udaletxean. Eta bai udal idazkariak zein Eudeleko abokatuak egindako txostenean esaten zen auto horretan bertan behera uzten zuela udal kompetentziatik kanpo egiten zen aktibitatea, baina ez Udalari zegoiona. Sumarioan

agertzen dira otsailaren 11tik aurrerako dokumentu mordo bat. Eta aipatzen dituzten prentsaurrekoak, adibidez, nik ez nituen eman. Han nengoan, beste hainbat moduan, baina ez nituen eman. Are gehiago, parte hartutako guztien artean ni bakarrik inputatu naute. Garbi dagoena da fabrikatutako epaiketa dela. Hasieratik garbi zegoen ezker abertzaleko kargu instituzional guztiak kanporatu egin nahi zituztela. Uste dut Euskal Herrian, orokorrean, egon zen erreazioaren aurrean ezin izan zutela jarraitu nahi izan zuten moduan.

**Zuen kausak ez du preskribatzen...** Ez, Espainian gaude eta Euskal Herriaren kontrako politikaz ari gara. Sumario berean gaude Seguran atxilotu zituztenak, Segurako zerrendatik, geroago atxilotu zituztenak -tartean Mikel, Mikelon eta Aitor Arantzabal, bergararrak- eta EHAK-ko bost ordezkari: lehendakaria; hiru legebiltzarkide izandakoak eta diruzaina. Eta ANVtik ere, neu naiz bat, baina lehendakaria -Kepa Bereziartua, hemen Arrasaten hil zena-, beste bi kide ere badaude. Horrela, guztira, 35 lagun gaude: hiru ANV, bost EHAK eta besteak Segurako operaziokoak. Batzuk kargu publikoak eta denon kasuan geure aktibitate politikoengatik. Guztioi leporatzen digute zilegi ez den elkarte bateko kide izatea, eta guztiondako eskatzen dute hamar urteko kartzela zigorra.

### Ze esperantza duzue?

Momenturen batean egoera *kafkiano* honek bukaera izan beharko du. Guztiz surrealista da. Ez dakit guri tokatuko zaigun, baina espero dezagun azkena izango dela, behintzat. Uste dut epaiketa hauek inork ez dituela ulertzen Euskal Herrian, eta oztopo bat gehiago direla herri honen askatasunerako.

# Ana Pastor: "Euskal Y'-a martxan izango da 2019an"

Debagoieneko Abiadura Handiko Trenaren lanak bisitatzeko izan da ministroa, Ana Oregi sailburuarekin

IRATI GOITIA | ARRASATE

"2019an Euskal Y-a martxan egongo da", adierazi du Ana Pastorrek, Espainiako Gobernuako Sustapen ministroak. Abiadura Handiko Trenaren lanak ikusteko Debagoienara asteon egin duen bisitan esan du hori. Ana Oregirekin, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarekin batera bisitatu zituen Bergarako zubi-bidea eta Kobateko tunela.

Pastorrek gaineratu du data bat emateko aukera duela dirua dagoelako: "Data bat ematen dugu aurrekontua dagoelako. Zeuden zor guztiak ordainduta, errekurtsoak bideratzen gabiltza lan berrietara. Beraz, ez badago inolako arazo teknikorik, ziurta dezakegu 2019an Euskal Y-a martxan egongo dela". Eta azpimarratu du AHTa azpiegitura "funtsezkoa eta beharrezkoa" dela eta horregatik babestu dutela aurrekontua eskainita: "Seihileko honetan lizitatuko dira Zumelegi tartea, 114 milioi eurokoa dena, Elorrio-Bergara, 83 milioi eurokoa, eta Elorrio-Elorrio". Bergarako lotuneari dagokionez, zehaztu du Arrasate-Bergara tarteko Kobateko sektorean hasi direla lanak. Hain zuzen, aste honetan eginiko bisitaren amaieran, tramu horretako lanen hasiera irudikatu zuten, makinak martxan jarrita. Hirietarako sarre-



Ana Pastor eta Ana Oregi, Euskal Y-aren lanak bisitatzeko, Debagoiengan. | I.G.

rei dagokionez, esan zuen dagoeneko idazten dabilzala proiektuak. Hala, Pastorrek esan zuen Euskal Y-ak ez duela atzera bueltarik, eta dagoeneko "errealitatea" dela.

Oregik, bestalde, hau adierazi zuen: "Guretzat oso garrantzitsua zen bisita hau egitea eta elkarrekin lantzea nola bukatuko ditugun lanak". Hain zuzen, goizeko bisitaren ostean, trenaren ibilbideko lanak bukatzeko planifikazioa zehazteko bilera egin zuten bi administrazioek.

Era berean, Jaione Isazelaia Bergarako alkatea ere izan da bisitan, eta Ana Pastor ministroari eskatu zion trenaren lanek

sortu dituzten kalteak konpontzeko konpromisoa.

## EH Bilduren kritika

Debagoieneko EH Bildutik diote EAJk eta PPK proiektu bera defendatzen dutela arlo ekonomikoan eta sozialean: "Eredu atzerakoi bera konpartitzen dute eta elite ekonomiko batentzat gobernatzen dute. Herritarren diruak eraikuntzaren multinazional eta banketxei erregalatu dizkiete". Eta gaineratu du AHTaren bideak "Euskal Herria zulo beltzera" darabala. EH Bilduk bestelako bidea proposatzen duela dio: "Herritarren ongizatean inbertitzen".



Hainbat tokitako moneta sozialen gaineko mahai-ingurua. | TXOMIN MADINA

## Moneta sozialak aztergai Arrasateko mintegian

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Kooperatiben inguruko jendea, udaletako ordezkariak, Debagoieneko eta Gipuzkoako gizarte eragileak, ekonomia sozial eta solidarioan dihardutenak askotariko jendea elkartu zen atzo, eguena, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean egindako moneta sozialen nazioarteko mintegian. enpresariei".

Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak, Bagarak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, azkenaldian gero eta oihartzun gehiago izaten ari den moneta sozialen edo osagarrien mugimenduan saktzea izan da mintegiaren helburua. "Ikusten genuen behar bat moneta sozialen inguruan eztabaidatzeko, baita Europa mailan egon diren esperientzia ezberdinak ezagutu eta bakoiztetik ikasteko", azaldu zuen atzo Lankiko ikertzaile . Aritz Kanpandegik.

## EH Bilduren kritika

Bestelakoan artean, arratsaldera arte iraun zuen mintegian, New Economics Foundation erakundeko Leander Bidenwalden hizlariak esplikatu zuen besteak beste, era honetako monetak helburu ezberdinak lortzeko baliabideak izan daitezkeela: "Jendea komunitateetan hobeto integratzeko; gizartea eta elkartruke sozialak aktibatuz; edo enpresa txikiei laguntzeko, hazteko eta bizi-rauteko bankuakredituak edo euroak lortu ezin dituzten enpresariei".

Nazioarteko esperientziak batera, atzoko mintegian, besteak beste, Iparraldeko Euskal Herria eta Kataluniako RES bezalako moneta osagarriak ere hartu zituzten berbagai, eta Debagoieneko moneta soziala sortzeko dauden aukerak eta osagaiak ere aztertu zituzten partaideek.

## Aretxabaletan irudikatuko dute Europako Gazte Parlamentua bihar

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI  
IKASTOLA | DEBAGOIENA

European Youth Parliament-eko (EYP) Euskal Herri mailako eskualdeko saioa bihar, zapatua, egingo da, Mondragon Unibertsitateak Aretxabaletan duen Huhezi fakultatean.

Lau talde aurkeztuko dira bertara, nahiz eta guztira zortzi izan gure eskualdean parte hartzeko izena eman dutenak. Beste laurak aurreko asteburuan aritu ziren Bilbon, guztiak batera egiteko kopuru handia zelako.

Europako Gazte Parlamentuak ikasle gazteekin aurrera eramaten duen ekimena da EYPko saioena. Taldean gai sozio-politiko bat abiapuntu hartuta eta hori ondo prestatuta, ikasleak parlamentari lanean jartzea du helburu.

Beraz, aukeratutako gai hori gainontzeko taldeen eta epai-mahaiaren aurrean aurkeztu behar dute, eta horren gainean

hartzen duten erabakia defendatu egin behar dute, ingelesez. Hiru fasetan banatzen dira kanporaketak: eskualdekoa, nazionala eta Europakoa. Hain justu ere, lehenengo hori da bihar egingo dutena.

## Defendatuko dituztenak

Goizean goiz hasiko da Aretxabaletako saioa, 09:00etan, hain zuzen ere, taldekideen aurkezpenarekin eta harremana sustatzeko dinamikekin. 11:30ean, berriz, irekiera ekitaldia egingo da eta ondoren bi taldek euren gaiak eta erabakiak aurkeztuko dituzte. Honako hauek, hain justu ere: Azpeitiko ikastolakoek, nola lor dezakeen Europako Batasunak herritarren parte hartzea eta interesa Europari dagozkion gaian, adibidez hauteskundeetan; eta Urretxukoek, berriz, nola egin dezakeen Europako Batasunak herritarren pribatutasuna eta aldi berean herrialdeen segurtasuna bermatzeko.

Bazkalostean, berriz, beste bi taldeen aurkezpenak izango dira. Lehenengo, Arizmendi Ikastolako taldearena. Debagoienarrek defendatu beharko duten gaia da nola jokatu beharko zukeen Europako Batasunak independentzia lortu nahi duten herrialdeekin eta horrek sortu dituen egoerakin. Ondoren, azkeneko taldearen txanda izango da, Aguraingo ikasleena. Horiei egokitu zaien gaia da zer egin dezakeen Europako Batasunak ikasleen zein herritarren interesa areagotzeko Teknologia eta Zientzien alorrean.

## Martxoan, Europara

Arizmendi Ikastolak laugarrenez parte hartuko du EYPko saioetan, baina lehenengoz jardungo du antolatze-lanetan. Orain dela bi urte Europarako sailkatu zirenek egingo dute lan hori bihar: Iker Bengoetxeak eta Irati Lopezek, hain zuzen ere. Gainera, laguntzaile lanetan jardungo dute Ainhoa Gonzalezek, Alaitz Gabilondok eta Miriam Goitiak. Hiru horiek iaz sailkatu ziren, eta martxoaren hasieran Bruselara joango dira Europa mailako txapelketan parte hartzera.

## "Gipuzkoarron benetako izaera EAJk babesten du"

Gipuzkoako Diputatu nagusi izateko EAJren hautagai Markel Olano Bergaran izan zen

MIREN ARREGI | BERGARA

Ekonomia jardunaldi batean izan zen Markel Olano joan den zapatuan, Batzar Nagusietako eta Debagoieneko alkatetzarako hainbat hautagairekin batera.

Besteak beste, jeltzaleak adierazi zuen Gipuzkoa lurralde industrial delako eta "Debagoiena delako erreferente". Ildo horretan, enpresak babestu beharra dagoela azpimarratu zuen: "Enpresek Gipuzkoako enpleguaren %85 sortzen dute, eta, beraz, enpresek aberastasuna sortzen dute Gipuzkoan; hain zuzen ere, ondoren ahalik eta modu orekatuenean banatu behar den aberastasuna".

## "Enpresatik oso urrun"

Ezker abertzalearen kudeaketaz ere jardun, eta honako hau adie-



Markel Olano. | MIREN ARREGI

razi zuen: "Aurreiritzi ideologiko handiak ditu, eta, ondorioz, enprekin ez du ia harremanik, eta hori oso larria da". Eta haxe salatu zuen: "Ezker abertzaleak erakutsi du enpresatik oso urrun dagoela eta ez dela gai izan Gipuzkoako ekonomia kudeatzeko".

## ZABALIK

**JOXAN LARRAÑAGA**  
goiena.eus/komunitatea/



## Heriotzaren prezioa

**B**ehin baino gehiagotan gertatzen den moduan, edo, hobeto esanda, egunero gertatzen den moduan: *Gizakia gizakiaren otso*. Izan ere, azkenengo aste hauetan gertakari tamalgarria gertatu da Parisen (Frantzia).

Munduko hedabide guztiek jaso dute han gertatutakoa eta batzuen barrenak mugitu eta besteen beldurrak, berriz, loratu egin ditu.

Europa osoan, Ekialde Hurbilean eta munduko hainbat herrialdetan bere eragina izan duena: Jainkoaren izenean, Jainkoa izpi txikietan, alegia, umorezko aldizkari baten kazetariak erail egin dituzte.

Horren ondorioz, manifestazio erraldoia antolatu dute Parisen eta, hain zuzen ere, hantxe ikusi ditugu Europako mandatariak herritarren aurretik, ondo bereizita argazkian ateratzeko.

Bada, horrekin lotuta, gaur bi, gutxienez, harritzekoak dira, nire ustez:

Lehenengo eta behin, argazkian agertu ziren agintari horietatik, zenbatek euren nazioetan ez ote duten adierazpen askatasunaren aurkako ekitaldiak egiten. Baina, jakina, argazkian atera behar...

Eta beste alde batetik, Parisen atentatua gertatu aurretik, eta hau ere Jainkoaren izenean eginda, Nigerian (Afrika), 2.000 pertsona akabatu zituzten eta hedabideetan ia ez zuten oihartzunik izan.

Oso harritzekoa egiten zait eta nire buruari galdetzen diot: heriotza maila desberdinak al daude?

Hau da, garai bateko "primerako eta segundako" hiletak egiten ziren moduan, gaur egun ere, prezio desberdineko heriotzak al daude?

Berritri ere, Afrika bigarren mailako kontinente egiten ari gara. Dituzten aberastasunak "lapurtu" eta pertsonak, berriz, "bost axola".

## "Mandatariak herritarren aurretik, ondo bereizita"

## USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.eus

## Erostekotan, originala

**G**ustatu, asko gustatzen zait musika, baina aspaldian ez dut askorik entzuten. Orain dela urte batzuk bai: gogoan dut zapatuetan baserrira joan eta lehengusu batek diskoz beteta zuen gelatik nola hartzen genuen mordoxka bat eta etxera ekarri; ozen jarri eta gozatu egiten genuen haiek entzuten. Eta gustatuz gero, zer? Grabatu? *Pirata* erosi? Internetetik jaitsi? Diskoak eskuratzeko hamaika bide daude gaur egun, doan ez bada merkeago, gutxienez, eta nik ere egiten dut batzuetan. Euskaldunekin ez, horiek dendan erosten ditut, originalak. Eta egitekotan, hala egingo dut Pettiren *Astirtitan*-ekin. Martitzenean, Euskadi Irratian entzun nuen autoan nindoala, eta asko gustatu zitzaidan.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Lapurreta

**Idurre Eskisabel**  
<http://goo.gl/RqkGKS>

Ikusi orduko esan dit lagunak: "Badakit zergatik zabilzan begitarrea goibelduta, Greziakoagatik da". Begirada huts batekin erantzun diot. Segitu du: "Neu ere halaxe nengoke zeuk ibili duzun festa ibili izan banu: Grezia, gerezia, Ziritza, Syriza, *cereza, cerise...* Hainbeste udaberri, iraultza eta berritze, zer eta gutxieneko berdintasun keinutik urrun gizon hutsezko gobernu bat eratzeko". Isilik geratu naiz. Ez dut nahi oraindik *Syriza/ziritza* hitz jokoarekin barrez lehertzeko desiratzen daudenen arrazoiketa gizen; fedean iraun nahi dut oraindik.

Lagunak, ordea, berriro ekin dio. [...] Diosta muinean dabilzala oker Syriza, Podemos, eta gure ezker propioko proposamenak. Muinean dabilzala oker, hain justu, austeritateari kontra egitea bihurtu dutelako bandera. Sutsu erantzun diot neurea ere badela bandera hori: gutxi batzuek izarigabeko oparokeria lardatsean bizi daitezen gehienek bizimoduei aplikatutako herstura itotzailearen kontrakoa, alegia.

Baina lagunak dio austeritatea ez dela lastura eta gogortasuna bakarrik. Aitzitik, austeritatea badela baita ere soiltasuna eta xumetasuna; edukitzearen liluratik izatearen gozamenera iristeko modua. Erantsi du, egin diguten lapurreta handiena esanahiena dela.

Isilik geratu naiz, ez baitakit zer erantzun.

## Klima aldaketaren eragina tenisean eta beste kirol batzuetan

**Jon Torner**  
[argia.eus/blogak/jon-torner/](http://argia.eus/blogak/jon-torner/)

Teniseko lau txapelketa handienak –*Grand Slam* delakoa osatzen dutenak– hartzen dituzten hirietako tenperaturak geroz eta altuagoak dira. 1968az geroztik, batez besteko tenperatura beroenak gorantz egiten ari dira etengabe, klima aldaketaren adierazgarri dena, AEBetako Climate Central erakundeak ohartarazi duenez. Plazaratu dituen grafikoek argi erakusten dute igoera, Parisen

jokatzen den Roland Garros edo Frantziako Irekiaren kasuan bereziki.

Kasualitatez, Rafael Nadal tenislariak Melbournen (Australia) jokatutako partida batean deshidratazioa sufritu eta kazetariak klima aldaketari begira jarri diren berean kaleratu dituzte datuak.

Tenisa ez da tenperatura geroz eta beroagoen ondorioak sufritzen dituen kirol bakarra. Kriosfera (izoztua dagoen lur-eremua) urtzen ari da pixkana-pixkana [...]

Txakurrek bultzatutako Alaskako Iditarod trineo lasterketan, esaterako, elur geroz eta gutxiago dago; AEBetako izotz gaineko hockey liga nazionalako arduradunak kezkatuak daude, jokalariek gazteek entrenatu ohi duten estali gabeko pisten egoeratik; [...]; Everest igotzea geroz eta arriskutsuagoa da, izotz blokeak ezegonkorragoak direlako; etorkizunean hiri gutxiagok antolatu ahal izango dituzte Neguko Joko Olinpikoak; eta bada esaten duenik ere beisbol jokalariek *home run* gehiago lortzen dituztela klima aldatzen ari delako, airea finagoa denez, pilota urrunago jaurtitzea dagoelako, alegia.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendaria** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Urbane Madera

**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo.

**Publizitatea** Mireia Larrañaga,

Amalia Mundinano, Ziortza Martin,

Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 09

[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014

**ISSN:** 2174-369X

**Tirada:** 20.100 ale

**Diffusioa:** 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritza**  
**diruz lagundutako**  
**aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

## Espainia Marokoren konplize sahararren zapalkuntzan

**Ekiñe Zurutuza, Xabier Etxebarria**  
(Udan saharar lurralde okupatuetatik kanporatutako brigadistak)  
Oñati

2010ean Gdeim Izikeko gazte sahararrek protesta kanpaldi bat egin zuten. Marokoko gobernuak modu basatian zapaldu zituen gazteen aldarrikapenak. Udaberri arabiarren hasiera izan zen.

Gertakarien harira, saharar gazteen aurkako errepresioak hainbat atxiloketa eta epaiketa ekarri zituen. Epaitutako gazte horietako bat Hasana Aalia izan zen. Zigorra txikia izanik, ez zuten espetxeratu.

2011n, ikasketak zirela eta, Euskal Herrira etorri zen. Bere egonaldia amaitzeko bi hilabete falta zirela, tribunal militar batek Gdeim Izikeko gertakariengatik epaitu behar zuela jakin zuen. Bizi osoko kartzela zigorrera kondenatu zuten.

Egoera ikusirik, Euskal Herrian gelditu eta estatu espainolari asilo politikoa eskatzea erabaki zuen.

Orain, asilo politikoa ukatu egin diote eta hamabost eguneko epean Marokoko gobernuari entregatua izateko arriskuan dago.

Egoera hau salatu nahi dugu, Marokoko gobernuak espainiar estatuaren konplizitatearekin saharar herriaren aurka daraman zapalkuntza politika guztia bezala.

Horrez gain, gertaerei adi egon eta egon daitezkeen deialdi eta mobilizazioekin bat egitera animatzen zaituztegu.

Gaur egun, sinadura bilketa bat dago martxan Interneten.

Zapatuan (urtarrilak 31) manifestazioa egongo da Bilbon, Arriagatik 17:00etan irtenda; bada, autobusak egongo dira hara joateko, eta izena eman daiteke Arrasaten (Jai Zale eta Irati tabernetan) eta Oñatin (Arranon).

## Behin batean (beste) osoko bilkura xeble bat (Antzuolan)

**Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola**  
(Antzuolako EAJko zinegotzia)  
Antzuola

Udal aurrekontuak aurrera ateratzeko osoko bilkura batek ipuin bat kontatzeko emango balu, prepotentzia politikoaren inguruan josi nahiko nuke kontakizun bat.

Non ikusi da udal aurrekontuak Ogasun batzorde bakar batean azaldu izana? Antzuolan. Eta handik zuzenean... ezohiko osoko bilkura batera.

Osoko bilkuretan, edonola, ohikoa izaten da talde guztiek hitza erabili ahal izatea; iazko aurrekontuen osoko bilkuran izan ezik, alkateak hitza ukatu baitzigun. Ez da hori ere prepotentzia zantzu makala.

Aurtengoan hitz egin ahal izan dugu. Eta gure ezezkorako arrazoiak azaldu. Ez zitzaizkien gustatu arrazoiak.

Ez zitzaien gustatu Bildukoei erabat transparentziaren kontrako izatearen gure salaketa. Irakurle, aukera baduzu, eskuratu aurrekontuen dokumentua eta zera ikusiko duzu: ez dagoela partida bat ere apenas zertarako den adierazten

duenik. Beno, bai, bat edo beste; adibidez, udaletzeko igogailuarena, Antzuolan udaletxe bakarra dagoelako -bi baleude, asmatu ezin.

Bildukoei ez zitzaien gustatu urtero-urtero, geroz eta handiago, atez ateko zabor bilketak eragiten duen zuloa agerian utzi izana: hiru urtean, zabor bilketaren defizita: 241.000 euro. Esan genuenean hamar urtean xahututakoarekin Antzuolarako gauza handiak egin zitezkeela... haserre agertu ziren. "Herritik pasatzen den makro-azpiegitura-suntsitzailearen diruarekin bai egin zitezkeela makina bat gauza!", oihu egin zuten. Eta oihuak bere grazia du: bat, badakitelako trena Madrilek ordaintzen duela eta diru hori trenerako edo beste ezertarako ez dela. Bi, "herritik pasatzen diren makro-azpiegitura-suntsitzaileen" artean... Aldundiaren errepidea ahaztu zutelako.

Gauzak horrela, bereziki salatu genuen *Mankomunitateei* izenburu duen partida, ia 400.000 eurokoa, beste inolako aipamenik gabekoa. Ez da bidezkoa Udalaren gasturik handiena horrela bentilatzea. Eta orduan... Bildukoek antzeppen txiki bat egin ziguten: xehetasunak "dokumentuan gorago" zeudela zin eginez. Ia konbentzitu egin gintuzten gure hanka-sartzea izan zela... baina ez. Guri bidalitakoan ez dago horren inolako aipamenik; ez goian, ez behean. Harrapa ezan!

Eta ipuina amaitzeaz, azken aipamen bat: alkatearen soldatarena. Bilduk jaitsi egin zuen soldata agintaldi hasieran. Guk ez genuen uste orduan izendatu berria zen alkate andreak bere aurrekoak baino gutxiago kobratu behar zuenik; ez, behintzat, alkatetza batek behar duen dedikazioa jartzeko asmoa bazeukan. Eta zer da eta

orain, %27 igo dute alkatearen soldata. Ba, aizue, izan zuen esplikaziorik alkatearen beraren ahotan: "Hauteskunde ondoren gehiago kobratzea erabaki dut". Beraz, 2016an Antzuolako alkate izango denak -oraingoa izan, edo besteren bat izan- %54 gehiago kobratuko du urteko. Bitako bat: edo gutxi kobratzen aspertu egin da edo Bilduk buruan duen hautagaiak oraingoak baino gehiago merezi du.

Eta honekin, eta beste batzuekin, bukatu zen azken osoko bilkurako kontua.

## AHT: faraoiak edo herritarrak

**Ibai Redondo**  
(Debagoieneko Sortu)  
Debagoiena

Bergaran eta Euskal Herrian kapitalismoaren krisia sufritzen ari gara herritarrak: langabezia, lan baldintzen prekarizazioa, zerbitzu publikoen kalitatearen galera, etxegabetzeak... Azken urteotan herritarron bizi baldintzak (bereziki emakumeenak) okertu egin diren arren, aberatsak orain dela bost urte baino aberatsago dira. Laster, munduko %1 aberatsenak gainontzeko %99ak baino aberastasun handiagoa izango du pilatuta. %1 horren artean daude AHTren obretatik dirua ateratzen ari diren eraikuntzako multinazionalen (ACS, FCC, Sacyr) eta banketxeen buruak (Botin familia nagusi).

Asteazkenean, Ana Pastor Espainiako Sustapen ministroa eta Ana Oregi Jaurlaritzako Lurralde Politikako sailburua izan ditugu Bergaran. PPK eta PNVk elkarri bostekoa eman eta gutzian diruak beraien lagunen

arte, eraikuntzako multinazional eta banketxeen artean banatu dituzte. Gaur egun, politika eta politikari hauek banketxeen eta multinazionalen menpe daudela agerikoa da. Horregatik, PPKo eta PNVko buruek AHT bezalako obra faraonikoak erregalaten dizkiete gorbataadun faraoi berriei. Eta esandakoa gutxi balitz, PPKo buruak zuzenean faraoi hauen multinazionalitateak kobratzera pasatzen ari direla ikusten dugu, gauza bera PNVko hainbat bururekin: Josu Jon Imaz (Repsol), Javier Balza (Petronor), Mario Fernandez (Repsol), Iberdrola, BBVA, Kutxabank, Nuria Lopez de Gereñu (Confebask)...

Multinazional eta banketxeek agintzen duten honetan, demokrazia da jokoan dagoena, herritarren boterea baita demokrazia. Demokrazia berreskuratu beharra dago, zapaltzen gaituzten estatuen aurrean eta boterea lapurtu diguten faraoien aurrean. Nire ustez, demokrazia behar dugu euskal bidea egiteko: Euskal Herrian dagoen aberastasuna garapen sozial, kultural eta ekonomikoaren alde jartzeko; enpleguan eta babes sozialean inbertitzea; osasun eta hezkuntza sistema publiko eta kalitatezkoa eskuratzeko; inor bere etxetik bota ez dezaten; makroproiektuak behar ditugun edo ez erabakitzeke; estatu independentea osatu edo ez erabakitzeke. Gure herria estatu zapaltzaile zein multinazionalen atzaparretatik libre bizi dadin eta herritarrok arlo guztietan gure etorkizuna erabaki dezagun gehiengoak osatu behar ditugu. Faraoien lurraldean, menpean gaituztenak %99 gara, alderdi eta pentsaera guztietakoak, batu eta egin dezagun burujabetza eta justizia sozialerako euskal bidea.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñati Lizeoaren 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943-25 05 00



## Amaia DJ

Gazteendako bideoklipak

Amaia Txintxurretak aurkeztuta

► Eguena, 22:00

► Parte hartzeko:

· Twitter: @amadij

· Tuenti: DJ Amaia Txintxurreta

· Whatsapp: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)

· Telegram: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)

# ikastolam

denok gara




ikastolenelkartea



[www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus)

  
**TXANTXIKU  
IKASTOLA**

943 78 12 04  
[www.txantxikuikastola.eus](http://www.txantxikuikastola.eus)

 **arizmendi  
ikastola**

902 11 20 25  
[www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)

 **ARANZADI ikastola**  
Kalitatezko Euskal Heziketa

943 76 90 71  
[www.aranzadiikastola.eus](http://www.aranzadiikastola.eus)

# HERRIAK

ARAMAIO

## Gogoz kantatu nahi du Aramaiok!

- ▶ Lau kultura taldek antolatuta, Santa Ageda eskean irtengo dira bihar aramaioarrak
- ▶ Herriari beste ekintza batzuk eskaintzeko bideratuko dute baserriz baserri jasotako dirua

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Eztarriz sano eta kantatzeko gogoz daude Aramaion, eta aurturten ere Santa Ageda batzea modu berezian ospatuko dute. Bihar irtengo dira, "galtzeaz" zegoen tradizio bat berreskuratzera; ahalegin berezia egin zuten orain lau edo bost urte, eta gaur egun herriko lau eragile inplikatu dira jaiaren antolakuntzan: Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzak, Trikitixa Eskola eta Bertso Eskola.

"Dinamika berri" bat hartu du ospakizunak, herritar guztiarendako "onuragarria" dena: "Galtzeaz zegoen ohitura bat berreskuratzea lortu dugu, eta hori itzela da. Beste alde batetik, askotariko eragileak elkartu gara, eta eragileon arteko harremanak sendotu egin dira urtean zehar beste zenbait ekitaldi antolatuzeko", uste du bertso eskolako kide Xabi Igoak.

### 30 lagun espero dira, gutxienez

Urtarrilean lau entsegu egin dituzte. Entseguak aurrera joan ahala gero eta jende gehiago joan da batzen eta espero dute iaz baino jende gehiago irtengo dela bihar eskean. Eguraldia, baina, ez dute lagun izango; iaz euria egin zuen eta aurturten ere euria egingo du. Hala ere, gutxienez, 30 bat lagun elkartuko direla espero dute antolatzaileek.

Santa Agedarekin lotutako doinuez gain, bertsolarien ekarpena ere izango dute. Bi abes-



Urtarrilean lau entsegu egin dituzte; atzo egin zuten azkena. Irudian, hilaren 22an osoko bilkuren aretoan egin zuten entsegua. | JOKIN BEREZIARTUA

batzek, trikiti doinuez lagunduta, kantuan egiten duten bitartean, bertsolariak euren bat-batekotasuna eskainiko dute, eskea freskoagoa izan dadin.

Bizente Goikoetxea plazan elkartuko dira bihar, 10:00etan, eta goizean baserriz baserri joango dira: "Baserrietan oso giro ona sortzen da. Kanean, nire ustez, ez da halako giro berezirik sortzen. Esango nuke Santa Ageda ospakizuna baserri girokoa dela, bereziki", dio Bizente Goikoetxea abesbatzako presidente Jose Luis Madinak. 30 baserritik gora bisitatzeko asmoa dute; pozik dago Madina, ohitura berreskuratzea lortu delako: "Lehen, Bizente Goikoetxea abesbatzako bakarririk irteten ginen, jende gutxi elkartzen ginen. Orain, beste taldeen laguntzarekin, asko irabazi du ospakizunak".

Goizeko saioen ostean, bi taldeak Iturrieta sagardotegian elkartuko dira bazkaltzeko. Bapojan eta indarrak hartu ostean, kalera jaitsiko dira talde bakarrean, Ibarra osoa euren kantu, doinu eta bertsoekin girotzeko. Ospakizun eguna kaleko elkarte

gastronomiko baten amaituko dute, mokadutxo batekin.

### Batutako dirua, herritik herrira

Jasotako dirua herrira bideratuko dute: "Herritik jasotzen duguna herriari bueltatuko diogu. Horrekin esan gura duguna da, talde bakoitzak ahal duen heinean eta aditu edo zale den horretan, ekitaldiren bat anto-

latzen saiatuko garela. Hala, bada, herria bera irteten da irabazle, Santa Ageda ospakizunean batutako diruarekin beste hiru edo lau ospakizun edo ekintza antolatuko ditugu-eta", adierazi du Xabi Igoa bertsolariak.

### Uribarri eta San Martin eskola

Biharkoa izango da herriko Santa Ageda ospakizun nagusia.

Horrez gain, baina, Aramaioko zenbait auzotan badago ohitura Santa Ageda eskea egutegiari dagokion egunean egiteko, otsailaren 4an. Uribarri auzoan, esaterako, urtero irteten dira.

San Martin eskolako neska-mutikoez, berriz, Ibarra hainbat txoko eta inguruko auzoetako baserri batzuk bisitatuko dituzte, makila eskuan.

### EGITARRAUA: URTARRILAK 31

**10:00** Bizente Goikoetxea plazan elkartuko dira.

▶ **A ibilbidea:** Matxain kalea, Solaia, Ametzu, Maskaiño, lbabe eta Araneko errota.

▶ **B ibilbidea:** Zalgo, Errota Berri, Basauti, Arraga eta Arraburu.

**14:30** Bazkaria Iturrieta sagardotegian.

**17:00** Bi taldeak Ibarra jaitsiko dira kalea girotzeko. Elkarte gastronomiko baten amaituko dute ospakizuna, mokadutxo batekin.

### ESANAK

"Galtzeaz zegoen ohitura berreskuratu dugu, itzela da"

XABI IGOA | BERTSO ESKOLA

"Lehen, jende gutxi elkartzen ginen; orain, asko irabazi du"

JOSE LUIS MADINA | BIZENTE GOIKOETXEA



lazgo Santa Ageda eskea; aurturten ere eguraldia ez dute lagun izango. | GOIENA



# Etxetresnetako kaltetuekin bitartekari izango da Udala

Mondragonekin elkarrizketa abiatzeko "baliabide guztiak" jarriko ditu martxan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak bitartekari lanak egingo ditu Fagor Etxetresnen itxierak kaltetutako eta Mondragon Taldeko zuzendaritzaren artean. Ordaindu plataformak martitzeneko osoko bilkuran aurkeztu zuen mozioa aho batez onartu zuen udalbatzak –kaltetutako pertsonen lepo bete zen aretoa–, eta adierazi zuen Udalaren esku dauden "baliabide guztiak" jarriko dituela bi aldeen arteko elkarrizketa abia dadin.

Ordaindu plataformako eledun Mikel Olabe "pozik" agertu zen mozioa aho batez onartu zelako, baina gogora ekarri zuen hilabeteetako lana izan dela hiru udal taldeen babesa lortzea. Mozioak bi helburu nagusi zituen: batetik, Mondragon Taldeak hartzekodun txikien diruak bueltatzea exijitzea eta, bestetik, Fagor Etxetresnen itxieragatik galdu ziren lanpostu finko guztiak errekuiperatzea.

## "Ziur nago lortuko dugula"

Horretarako, Udala Mondragonekin bitartekari lana egitea onartu zuen, eta, era berean, Diputazioari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatuko die arazoan parte hartzeko. Olabek uste du mozioaren bi helburu nagusiak lortuko direla, lehenago edo geroago: "Ziur nago azkenean lortuko ditugula lanpostuak guztiondako, eta gure kapitala ere bueltatuko digutela.



Mikel Olabe eta Inazio Azkarragaurizar berbetan, bilkuraren aurretik. | J. BEREZIARTUA

Hori bai, zenbat eta beranduago, orduan eta okerrago izango da kaltetuondako eta kooperatibarendako". Balio kooperatiboen krisia eta kooperatiba eredu birpentsatu egin behar dela aldarrikatu zuen Olabek.

Kaltetuek protesta ekintzekin jarraituko dute. Besteak beste, Garagartzako lantegiaren atarian egon ziren atzo Catak presidente Xabier Bengoetxeari euren eskaerak helarazteko, eta otsailaren 5ean Legazpin manifestazioa

egingo dute, Mondragoneko presidente Javier Sotil bizi den herrian. Otsailaren 6an Gipuzkoako Batzar Nagusietan egongo dira.

Bestalde, osoko bilkuraren hasieran minutu bateko isilunea egin zuen udalbatzak, hil berri den PSE-EEko zinegotzi Rakel Diazen oroimenez. Gregorio Atxutegik ordezkaturko du Diaz aurretiaz; amaieran, alderdi bereko zinegotzi Aritz Arrietak udalbatzaren jarrera txalotu zuen, "instituzionalki zein pertsonalki".

## Gaur ekingo diete San Balerio jaiei Meatzerrekan

I.G. | ARRASATE

San Baleriok bisitari ugari jasoko ditu, Meatzerreka gaur murgilduko da eta auzoko jaietan. 18:00etan etxafuegoekin festari hasiera eman ostean, Arrasateko jendea hitzaldiaren txanda izango da. 22:30ean, mus txapelketa jokatu da.

Zapatu eguerdiko tortilla lehiaketaren ostean, arratsaldean, gazteek jolasak, bigantxak eta txokolatea izango dira. 21:00etako auzo afariaren ondoren, Orots taldearekin erromeria egingo dute, eta 01:00etan, jaien ezaugarri den txerri harrapaketa egingo dute.

Domekako 11:00etako meza-oren ondoren, herriko Txikitxu dantza taldeak auzo-dantza egingo du. Ekitaldi horrekin amaituko dituzte San Balerio jaiak Meatzerrekan.

## NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA



## Lagunak

Euskaraz badaude, beste hizkuntza askotan bezala, lagunengaineko hainbat atsotitz edo esaera zahar. Gotzon Garateren *Atsotitzak* lanean murgilduz, batzuk topatu ditut: *Anaia emana*, *laguna aukeratua* (egi haundixe dok hau: lagunak norberak aukeratu jittuk); *Lagun ona galtzea biño*, *ortzak galtzea obe* (zenbat eta lagunago, dentistaren faktura orduan eta garestiago); *Lagun ona ta andre txarra betiko* (horrela zelan ezkonduko gaittuk ba?); *Lagun zintzue*, *benetakue*; *bat ixen da be*, *neikue* (Facebookek jai jauke orduan).

Hauek topatzen nabilela, gaztaroko lagun bat etorri zait burura, 25 urte zituela ohean

hil zena. Neskalaguna izan aurretik sarritan elkarrekin ibiltzen ginen batetik bestera, lantzean behin pala partiduren bat, beste batzuetan soziedadean afaritxo, opor batzuetan Andaluziara bisitan eta haserre baino gehiago elkarri zikiratuz pasatzen genuen denbora.

Ezagutu nuen neskarekiko maitasun egarriak, akaso une batez, lausotu zituen gure artekoak eta berritua lagunarengana zihoan bidea hartzearen nengoela hark alde egin zuen ezer esan barik. Oraindik orain lagun hark utzitako hutsuneak nire bihotza zirikatzen du tarteka, gogoratzeko inoiz mundu honetan izan zela eta batez ere lagun handia izan nuela.

Besarkada bat bialketan dustat negu heze eta hotz honetatik, Juan.

**Berriro bidea hartzearen nengoela, alde egin zuen**



Santa Ageda abesbatza elizako atarian. | GOIENA

## Abesbatzak eguaztenean kantatuko du aterik ate

Otsailaren 4an, ohitura zaharrari eutsiz, Santa Ageda koruak herria girotu eta dirua batuko du

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Aurten ere, Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, Santa Ageda korua kantuan ibiliko da herriko auzoetan eta base-rietan zehar. Ohitura zaharri eutsi eta herria girotzeaz gain, ekimen horren helburua dirua biltzea da, gero beharra duten kolektibo eta taldeen artean banatzeko.

Iaz 4.900 euro batu zituzten, eta Caritasek kudeatzen dituen hainbat proiektutan banatu zituzten. Aurten ere eskuzabaltasun horren bila irtengo dira herriko kantariak.

Bada, Santa Agenda bezperan ekarpenik egin ezin dutenendako edo dohaintza egin nahi duten enpresa edo dendendako, abesbatzak 2095 5055 56 1066568303 kontu korrantea zabaldu du, aterik ate jasotzen duten kopurua handitzeko.

## Otsailaren 2an entsegua

Eguazteneko saioaren aurretik, entsegua egin eta giroa berotzen hasteko, astelehenean batuko dira Amaur elkartean, 21:00etan.

Asteleheneko deia, kantariendako ez ezik, poltsero eta laguntzaileendako ere bada.



ARIZMENDI IKASTOLA

## Sasoiko produktuak erieten

Produktuak zelan ekoizten diren ikasteko, Umezaintzako haurrak gogor ari dira berotegian eta ortuan lanean. Landaketarako lurra prestatuta daukate, eta berotegian hasita daude garaian garaiko produktuak haziak landatzen. Handitzen direnean, **KOMUNITATEA GOIENA** ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE bazkari goxoak prestatuko dituzte.



*Only essenza*

*For Him - For Her*

**711 lurrindegi mundu osoan eta bat zuek hurbil**

Hemen gaude:  
Maisu Arano 8 (Portaloia), Arrasate  
[www.equivalenza.es](http://www.equivalenza.es) #onlyessenza

**EQUIVALENZA**



Arbolapeta, zuhaitz zaharren txorkoa ikusten dela. | IRATI GOITIA

## Haritza landatuko dute Arbolapetan

Herritarren %55ek aukeratu dute zuhaitz mota hori eta otsail amaiera aldera jarriko dute

IRATI GOITIA | ARRASATE

Astebete izan dute arrasatearrek gogokoen zuten zuhaitz motaren aldeko botoa emateko, bai Udalaren webgunean eta baita BAZen ere. Bada, gehiengoak haritza aukeratu du. Zehazki, jaso diren 1.123 botoetatik 624 jaso ditu zuhaitz mota horrek (%55). Horren ostean, astigarrak jaso ditu boto gehien (309, %27), eta gutxien ezkiak (190, %16). Horrenbestez, haritz bat jarriko dute Arbolapetan. Oraindik ez dago data zehatzik, ordea. Edozelan ere, Udaletik adierazi dute zuhaitz berria otsail amaiera aldera landatuko dutela.

### Hainbat lan egin behar dira

Haritza landatu aurretik gaztainondo zaharren ipurdia kendu behar da lehendabizi. Eta Udaletik jakinarazi dute lanok kon-

plexuak direla. Lan eremuaren perimetra itxi egingo dute, materialak biltzeko guneak zehaztu eta oraingo txorkoa zuzenean inguratzen duten harlauzak eta hura estaltzen duen burdin sarea kendu. Harlauzak kendu eta gero, zuhaitzaren ipurdia ateratzeko lanak egingo dituzte. Eta azkenik, zuhaitz berria landatzeko lanei ekingo diete. Horretarako, adibidez, zanga handi samarra ireki beharko dute.

### Udaletik eskerrak herritarrei

Udala pozik azaldu da zuhaitzaren aukeraketak izan duen harre-  
rarekin -1.123 boto izan ditu-; hala, eskerrak eman nahi izan dizkiete parte hartu duten herritar guztiei. "Arbolapetari merezi duen neurriko garrantzia eta arreta ematearren", adierazi dute, hain zuzen.

## Garitanoren bi esan zuzendu ditu Udal Gobernuak

I.G. | ARRASATE

Juan Karlos Garitanok, EAJ-ko bozeramaileak, joan den astean 2015eko aurrekontuen inguruan egindako bi adierazpenetan "okerreko" informazioa eman zuela adierazi dute Udal Gobernutik. Batetik, Garitanok zehaztu zuen langabezia arintzeko esleipena 108.000 euro murriztu dela. Bada, Udal Gobernutik zuzendu egin nahi izan dute: "Udalak 2014ko ekarpen bera egin du enplegua sustatzeko, ez du zentimo bat ere jaitsi. Kontua da Lanbidek oraindik ez dituela 2015ean enplegua sustatzeko programak onartu. Horrenbestez, Udalak ezin izan du Lanbidek jadanik zehaztuta beharko lukeen diru horrekin kontatu". Bestetik, Garitanok zehaztu zuen 100.000 euro jaitsi direla gizarte larrialdietarako laguntzak. Bada, Udal Gobernutik hau zehaztu dute: "Gure gastu erreala kontuan hartuz erabaki da daukagun partida ezartzea. Baina igotzeko prest gaude beharra ikusiz gero. Horregatik utzi dugu partida zabalik. Bestalde, AESak Jaurlaritzaren esku-mena dira eta jaso beharko genukeenaren erdia ere ez dugu jaso".

## Edukiontzi berrien ezarpena atzeratu egingo da

I.G. | ARRASATE

Udaletik jakinarazi dute eskualdeko gainontzeko herriekin hondakinen bilketarako koordinazioa ondo egin guran eragozpenak sortu direla, eta, hainbat arrazoi teknikoetatik, hondakinen bilketaren ezarpenarako aurreikusitako data betetzea "ezinezkoa" zaiela.

Hala ere, espero dute ezarpena oso epe laburrean gauzatzea. Eta gaineratu sentitzen dutela atzerapenak herritarrengan sor ditzakeen "urdu-ritasuna eta endredoa".



JOKIN BEREZIARTUA

## Zarugaldeko mendia indartzen

Zarugaldeko mendi-hegalean hainbat lur-jausi eta harri erorketa izan dira. Bada, arazo horiek saihesteko helburuarekin, sarea jartzan dihardute langileek mendiaren horman aste honetan. Hain zuzen ere, 2015erako 110.000 euroko inbertsioa du aurreikusita Udalak horretarako. Proiektuak, denera, 334.000 euroko aurrekontua du.

## Ogia nola egin, argazkigintza eta flamenkoa ikasteko tartea

I.G. | ARRASATE

Gazteria Saitetik hiru ikastaro antolatuta dituzte: ogia egiten ikasteko, argazkigintza eta dantza flamenkoa. Lehenengoa, ogia egiten ikasteko, egun bakarrekoa izango da (martxoak 14, 9:30etatik 13:00etara). Bigarrenean ikasiko dute oinarriko argazkigintza, Photoshop eta Lightroom. Otsailaren 24tik martxoaren 31ra izango da, martitzenetan, 18:00etatik 20:00etara. Hirugarrenean, flamenkoaren oinarriko pausoak ikasiko dituzte. Egingo dute otsailaren 19tik martxoaren 26ra, eguenetan, 20:00etatik 21:30etara. Informazio gehiagorako eta izena emateko, Gazte Bulegora joan, 943-25 20 65era deitu edo [gib@arrasate.mondragon.net](mailto:gib@arrasate.mondragon.net) helbidera idatzi.

## Bizi gogoa pizteko tailer praktikoa Ekin-en eskutik

I.G. | ARRASATE

Ekin emakumeen elkarteak antolatuta, energia positiboa, baikortasuna eta bizi gogoa pizteko tailer praktikoa egingo dute datozen hilabeteotan. Elkartetik adierazi dutenez, nork bere burua sendotzeko eta indarberitzeko praktikak ikasteko aukera eskainiko du ikastaroak, hein batean. Emakumeendako da eta irakaslea Kontxi Garmendia izango da. Hilean behin izango dira saioak (otsailaren 3an, martxoaren 3an, martxoaren 31n, maiatzaren 5ean eta ekainaren 2an) Ekinen lokalean bertan, 18:30etatik 20:30etara. Izena emateko interesa duenak 943-79 83 70 telefonora deitu behar du edo [arrasatekoekin.emakumeak@gmail.com](mailto:arrasatekoekin.emakumeak@gmail.com) helbide elektronikora idatzi.

### ISA, Etxez etxeko ile-apaintzailea

17 urteko esperientzia duen ile-apaintzaileak etxez etxe lan egingo du; manikuran, pedikuran, depilazioan eta makillajea diplomaduna

605 72 51 38

Orraztu 11 €

Orraztu + Manikura + Aurpegiko depilazioa 20 €

Prezio ezin hobeak!

Kontsultatu konpromiso barik!

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda  
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta  
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra  
Kontxi Lazkano - Pedagogoa

Diagnostikoa - Orientazioa  
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak  
Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak  
Estimulazio goiztiarra  
Logopedia  
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
[psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net](mailto:psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net) RPS 295/13



Governors taldea, *Morphinapolis* diskoa aurkeztu zuenean Arrasateko gaztetxean. | IMANOL SORIANO

## Governors taldeak kontzertua eskainiko du bihar Bilboko Santana27 aretoan

Emanaldia osorik grabatuko dute; izan ere, DVDa kaleratuko dute ondoren

IRATI GOITIA | ARRASATE

Governors taldeak kontzertua eskainiko du bihar Bilbon, Santana27 aretoan. Juan *Sangre* abeslariak adierazi du musika eta ikuskizuna bateratuko dituen emanaldia izango dela: "Ikusgarria izango da". Gainera, oholtza gainean ez dira bakarrik izango. Izan ere, hainbat kolaboratzaile izango dituzte, hala nola Zuriñe

Hidalgo, Aitor Antruejo eta Naroa Gaintza. Kontzertuaren beste berezitasun bat izango da euren jarraitzaileek eskatutako abestiak joko dituztela. Izan ere, Facebook bidez zein abesti entzun nahi dituzten galdetu diete zaleei, eta, hain zuzen ere, bozkatuenak joko dituzte.

Kontzertua 21:30ean hasiko da, baina aretoko ateak 20:30ean

irekiko dituzte; DJ Elepunto izango da giroa berotzen.

### DVDaren grabazioa

Zuzeneko emanaldia grabatu egingo dute. Arteman enpresa arduratuko da horretaz. Izan ere, zuzeneko emanaldia DVDan jasotzeko asmoa dute. Eta espero dute otsail amaierarako bukatuta izatea muntaia.

## Egun osoko egitaraua, inperialismoaren aurka

Askapenak eta gaztetxeak antolatuta, bihar

I.G. | ARRASATE

Askapenak eta gaztetxeak antolatuta, *Donbasetik ez dira pasako!* lelopean, inperialismoaren aurkako eguna egingo dute bihar. Antolatzaileek adierazi dute helburua dela Donbasetiko erresistentziari elkartasuna erakustea eta bertako egoerak bizi duen "blokeo mediatikoa" haustea.

Goizean, 12:00etan, Askapeneko brigaden aurkezpena izango dute gaztetxean, eta ondoren, 12:30ean, hitzaldia. Jon Kortazar historialaria eta abenduan Donbassen izan zen Ibai Trebiño internazionalista arrasatearra izango dira hizlariak. Hango gatazka zertan datzan eta zein

interes dauden azalduko dute, besteak beste.

Arratsaldean, mural bat margotuko dute gaztetxearen kanpoaldean, 20:00etan. Horren ostean, afaria eta vodka dastatze solidarioa egingo dituzte –ez dago aurrez izena eman beharrik–. Eguna amaitzeko, DJ Bull-ek musika jarriko du, 22:30etatik aurrera.

### Bilbora joateko deia

Antolakuntzatik ohartarazi nahi izan dute ekintzen ordutegia aldatu egin dela. Izan ere, Hasana Aalia sahararraren alde Bilbon egingo den manifestazioaz bat egin dute eta egitaraua aldatu dute.

## Tutan Come On taldeak emanaldia egingo du Iluntz tabernan gaur, egubakoitza, 23:00etan

Tutan Come On talde gasteiztarraren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 23:00etan hasita. Salterainek –bateria eta ahotsa– eta Condek –gitarra eta ahotsa– osatzen dute taldea. 2013an egin ziren ezagun eta ordu tik hona emanaldi ugari eskaini dituzte. Bada, bi partaide bakarrik diren arren, kontzertu bizi eta indartsuak eskaintzen dituzte. Stoner eta punk doinuak nahasten ditu bikote gasteiztarrak eta euskaraz abesten dute.



Matrikulazio epea zabalik  
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan  
**otsailaren 2tik 13ra**

  
Gurasoen Elkarte

Arrasate  
Herri Eskola

  
goieskola  
www.goieskola.hezkuntza.net

  
baikara  
Gipuzkoako Ikasleen  
Gurasoen Federazioa

Guk bezala,  
egin apustu, egin kiñu  
Euskal Eskola  
Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

## 'Udalatx' lasterketarako izena, domekatik aurrera

IRATI GOITIA | ARRASATE

Arrasate-Udalatx Mendi Lasterketa antolatzen dihardute Mondraitx elkarteko kideek. 21 kilometro inguru izango ditu eta 1.300 metroko desnibela. Lasterketa apirilaren 19an egingo dute eta domeka honetan, otsailak 1, zabalduko dute izen-ematea. Hori egiteko bi aukera daude: Internet bidez -Herrikrossa.com webgunean sartuta- edo Arrasateko Korrika Trail dendan. Federatuta egonez gero, 20 euro ordaindu behar da; bestela, 23 euro. Elkartetik gomen datu dute azkar ibiltzeko. "Askori entzun diegu lasterketa egiteko gogoia dutela eta sare sozialen bitartez ere interes handia dagoela ikusi dugu, galdera asko jaso

dugu-eta", esan du antolakuntza lanetan dabilen Iker Sarabiak.

### Maila handiko korrikalariak

Mondraitx klubeko kideek lasterketa antolatzeko asmoa zutela iragarri zutenean, esan zuten herrikoia izatea gura zutela, baina maila handiko korrikalarien parte-hartzea espero zutela. Bada, Sarabiak baieztatu du Oihana Kortazar elgetarra eta David Lopez segoviarra etortzekoak direla.

Bestalde, prestatze lanak ondo doazela dio Sarabiak: "Oso aurreratu ditugu lanak. Hala ere, aurrerago, deialdia egingo dugu lasterketa egunean bertan laguntzeko gertu egongo diren boluntarioak eskatzeko".



Antolatzaileak mendi lasterketako ibilbidean korrika. | ARITZ GORDO



ARRASATE ESKUBALOI TALDEA

## Urteetako babesagatik, omendu

Arrasateko eskubaloi saila urteetan babestu izanagatik eta taldearen alde eginiko lanagatik omenaldia jaso zuten joan den zapatuan Anjel Moralejak, Manuel Carrascok, Jose Luis Borbollak eta Iker Murillok. Oroigarri moduan taldeko kamiseta jaso zuten. Esker hitzak izan zituzten guztiek.

### Dragoi Gimnasia Taldekoak Eibarrera doaz lehiatzera, bihar

Bihar, zapatua, jokatu dute Eibarren gimnasia erritmikoko eskolarteko amateur mailako lehenengo fasea. Eta han izango dira Dragoi Gimnasia Taldeko hainbat kide ere. Saioa Ipuruako kiroldegian izango da; goizean 11:00etan hasita, eta arratsaldean 16:00etatik aurrera.

### Federatu txartelak jasotzera joateko dei egin dute Besaidetik

Besaide Mendizale Elkatekoek jaso dituzte aurtengo federatuen txartelak. Hala, horiek batzera euren egoitzara joateko dei egin diete federatu direnei (Garibai 3 bis). Txartelak jasotzeko egunak eta ordutegia honako hauek dira: martitzena eta eguaztena, 19:30etatik 20:30etara.

## ZALDIBAR

### EMAITZAK

Dribling 2.0 - Kantzerlauten	11-1
Abokajarro - Jibaros F.C.	4-1
Haizea's Weah - Sonografos	4-2
Iluntz - Aldatz	0-1
Lasagabaster - Arrasate Taberna	2-2
Betrayer - Alytis FK 2.0	5-1
Drink Team - Ostantz	4-6

### SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1. Dribling 2.0	25	9
2. Aldatz	24	9
3. Jibaros F. C.	18	9
4. Abokajarro	15	9
5. Sonografos	15	9
6. Alytis FK 2.0	14	9
7. Ostantz	13	9
8. Lasagabaster	13	9
9. Haizea's weah	11	9
10. Betrayer	11	9
11. Kantzerlauten	8	9
12. Drink Team	5	9
13. Arrasate Taberna	4	9
14. Iluntz	0	9

### PARTIDUAK

URTARRILAK 31, ZAPATUA

11:00 Drink Team - Lasagabaster / Alytis FK 2.0

12:00 Dribling 2.0 - Alytis 2.0 / Lasagabaster

13:00 Arrasate Taberna - Sonografos / Dribling 2.0

OTSAILAK 1, DOMEKA

11:00 Betrayer - Aldatz / Kantzerlauten

12:00 Kantzerlauten - Ostantz / Betrayer

13:00 Abokajarro - Haizea's Weah / Ostantz

## ARRASATEKO UDAL HAUR ESCOLA

matrikula  
epea zabalik  
otsailaren 2tik 13ra

## UMEZAINNTZA

0-3 URTE

San Andres, 8

## URIBARRI

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE

Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25 [www.arizmendi.eus](http://www.arizmendi.eus)



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

arizmendi  
ikastola

# Arantzazu eta Oñati, Fiturren aurkeztu dituzten eskaintzen artean

Azpeititik Manresaraino doan *Inaziotar bidea* aurkeztu dute; lehen jubileu urtea izango da, gainera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aurten ere Oñatiko turismo eskaintzaren berri eman dute eguaztenean hasi eta domekan bukatuko den Madrilgo Fitur azokan. Eusko Autonomia Erki-degoak bi eskaintza eraman ditu hara: Donostia 2016 eta *Inaziotar bidea*. Bigarren eskaintza horretan erakutsi dute Oñatiko zati bat: Arantzazu, hain zuzen.

## Bailarara

Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta Azpeitiko eta Zumarragako udalen ordezkariarekin batera Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako presidente Igor Ezpeleta eta Turismo teknikari Ana Heriz izan dira Madrilen eskaintza horien aurkezpenean. "Gure bailararako oso garrantzitsua da EAEk aurkeztu dituen bi aukeretako bat *Inaziotar bidea* izatea. Berez, lehenik ere ezagutzen genuen Hiru Tenpluen Ibilbidea jasotzen duen eskaintza da, baina Manresaraino doana. Horrek esan gura du Euskal Herritik harago, Aragoiko eta Kataluniako herri-tarregana ere iritsiko dela eskain-



Mankomunitateko ordezkariak, Fiturren. | DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

tza hori eta haiek hona etorriko diren aukera zabaldu egiten dela", dio Igor Ezpeletak, Madrildik.

Arantzazura etor daitezkeen turistak bailarara nola erakarri da, orain, Mankomunitateak duen erronketako bat. "Gura duguna da turista horiek Oñatin bakarrik

gelditu beharrean bailarako beste herrietara ere erakartzea, Debagoiena ezagut dezaten", adierazi du Ezpeletak. Hori lortzeko lanean hasita daudela onartu du Ezpeletak. "Bailarako turismo teknikari guztiekin batera ari gara lanketa hori egiten. Hemen

dugun eskaintza zehaztu eta hori turistei nola helarazi ari gara aztertzen", zehaztu du.

## Manresara

*Inaziotar bidea* izeneko produktua eguazten arratsaldean aurkeztu zuten eta Loiolako Inaziotar Azpeititik Manresaraino egin zuen bidea jasotzen du; 1522. urtean egindako bidea da, hain zuzen ere. Gainera, aurten, bide horren lehenbiziko jubileu urtea da, eta horrek Oñatira eta Arantzazura etor daitezkeen turista kopurua handitu egin dezake. Hala, Mankomunitateak garrantzitsutzat jotzen du turista horiek bailarara erakartzeko modua aurkitzea.

## Txokolatea ere bai

Fiturren aurkeztu duten aukera horrez gain, Oñatiko beste turismo eskaintzen zabalkundea ere egingo dute aurten, Azul Marino enpresaren bitartez. "Adibidez, txokolatearen historia, Arrikruztzeko espeleologia esperientziak, Aizkorri-Aratz parketxea eta pottokaleku", dio Ikerne Altubek, Oñatiko Turismo teknikariak.

## Ate irekien jardunaldiak hiru ikastetxeetan

O.E. | OÑATI

Herriko hiru ikastetxeek aste-buru honetan egingo dituzte ate irekien jardunaldiak, euren eraikinak erakusteko eta bisitan doazen gurasoei edozein zalantza argitzeko eta hezkuntza plana azaltzeko. Txan-txiku Ikastolan gaur, egubakoitza, zabalduko dituzte ateak; Urgain-Errekalden zapatuan eta Elkar Hezin domekan.

2015-2016 ikasturterako izen-ematea datorren astean zabalduko da; otsailaren 2tik 13ra egin beharko da.

## EH Bilduk bihar aurkeztuko du aurtengo alkategaia

Zapatuan, herritarrek hauteskondeetara begira dituzten ekarpenak biltzeko asmoz, II. Hauteskunde Tailerra egingo du EH Bilduk. Bertan, datorren legealdirako programaren ildo nagusiak finkatzeko ideia eta proposamenak bilduko dituzte. Tailerra amaitzean aurkeztuko dute alkategaia, 13:00etan, herriko plazan. Herritarrek biltzeaz gain, herriko hainbat eragilerekin ere hitz egingo dute, martxoa bitartean, legealdiko lehentasunak erabakitzeko.

## Argentinara bidaliko dituzten azken kontainerrak, aurtengoak

O.E. | OÑATI

Hermansaloña elkarteak erabaki du Argentinara arropaz eta bestelako materialez betetako kontainer gehiagorik ez bidaltzea. Hala, 2015ean bidaliko dituen biak izango dira azkenak. Arrazoia da administrazioaren aldetik gero eta zailtasun gehiago izaten dituztela. Dena den, Argentinan dituzten bestelako proiektuekin aurrera jarraituko dute.

Hermansaloña elkarteko kide Jose Antonio Urtegak adierazi du gero eta oztopo edo traba gehiago jartzen dietela kontainerrak bere lekura helarazteko: "Bilboko portutik ondo ateratzen dira, baina gero datoz

arazoak. Urtetik urtera arau berriak ateratzen dituzte. Asko atzeratzen du horrek eta kostua ere igo egiten da. Azkenaurreko kontainerrak, adibidez, 14 hilabete egin zituen geldi hango portuan". Hala ere, oraindik ere arropa jasotzen jarraituko dute eta Caritasen edo Acesmaren bitartez banatuko dituzte.

## Mugikorrek batzen

Bestalde, mugikor zaharrak batzeko kanpaina bat ere jarri dute martxan herrian. Herriko hainbat eraikinetan kaxak jarri dituzte bilketa egiteko. Batutako mugikorrek Afrikara bidaliko dituzte Alboan elkartearen bitartez.



Jose Antonio Urteaga Hermansaloña kidea. | O.E.

## Zarata neurgailua jarri dute haurren liburutegian

Semaforo itxura dauka eta erabiltzaileen lasaitasuna bermatzen du urtarilaren hasieratik

O.E. | OÑATI

Zarata neurtzen duen semaforo bat jarri dute haur liburutegian. Helburua da erabiltzaileen lasaitasuna bermatzea. "Askotan, zarata larregi sortzen da. Liburutegian isiltasuna behar da eta hori gogorarazteko ere balio du semaforo honek. Zarata maila onargarria egon behar du zerbitzu ona emateko, eta horixe lortu gura dugu. Askotan, zarata gehiegi sortzen da, eta semaforo honekin mezu horixe zabaldu gura dugu, liburutegian gauden mezua", dio Arantzazu Ibarrodok, liburutegiko arduradunak. Bide batez, liburutegiko txikien txokoa ez dela jolaslekua gogorarazi gura dute bertako langileek, ez dela garrasika eta antxintxika ibiltzeko lekua, liburuaren inguruan tartetxo lasaia eta atsegina izateko lekua baizik.

## Finlandiatik

Dezibelio onargarriak zenbat diren sartuta ditu semaforoak bere memorian, eta, muga hori pasatuz gero, argi gorria pizten da eta zarata handiegia dagoela jakinarazten die liburutegian dauden ume eta gurasoei.

Lortzen du zarata txikiagoa egotea, baina, hala ere, lortu behar duguna da semaforo beharrik gabe ere liburutegiaren erabilera ona egitea", dio Arantzazu Ibarrodok.

Arrasateko liburutegian bidez jakin zuten semaforoaren berri. "Bagenekien Finlandian, esate baterako, erabiltzen dituztela horrelako neurgailuak liburutegietan ez ezik baita ikastetxeetan jangeletan ere. Arrasateko liburutegian, baina, Bizkaiko esperientzia baten berri jakin zuten eta gustatu egin zitzaigun", dio liburutegiko arduradunak.



Zarata neurtzen duen semaforo. | AITZIBER ARANBURUZABALA

Juanito Barberan | Arrasateko Udaleko Hezkuntza teknikaria

# "Beharrezkoa da herriko ondarearen transmisioa"

Herria ezagutzen du izena Arrasateko Herri Curriculuma modu pedagogikoan lantzeko egindako lanak eta hori azaltzen egon da Barberan Oñatin

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko ondarea eta historia gazteei transmititzeko, Herri Curriculuma lantzen hasita daude Oñatin ikastetxeekin batera. Gipuzkoako beste herri batzuetako esperientzia ezagutzeko aukera izan zen joan den astean. Arrasatekoa azaltzen, esaterako, hango Hezkuntza zinegotzi Juanito Barberan egon zen.

**Nola hasi zineten Herri Curriculum lantzen Arrasaten eta noiztik erabiltzen duzue ikastetxeetan?**

2010a ezkerero dago martxan. Herriko kultura ondarea eta historia pedagogikoki lantzeko lanak aurretik hasi genituen, baina gero, Errenteriako esperientzia ezagutu genuen. Gustatu, eta eredu hori Arrasatera ekartzeko moldatu genuen aurretik egindako lana.

**Nondik eta nola hasi zineten lan hori egiten?**

Herriko ondarea eta historia gazteek ere ezagutzera da helburua. Hori guztia jasotzen duten liburu asko daude, baina sakabana-tuta, eta liburu horiek batu, irakurri eta informazioa atera genuen. Udalak, herrik ikastetxeek eta Hik Hasi aldizkariak hartu dute parte proiektuan. Hasierako lanean, adibidez, liburuetatik informazioa ateratzen, ni neu eta orduko Hezkuntza zinegotzia ibili ginen. Ikastetxeekin kontrastatu genuen egindako lana, euren iritzia eta ekarpenak kontuan hartu eta osatzen joan ginen. Azken emaitza Hik Hasiri erakutsi genion eta haren oniritziarekin jarri genuen martxan.

**Ze eduki ditu batutako lan horrek?** Guztira, sei bilduma atera ditugu eta kronologikoki sailkatuta



Juanito Barberan, Arrasaten, Kulturate aurrean. | GOIENA

**"Irakasleendako gida, unitate didaktikoa eta irteerak ditu"**

daude, nolabait. Bilduma bakoitzak hiru zati ditu: irakasleendako gida, unitate didaktikoa eta irteera. Azken horretan, adibidez, herrian zehar egiteko ibilbideak

proposatzen ditugu. Batzuk birtualak dira, baina beste asko oraindik ere egin daitezke.

**Zergatik hasi zineten hau egiten?**

Herriko kultura ondarea eta historia transmititu beharra zegoela ikusten genuen eta curriculumari ekarpena egin gura genion. Bestetik, irakasleek euskarri finkoa izateko ere balioko luke, eta baita herritartasun sentimendua areagotzeko ere.

**Zein da hurrengo pausoa?**

Lehen Hezkuntzan aplikatzen da egun, eta DBHra nola eraman

NIRE USTEZ

MIREN ZUBIA



Jaiotzak dakar heriotza

A mets aurrefabrikatuen jaiotza, familia bat, lan bat, ohore bat. Gerora begira bizi diren begien jaiotza, bihar gertatuko denaren arduraz. Dutenaz gozatzen ikasiko ez duten arimen jaiotza, beharraren beharraz itota bizi direnen jaiotza. Ondamuz, berekoikeriaz kutsatuta dauden bihotzen jaiotza, neurea lortu dut, zer axola, bada, zeureak? Ezkerreko hankaz iratzarri direnen jaiotza eskuinekoa ondoan dutela ahantzirik, eta hori muturrez bizitzeko zurigarri moduan

erabiltzen dutenak. Aldapa gora ere balazta botata "aurrera" doazen jaiotza, bizkortasunaren plazera zer den ezagutu gabe, inolako uhalik gabe, hurrengo kurbaren norabidea ezagutu barik.

Jaiotza bat, poliki, astiro, taxuz baina doitasunez, bizitza akabatzen duten jaiotzek dakarte zeurearen heriotza.

Batzuetan, aurrera egiteko, nahitaezkoa da gelditzea, sarri, geure bidea aurkitzeko ohikoa den bidetik irten beharra dago.

Zantzu bat uzteko jaiotza, eta bizitzea da lehen pausoa.

Ez utzi jaiotzak zu zanpatzen eta bizi zeure duzun zorioneko ernetzeaz.

**"Bizi zeure duzun zorioneko ernetzeaz"**

**Emakumeen identitateen eta errealitateen gaineko ikastaroa egingo dute otsailetik aurrera**

Emakumeen identitateen eta errealitateen gaineko gogoeta egingo dute Oñatiko Emakumeon Jabekuntza Eskolak antolatutako ikastaroan. Mitoak hautsi eta beste errealitate batzuetara gerturatzeko saioak landuko dituzte. Otsailaren 10ean hasi eta ekainera arte, hainbat esparru landuko dituzte, hala nola amatasuna, lesbianak, musulmanak, patriarkatua, etorkinak, ekonomia eta zaintza lanak. Hilean bi egunetan izango dira eskolak, Eteon, 18:15etik 20:15era. Izena Andraitzek San Juan kalean duen postontzia erabiltza eman daiteke, edo mezua bidalita helbide honetara: [a.jabekuntzaeskola@gmail.com](mailto:a.jabekuntzaeskola@gmail.com).

**Interneten oinarritzko ezagutza eta sare sozialen erabilera KZguneko otsaileko eskaintzan**

Oñatiko KZguneak prest du otsailean erakutsiko dituen ikastaroen eskaintza. Hala, antolatu dituen artean daude: Interneten oinarritzko ezagutza, ofimatika eta software libre, irudiekin eta audioarekin lan egiteko programak, sare sozialen erabilera eta antolaketa pertsonala eta enpresakoa errazteko erabilgarriak diren Google tresnak ezagutzera. Ikastaro horiek guztiak otsailean emango dituzte hainbat egun eta ordutegitan. Iraupena ere bakoitzak berea du. Informazio gehiagorako edo izena emateko, KZgunera joan edo 943-02 36 72 telefono zenbakira deitu behar da, gogoz zein arratsaldean.

**Saskibaloia eskolakoak, Ilunbeko kantxan**

Donostian egon ziren joan den domekan Asier de la Igleziak eta Iñigo Zabaletak entrenatzen dituzten saskibaloia eskolako umeak, Ilunben. Kantxa probatzeko aukera ere izan zuten, gainera, partiduen atsedendaldia eta hutsarteak saskibaloian jokatzeko aprobetxatu zituzten-eta.

KOMUNITATEA GOIENA | ALOÑA MENDI  
SASKIBALOI SAILA | OÑATI





Mendi sailak eginiko irteera batean ateratako talde argazkia. | JUAN MARI IBARRONDO

# Osasuntsu dago Aloña Mendiko mendi saila

- ▶ Herrian bazkide gehien dituen kirol elkarte da; zehazki, 850 kide inguruk osatzen dute taldea
- ▶ Hilero antolatzen dituzte irteerak; hurrengoa izango da otsailaren 7an egingo duten eski zeharkaldia

## IRATI GOITIA | OÑATI

Azken asteotan lanpetuta izan dira Aloña Mendiko mendi saileko batzordeko kideak. Izan ere, federatuen txartelak jaso dituzte eta horiek banatzen jardun dute. "Gure sailean izaten dugun zeregin garrantzitsuenetako bat hau izaten da: federatuen inskripzioak egitea", adierazi du Juan Mari Ibarrondok, mendi saileko batzordeko kideak.

## 850 bazkide

1967an ekin zion bere jardunari mendi sailak. Lehenagoko Txanxiku Txoko elkartearen jarraipena hartu zuen. Egun, 850 bazkide inguru ditu; horrela, Aloña Mendi Kirol Elkartearen bazkide gehien dituen arloa da. Eta Gipuzkoan bazkide gehien dituen mendi sailetako bat, Ibarrondok zehaztu duenez.

Azaro-abendua aldera egiten dute izen-ematea; horrela, bazkideak urte hasieratik egon daitezzen federatuta. "Hainbat onura izaten dira: Federazioak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko aukera izaten da, edo deskontuak aterpetxeetan. Horretaz gain, eta garrantzitsuenak, estaldura medikua ematen du", azaldu du Ibarrondok. Bada, mendi sailekoek garrantzia eman nahi diote jendea federatuta egoteari. Eta, hala, aurtengo antolatu dituzten irteeretan parte hartzeko baldintza moduan jarri dute federatuta ego-

2015EKO IRTEERAK	
<b>Otsailak 7-8:</b> Eski zeharkaldia: Panticosa-Formigal ingurua.	
<b>Otsailak 15:</b> Izkiko parke naturala.	
<b>Martxoak 14 - 15:</b> Eski zeharkaldia: erabakitzeke, elurraren arabera.	
<b>Martxoak 15:</b> Olio harana.	
<b>Apirilak 19:</b> Bera-Larrun-Sara.	
<b>Maiatzak 17:</b> Aralar.	
<b>Ekainak 21:</b> Castro Valnera.	
<b>Uztailak 18-19:</b> Otsogorrigaño eta Auñamendi.	
<b>Irailak 12-13:</b> Posets.	
<b>Urriak 18:</b> Uraren ibilbidea.	
<b>Azaroak 15:</b> Antigua-Izaspe Samiño-Azkoitia.	
<b>Abenduak 20:</b> GRT23 Ondarroa-Lekeitio.	

tea-orain arte ez zen beharrezkoa. Horretaz gain, Ibarrondok nabarmendu nahi izan du euren txangoetan garrantzi berezia izaten duela segurtasunak: "Antolatzen ditugun irteeretan gure lehenengo helburua izaten da segurtasuna. Hala, ibilbide bakoitzak bere arduraduna izaten du, eta hura arduratzen da bidea egoki dagoen ziurtatzeaz eta gainerakoei azalpenak emateaz. Bestalde, ibilbideak beti izan behar du ordezko plan bat: *B plana*. Eta argi izan behar dugu ez dela derrigorrezkoa ton-torrera heltzea".

## "Jendea ezagutzeko aukera"

Hilero antolatzen dute irteera bat, gutxienez. "Saiatzen gara toki ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen. Normalean, autobusean joan ohi gara, eta horrek ematen du aukera toki batean hasi eta beste batean bukatzeko. Autoz, geure aldetik, joaten garenean ez da horretarako aukerarik izaten", dio Ibarrondok. Urteko lehena urtarrilaren 18an egin zuten. Olabartako bira, hain zuzen ere. Ondoren, bazkaria egin zuten. "Hogei edo hogeita hamar lagun inguru elkartu ohi gara. Adin eta arlo askotarikoak. Hala, jende asko ezagutzeko aukera izaten da. Esango nuke erlazioak egiteko oso modu egokia dela".

Altuera handiagoko bi irteera ere egiten dituzte urtean zehar: "Uztailaren egiten dugu bat, 2.000 eta 2.000tik gorako bat. Aurten, Otsogorrigaño eta Auñamendira goaz. Eta irailean irteera potenteagoa egiten dugu, 3.000koetara joaten gara". Horiak bi eguneko irteerak izaten dira, baita eski zeharkaldiak ere. "Horiek zailagoak dira antolatzeko, eguraldiarekin menpekotasuna izaten da eta", dio. Aurten lehenengoa otsaileko lehen asteburuan egingo dute. Bataneseko bira egingo dute, baita Portaletetik hasita Pico Moneko lepotik Astunerako ibilbidea ere. Izena eman nahi dutenek otsailaren 3a baino lehen egin beharko dute Aloña Mendi tabernan -federatuta egotea eta Fran-



Glaziarrean gora mendi saileko kideak. | JUAN MARI IBARRONDO



Lau kide, eginiko irteera batean. | JUAN MARI IBARRONDO



Eskalada eskolako umeak, eskalaten. | IRATI GOITIA

## Paretetan gora ere indartsu dabilta

Azken urteotan asko indartu da mendi sailaren baitan dagoen eskalada arloa. Horrela, eskola ere sortu dute. Egun, 43 neska-mutikok dihardute, lau taldetan banatuta. Astearen ordu eta erdiko saioa egiten dute. Jon Agirrek eta Ruper Aialak jarduten dute irakasle. Bestalde, Araotzeko ekipamendua hobetu nahian dabilen beste talde bat ere badabil lanean eta horra ere bideratu dute dirua sailetik.

zunda. Materialik ez duenak mendi sailekoekin harremanetan jarri behar du. "Lehen eski zeharkaldiaren maila ez da oso zaila izaten, hasten den edonork jarraitzeko modukoa izaten da. Bigarrena izaten da potenteagoa. Aurtengoa erabakitzeke dugu".

## Ekintza eta ekitaldi ugari

Irteerez gain, beste hainbat ekintza ere antolatzen dituzte. Urte-

dira guztia antolatzeaz. Azken urteotan, gainera, hamabostaldia indarra hartzen joan da. Pentsa, lehen aste batera mugatzen zen. Hitzaldi erakargarriak ekartzen saiatzen dira. Horrela, azken urteotan izen entzutetsuak ekarri dituzte: Horia Colibasana, Denis Urubko edo Alex Huber. Argazki lehiaketari dagokionez ere, 2014koa hamaikagarren edizioa izan da".

# Bergarak antzerki zikloa izango du lehen aldiz

Profesionalen gain, Jardunen antzerki eskolak 'Autobusa' lana antzeztuko du

MAIALEN TORRES | BERGARA

Herrian, lehenengoz, antzerki zikloa egingo dute, otsailaren 20an hasita. Heldu zein haurrentzako emanaldiak izango dira bertan, eta Jardun euskara elkarteko haur antzerki eskolaren emanaldia ere bai.

Hilero elkartzen den Kultura batzordetik jaio zen lehen antzerki zikloa antolatzeko ideia. Izan ere, hilero gai bat izaten dute hizpide, eta iaz egin zuten azken bileran antzerki jardun zuten. Horretarako, antzerkiaren munduan diharduten edo antzerkia kontsumitzeko ohitura duten herritarrek bildu zituzten. "Orain arte, antzerki eskaintza urte osoko programazioan galtzen zen, eta ziklo honekin hori guztia batu nahi izan dugu", dio Kultura zinegotzi Leire Iruinek.



Zazpi aldiz elur antzerkiaren une bat. | IMANOL SORIANO

## Zortzi antzeztan

Lehen edizioan, guztira, zortzi antzeztan izango dira, otsailaren 20tik martxoaren 1era bitartean. Ttanttaka antzerki taldearen eskutik, *Zazpi aldiz elur* antzeztana-

rekin ekingo diote zikloari. Udal Pilotalekuan egingo dute, 22:00etan. Gainontzeko saioak Zabalotegin egingo dituzte, Barry Barrez bakarlariarena izan ezik, hura udaletxeko osoko bilkuren

aretoan izango da-eta.

Umeentzako eskaintza ere egongo da zikloan zehar, eta antzeztan guztiak euskaraz izango dira.

Antzeztele profesionalen gain, lehen mostra honetan Jardun euskara elkarteko haur antzerki eskolak ere bere emanaldia egingo du. Horretan, herriko 13 neska-mutikok Autobusa antzeztana eramango dute Zabalotegiko ohol-tza gainera.

## Sarreren prezioa

Helduen antzeztanetarako sarrerek 8 euro balio dute eta umeentzakoek, berriz, 4 euro. Sarrearak otsailaren 10ean jarriko dituzte salgai, eta 10:00etan Internet bidez eta 17:30ean kultur etxean, hain zuzen ere.

Gainera, sarri joateko asmoa dutenentzat, helduen antzeztanetarako bonoa ere jarriko dute salgai otsailaren 10ean, lau emanaldi hiruren prezioan ikusteko.

Datorren astean eskuorriak banatuko dituzte zenbait taberna eta komertzioetan, eta kartelak jarriko dituzte kaleetan.

## Herri batukada eginda indartu nahi dute Aratusteetako martitzena

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Aratusteetako martitzena indartu guran, Udalak, herriko hainbat eragilerekin batera, batukada antolatu du. Dena behar bezala irten dadin, danborrak egiteko tailerrak eta entseguak ere antolatu dituzte. Aurkezpenaz azaldu zuten, helburua da azken urteotan beherantz egin duen eguna indartzea.

## Guztia kontrolpean

Batukadan helduek zein umeek hartu ahalko dute parte, eta moztortuta joateko dei egin zuten antolatzaileek.

Danborrak egiteko tailerrak egingo dituzte gaur eta domekan.

Oxirondoko azokan izango dira tailerrok, 17:30ean hasita.

Entseguak ere egongo dira, Musika Eskolako perkusio irakasle Aitor Aranburuk gidatuta. Otsailaren 3an eta 10ean 19:00etatik 20:00etara izango dira entseguak; eta otsailaren 5ean eta 12an, 18:00etatik 19:00etara. Entseguak udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango dira. Otsailaren 16ean, aldiz, 18:00etan, entsegu orokorra egingo dute Errege Seminarioko karpan.

Aratusteetako giroa handitzeko, dendariak girlandak jarriko dituzte, eta tabernariak, batukada bukatzean, zerbait beroa eskainiko dute.

## EH Bilduren alkategaia boto bidez bihar aukeratuko dute

I.G. | BERGARA

Maiatzeko hauteskundeetako herri programa lantzeko egindako lehen bileraren ostean, bihar beste bat egingo dute. Horretan, parte hartzaileek EH Bilduren zerrendaburua aukeratu dute. Hautagaia nor den erabakiko den batzarra amaitu eta gero, 13:00etan, alkategai berriarekin talde argazkia aterako dute.

## Batzar irekia

Hauteskundeetako programa definitzen hasteko herritarrekin egindako lehen bilera haren ostean, bihar goizekoak helburu bikoitza izango du. Orain

arte bezala, hori ere batzar irekia izango da, eta, Bergarako EH Bilduk herri programa zehaztu ostean, Udalerako zerrendaburua hautatzeko asmoz bozketa egingo du.

Biharko saioan, lantaldeka bilduko dira bertaraten direnak, eta talde hausnarketetatik batutako ondorio eta proposamenekin zehaztuko dituzte EH Bilduk herriko aurkeztuko duen programa.

Deialdiak bi dira, zapatuan: 10:00etan Aranzadi Ikastolan batzar irekia egingo dute lehena, eta ostean, 13:00etan, argazkia aterako dute aukeratu berria izango den zerrendaburuarain.

## Aurten ez da zikloturista probarik egongo

I.G. | BERGARA

Aurten ez dute zikloturista probarik antolatuko, eta, horren ordez, herri mailan irteera bat antolatuko du Lokatzako zikloturista sailak, Bergaran bizikletan ibiltzen diren zikloturisten arteko elkartasuna bultzatzeko asmoarekin.

## Guztira, 2.467 kilometro

Aurkeztu dute martxoetik urrira bitarteko egutegia. Irteera guztietara joaten direnek 2.467 kilometro egingo dituzte bizikleta gainean. Martxoaren 1ean Dorletako Amari egingo dioten lore eskaintzarekin hasiko da denboraldia.

Martxoaren 10ean ospatuko dute klubaren eguna irteera sozial batekin, eta martxoaren 29ko Gorlako Igoera dela-eta ez dute irteerarik egingo.

## Bihar egingo du Mariaren Lagundiak ate irekien jardunaldia

Matrikulazio garaia iristear dagoenez, Mariaren Lagundiak ateak zabalduko ditu, ikastola erakusteko. Domekarako, 11:00etatik 13:00etara, bertako eskaintza ezagutzeko tailerrak prestatu dituzte.

## DBHko gazteak dituzten gurasoendako informazio bilera

DBHrako matrikula garaia dela eta, Ipintza Institutuan ate irekiak eta bilera informatiboa egingo dituzte. Eguaztenean, 18:30ean, gurasoek institutuaren eskaintza akademikoa ezagutzeko dute.

**SUKALDEEN LIKIDAZIOA, ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK**  
Aprobetxatu aukera!

Etor zaitez dugun eskaintza ikustera.

# ARREGI AROZTEGIA





**Mariaren Lagundia Ikastola**

# MATRIKULAZIOA

Otsailaren 2tik 13ra.

## BILERA

2 urteko umeen  
gurasoentzat  
Otsailaren 2an  
arratsaldeko 18:00etan.

## IKASTOLA IKUSTERA

etorri zaitezkete  
Otsailaren 2tik 13ra bitartean  
arratsaldeko  
14:30etik 17:30era bitartean  
aurrez deituta.

## ATE IREKI JARDUNALDIA

Otsailaren 1ean  
11:00etatik 13:00etara.  
Psikomotrizitate tailerra.  
Ipuin kontaketa tailerra.  
Haur masaje tailerra.

Txokoak  
proiektuak  
EKI

Hitzen  
Altxorra

Ortua

Ikaskuntza  
kooperatiboa

Hurbiltasuna

Bertsogintza

Atzerriko  
trukeak

Elkartasuna  
Barnetasuna

margotu

zuzen

bidea:

# Mizpirualde: 107 ohe izatetik, 99 izatera

Legedira egokitzeko egindako moldaketa dela dio Javi Bengoa zinegotziak

IMANOL GALLEGRO | BERGARA

Udalbatzak astelehenean egin zuen urteko lehen osoko bilkura, eta, gai zerrendarik ez zegoen arren, Mizpirualden egin beharreko plazen gutxitzeak eztabaida luzea sortu zuen.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Javi Bengoak azaldu zuen egokitzapen hori 2008ko gizarte legedira moldatzeko hartu beharreko neurria izan dela: "Legearen arabera, logelen %25 bana-kakoak izan behar dute".

## Jeltzaleen ustez, "murrizketa"

"Gura duzuna esan, baina murrizketa bat baino ez da", esan zuen Ander Alberdi zinegotzi jeltzaleak. Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak hori gezurtatu, eta egoitza hurrengo legedi aldaketaren aurretik homologatzeko egin dutela zehaztu zuen: "Gipuzkoan homologatu gabe dagoen egoitza bakarra da Mizpirualde".

Alberdik azaldu zuenez, ustez aurrerago etorriko diren aldatek ere ez diete herriko erabilitzaileei mesederik ekarriko: "Aldundiak egoitzaren eskuduntza hartzen duenean, patrono



Mizpirualde egoitzaren fatxada nagusia. | GOIENA

diren herrietako egoiliarrek ez dute lehentasunik izango". Bengoak argitu zuen horrelako erabakiak aurrerago hartuko direla, egokitzapen horretarako ez dela akordiorik sinatu.

## Ez zen gai bakarria izan

Puntu horren ondoren, jeltzaleek pasa den astean agertu ziren pintadez eta aurrekontuez ere galdetu zuten. Alkateak jakina-

razi zuen pintadak eraikin publiko eta monumentaletatik kenduko dituztela, eta horretarako aurrekontua eskatua dutela. Jeltzaleek azaldu zuten eurak ere pintadak egitearen kontra daudela.

Aurrekontuen aurkezpenaz, Jaione Isazelaiak argitu zuen zirriborra lantzen dihardutela, eta euren asmoa dela otsail amaierarako prest izatea.

## Ate joka dituzte San Blas jaiak Buruñeon

I.G. | BERGARA

Goizeko zortzietako etxafuegoekin, martitzenean, emango diete hasiera San Blas jaiak. 11:00etan meza izango dute, eta ondoren, elkartean salda eta txorizoa egongo da.

Festak Santa Ageda egun jarraituko du. 19:00etan basilizako ermandadeak bilkura egingo du. Egubakoitzean, 20:30ean afaria, eta jarraian, erromeria izango dute. Zapatuan, aldiz, 16:00etan mus txapelketa izango dute. Izenematea 15:30etan hasiko da, eta bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu.

## Domeka, egun handia

San Blas Txiki eguneko goiza 11:00etako etxafuego jaurtiketa eta mezarekin hasiko da. Ostean, elkartean, nahi dutenek salda dastatuko dute. 11:30ean Moises Aspiazu taldeak emanaldia egingo du, eta segidan, Saioa Galarragak eta Julen Murgiondok euren saioa egingo dute. Horrez gain, umeek kukainak izango dituzte. Buruñeon jaiak trikiti elkarteoen doinuekin agurtuko dituzte.

## NIRE USTEZ

JAIONE CARPINTERO



Adierazpen askata... zer?

**U**nibertsitateko garaian, informazioaren zuzenbidea izeneko ikasgaia izan genuen. Bertan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aldarrikatu zen adierazpen askatasuna azaldu ziguten. Ezaguna, ezta? 1948. urtean ezarri zen. Orduz geroztik, herrialde askotako konstituzioak jasotzen duen oinarriko eskubidea da. Azken egunotan holo-holo dabilen terminoa dudarik gabe.

Mugatua izan zen eskubide hori; zentsura azaldu zen. Egun, teoriarik, gurean ez dago horrelakorik. Hala ere, antzeko zerbait gertatzen dela esango nuke. Frantzia gertatutakoak zuzenean eragin digu kazetari guztioi, baita herritar guztioi ere. Beldurra zabaldu da eta. Bizi garen XXI. mende honetan, Europako herrialde batean, hedabide bat armen bidez bortizki izan da isildua...

Tamalez, ez dugu ondoko herrialdera joan behar, gurean ere horrelako gauzak gertatzen dira. Hedabide batean, ekitaldi baten berri emateagatik kartzela zigorra ezartzea adibidez. Hori al da adierazpen askatasuna? Ez genuen ba oinarriko eskubide horietako bat bezala onartu?

Non daude kazetari edo herritarren eskubideak? Zer argitara daiteke gaur egun? Non dago muga?... Mila galdera daude, baina erantzunik ez. Edo... agian bai, baina prest al gaude inposatzen diguten hori egiteko? Ez al dira, bada, gure egia haiek bezain garrantzitsuak?

## OHARRAK

### SAN JOXEPEKOEN INAUTERI BAZKARIA

Otsailaren 17an egingo dute Aitonak jatetxean. Izena otsailaren 2tik 12ra eman daiteke.

### UME TXIKIAK DITUZTEN GURASOENDAKO HITZALDIA

Otsailaren 4an, 17:30ean, Bergarako haurreskolan Nerea Mendizabalek hitzaldia egingo du.


## Herriko talde jeltzalearen ustez, Bilduk ez dauka industria eta ekonomia politikarik

I.G. | BERGARA

EAJko kideen ustez, beharrezkoa da hezkuntzaren eta lankidetzaren publiko-pribatuaren aldeko apustua egitea egoera ekonomikoari buelta emateko: "Zortzi urte daromatza gure eredu ekonomikorik gabe". Jeltzaleek argitu dute lanean aritu direla Miguel Altuna berria

eraikitzekeko prozedura agintaldi honetan bertan has dadin.

Euren iritziz, industria krisi "sakonari" aurre egiteko ezinbestekoa da jendea trebatzeko medioekin hornitzea. Horregatik, administrazioetatik politika ekonomikoak martxan jaratea premiako gaia dela diote.



AMAIA TXINTXURRETA

## Eta euskal musika?

Oihan Vega irrati esatari eta DJa Ipintza Institutuan izan zen astelehenean. Izan ere, kezka piztu zitzaizela irratikoei, entzuleek geroz eta euskarazko abesti gutxiago eskatzen zitzutelako, eta horri buruz hausnartzeko gonbita egin zien Vegak gazteei.

KOMUNITATEA GOIENA  
IPINTZA INSTITUTUA | BERGARA

## Institutuko ikasle ohiek bazkaria eta ikasgeletara bisita egingo dute

Institutuan 1979an COU bukatu zuten ikasleak otsailaren 7an elkartuko dira San Tomas Aquinokoaren eguna ospatzeko. Egurdian elkartuko dira, institutuan, eta zuzendariak instalazioak erakutsiko dizkie. Ostean, Tartufon bazkaria egingo dute. Astelehenera arte eman daiteke izena, [jleturia@coaatg.org](mailto:jleturia@coaatg.org) postan.

## Arrakala dokumentala eta mahai ingurua gaur gaztetxean

18:30ean hasiko da zine emanaldia, kartzela zaharrean. Dokumentalaren ostean, mokadutxo baten laguntzarekin, mahaiaren bueltan tertulia egingo dute. Bertaratzeko direnek filmean oinarritutako gaien inguruan berba egin eta iritzi nahiz hausnarketak elkarbanatuko dituzte.

## Herriko pilotariek bihar jokatuko dituzte partiduak

11:30ean Euskal Ligako kade-teen partiduarekin hasiko da goiza Udal Pilotalekuan. Gaztetxoek euren partidua bukatu bezain laster, Udaberri Txapelketako nagusien mailako bi partidu jokatu dira. Bigarrean, gainera, herriko pilotariak Eskoriatzako aurkaria izango du.

## Postu batzuk aurreratzeke aukera du eskubaloit taldeak

Pasa den astean garaipena lortu eta gero, Bergara KEk gaur, 16:30ean, puntu kopuru bera duen Universidad de Deusto Loyola taldea izango du aurkari. Partidua Bilbon jokatu dute, eta mahone-roek, puntuekin bueltatzen badira, sailkapenean salto ederra emango dute.

## Mahoneroek Zarautz Sharks taldea hartuko dute Labegarrietan

Saskibalo lehia gogorra izango da bihar, 19:30ean, bergarrek jokatuko dutena. Azken partidua irabazi ostean, konfiantzarekin kantzaratuko dira etxekoak denboraldiko hamaikagarren garaipenaren bila. Hala, bada, sailkapeneko goiko postuetan sartzeko aukera izango dute.

# Inauguratu dute San Martin Agirre herri eskolako eraikin berria

HHko 200 ikasle baino gehiagorentzako gelak hartuko ditu egoitza berriak

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

San Martin Agirre herri eskolak badu eraikin berria, Haur Hezkuntzakoa, hain zuzen. Inaugurazio ofiziala pasa den zapatuan egin zen arren, 2 urteko haurrak ia azken ikasturteak daude eraikin berrian; espazio guztia erabilzen denean, HHko 200 ikaslelik gora hartuko ditu eraikinak.

Begoña Otsoa-Aizpurua San Martin Agirre herri eskolako zuzendariak izan zuen inaugurazioa gidatzeko ardura. Eskerrak eman zizkien bertaratu ziren ikasle, guraso eta elkarteetako

arduradunei; eta baita inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten gonbidatuei ere.

## Irekiera ekitaldia

Dantzari gazteek aureskua dantzatu ostean, agintarien txanda izan zen. Gipuzkoako eta Euskal Herriko hezkuntzako ordezkari ugari gerturatu ziren inaugurazioa; tartean, Udal Gobernu zinegotzi Maren Belastegi eta Hezkuntza sailburu Cristina Uriarte.

Ordezkariek San Martin eskolan egindako lana goraiatu zuten

eta, batez ere, proiektuan sinistu duten gurasoei eskerrak eman zizkieten. Egoitza berria inauguratzeko, horma apurtzea egin zuten eskolako lau umeek.

## Hiru guneko eraikina

Egoitza berriak 2, 3, 4 eta 5 urteko umeak hartuko ditu. Lehenengo gunean 2 urteko umeak daude; bigarren gunean, 3, 4 eta 5 urtekoak; eta hirugarren gunean gimnasioa dago. Horrez gain, eraikin berriak liburutegia, tailer gela, musika gela eta psikomotrizitate gela ditu.



Irekiera irudikatzen duen eskolako umeek paperezko horma apurtu zuten. | 'IREKIA.EUS'



Jaurlaritzako ordezkariak gela berri batean. | 'IREKIA.EUS'

# Zulo handi batek Elorregi auzoko hilerrira doan bidea airean utzi du

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Abendu bukaeran izandako lur-jausi batek Elorregiko hilerrira doan bidea airean utzi zuen. "Mendiko urak hortik pasatzen dira, eta horrek eragin zuen luizia", dio Joseba Aizpurua teknikariak.

Une honetan, segurtasuna bermatzeko, modu probisionalean

Udaltzainek hesitua dute airean dagoen bide zatia, baina teknikariak hasi dira bertan egin beharreko lanak aztertzen.

Urak bideratu, malda eta bidea egonkortu... Elorregin egin beharreko lanak handiak izango dira. "Prozesuak luze joko du", azaldu du Hirigintza teknikariak.



Hilerriko sarrera aurrean dagoen zuloa. | IMANOL GALLEGU

# Herri autobusak San Juan auzoan beste bi geltoki izango ditu

Geltoki berriak otsailaren 2tik aurrera egongo dira martxan. Noranzko bakoitzean geltoki bana egongo da, bata TTT enpresa ondoan eta bestea Cotones Agirrezabal lan-tegiaren alboan. Bi geltoki horietatik 7:50, 12:20, 14:00 eta 17:20an pasako da herri barruko autobusa.

# Teoriatik praktikara

Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe desberdinetako hamabost irakaslek bisitatu zuten San Martin Agirre Herri Eskola, Txokoen zirkulazioan oinarritutako metodologia gertutik ezagutzeko asmoz.



San Martin Agirre herri eskola

Nagusien munduan ate joka dauden ikasleei onena eskaintzen saiatzea da San Martin Agirre Herri Eskolaren proiektu oro gidatzen duen erronka. Jakin badakigu kalitatezko hezkuntzarekiko konpromisoa duenak ezin diola inoiz ikasteari utzi. Hori horrela, etengabe gaude gure irakaskuntza praktika aztertzen eta egiten dugun lanaren hobekuntza sustatzen.

**Kalitatea Hezkuntzan** kontzeptuarekin buru-belarri konprometitu dagoen euskal ikastetxeen komunitatean sartu ginen duela hiru ikasturte. Hari dagozkion ikuskaritzak gairatu eta ziurtagiri ofiziala eskuratu ostean, **Teoriatik praktikara** izeneko proiektua jarri genuen martxan gure egunerokoan. Hala, praktika onak hauteman eta aztertzeko ardura hartu genuen, beharrezkoa izanez gero, sakonago analizatu eta ikastetxe jakin baten ezaugarrietara moldatzeko aukera ere barne hartuz.

Pasa den ikasturtean jaso zuen eskolak proiektu horretako lehen eskaera: Haur Hezkuntzako (2, 3 eta 5 urte) geletan lantzen den Txokoen Zirkulazioan oinarritutako metodologia aurkeztu eta azaldu genien Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikastetxe desberdinetako hamar irakasleri. Bisitak izugarriko arrakasta izan zuen, irakasle guztiek adierazi baitzuten aipatutako metodologia ikaskuntza praktika bikaina dela.



Hain izan zen aldekoa eta positiboa jardunaldiaren ebaluazioa, ezen aurtengo Teoriatik praktikara proiektuan ere Haur Hezkuntzako gelak irekitzeko eskaera egin zuten. Hala, urtarrilaren 20an Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe desberdinetako hamabost irakaslek bisitatu zuten San Martin Agirre Herri Eskola. Geletako funtzionamendua ahalik eta gutxien oztopatze aldera, bi taldetan banatu genituen bisitariak: 4 urtekoen hiru gelak bisitatu zituen lehenengoak; bigarrenak, aldiz, 5 urtekoen hiru gelak. Haur Hezkuntzako adin tarte bakoitzean dauden bederatz

txokotako funtzionamendua aztertzeko aukera izan zuten hamabost irakasleek.

Txokoen zirkulazioak balorazio positiboa jaso du bigarren urte; izan ere, hezkuntzaren arloan lan egiten duten profesionalen ustetan interes, gustu, behar edota egoera emozional edo afektibotik abiatuz, gaitasun desberdin eta anitzak garatzeko aukera eskaintzen dio metodologia horrek haurrari. Txoko batetik bestera mugitzeko lasaitasuna, geletan sartu eta ateratzeko autonomia, giro erlaxatua, ikasleei proposatzen zaizkien estimulu aniztasuna edota irakasleriak jarraitzen indibiduala

egiteko duen aukera nabarmendu zituzten eskola bisitatu zuten irakasleek.

Eskolan ikusitakoa beraien ikastetxeetako behar eta ezaugarrietara moldatzeko azaldutako interesa dela eta, kontaktuan jarraitu eta gure esku egon daitekeena egiteko prest azaldu ginen. Kalitatezko hezkuntza duin eta euskalduna eskaintze bidean, San Martin Agirre Herri Eskolaren ahaleginak ez dute etenik; gure praktikaren onena elkarbanatzeko ateak zabalik dauzkagu; beste esperientzia batzuetatik ikasi eta hobetzen jarraitzeko konpromisoa inoiz baino biziago dago.

# Gazteendako skate parkea aurten egingo da

- ▶ Udaletxean irisgarritasun lanak egingo dira; igogailua jarriko da eta sarrera egokitu
- ▶ Oinezkoendako planak aldaketak eragingo ditu zirkulazioan; Herriko Plazan ezingo da aparkatu

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurreko astean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zen 2015erako aurrekontua: 2.626.968 euro. Diru sarrera igo egin da eta horrek inbertsio gehiago egiteko ahalmena emango dio Udal Gobernuari. Inbertsio garrantzitsuenetako bat da Udalak laster abian jarriko duen oinezkoendako plana. Aurten, gainera, udaletxe irisgarritasun lanei helteko aukera dago eta igogailua egingo da eraikinaren barrualdean. Agintaldiaren hasieran esan bezala, aurten, gazteendako skate parkea egingo da.

## Aisialdirako skate parkea

Aspaldidanik eskatzen zuten herriko gazteek aisialdirako skate parkea edukitzea. Udal Gobernuaren asmoen artean egon den arren, orain arte ezinezkoa izan da, toki egokia aurkitu ezinik ibili delako. Orain, baina, Udalak

2015ERAKO AURREKONTUA	
Ongizatea-Gizarte Sustapena	500.123 euro
Hirigintza-Komunitate Ongiz.	481.238 euro
Nekazaritza-Ingurumena	88.441 euro
Kultura	116.671 euro
Euskara	55.300 euro
Gazteria	34.127 euro
Hezkuntza	65.186 euro
Kirola	74.878 euro

futbol zelaira bidean daukan lokala hustu du eta han egingo du.

## Igogailua udaletxean

Irisgarritasun planarekin jarraitzeko, Udalak diru partida bat bideratu du aurtengo aurrekontuan lan horiei heltzeko. Hala,

asmoa da udaletxe barruan igogailua egitea. Baita eraikinaren sarrera egokitzea ere. "Aurrekontua onartuta, administrazioari dagokion prozesua jarraituz lehenbailehen egin gura dugu. Aurreproiektuarekin hasiko gara", dio Ima Beristain alkateak.



Buztinzurira eta Ondarrera joateko bidegurutzeak zirkulazio aldaketa izango du. | MAIDER ARREGI

## Eskola eta ume parke ingurua oinezkoendako egokituko da

Oinezkoen planak herri barruko zirkulazioan aldaketak eragingo ditu. Buztinzuriko bidea, eskola parean dagoena, eta pilotalekurako bidea itxi egingo dituzte ibilgailuendako. Baina Olarandik elizarako bideak bi noranzko izango ditu eta eliza atzealdeko aparkalekua erabili ahalko da. Asteburuetan, zapatu eguerditik astelehen goizera, Kalebarrenetik gora ezingo da joan; ezta Lizarragatik etorri eta Mañarietatik Kalebarrengozubira pasatu ere. Etxe Zuri parean dagoen irteeraren norabidea, Eguzki auzotik pasatzen dena, aldatu egingo da: sartzeko soilik izango da. Plazatik gora egin eta ezkerredera hartzeko aukera egongo da Ondarrera joateko. Hau dena, baina, proba moduan. Aldaketak egiteko aukera zabalik izango dute herritarrek.

IMA BERISTAIN | ANTZUOLAKO ALKATEA

## "Herritarren beharrei ahalik eta ondoen erantzuten dien aurrekontua da"

Aurrekontuak onartu ostean, Ima Beristainek balorazioa egin du.

### Diru sarrera igo egin da.

Zuzeneko eta zeharkako zergak eguneratu egin ditugu aurreikuspena eginda. Foru funtsak 45.000 euro gehiagoko ekarpena egingo du; inbertsio batzuen diru laguntzak eskatuta daude eta hortik ere sarrera kopurua etorriko da. Bestalde, herriak dauzkan lursailen entresaka eta garbiketa lanek 33.000 euroko diru sarrera izango dute.

### Zorra amortizatuz joan zarete.

Zorra txikitu egin da. 2013an, 300.000 euroko zorra ordaindu zen. 2014an, 500.000 eurokoa. Oraindik 1.500.000 eurokoa da zorra. Jaitsi arte hala jarraituko dugu.

### Inbertsioen aldeko apustua.

Guretzako, inbertsio garrantzitsuak ez dira garestiak direlako, urteetan zehar ikusi ditugun beharrak bideratu direlako baizik. Parte-hartze prozesuan irisgarritasun lanak eta oinezkoendako plana azalerratu ziren. Aurten, posible izango da inbertsio batzuk egitea, diru sarrera igo egin delako.

### Oinezkoen plana, esaterako?

Bai. Oinezkoen plana nahiko definituta dago, baina oraindik ere urrats batzuk adostea falta da. Herritarren aurrean azaldu genuen plana eta han jasotako zalantzei beste buelta bat eman behar diegu oraindik. Adibidez, Ondarrera joateko egin beharreko zirkulazio aldaketa zehaztu behar dugu. Berrito batzordera eramango dugu proposamena.

### Langabeziari bultzada eman gura diozue?

Guretzako, garrantzitsua da enplegua sustatzeko bidean ahalegina egitea; ahal dugun neurrian, betiere. Hala, uda partean hiru hilabeterako bi langile hartuko ditugu.

### Ongizaterako diru partida mantendu egingo duzue aurten ere.

Guretzako, lehentasuna da ongizatea. Zerbitzuen kalitatea mantendu gura dugu.

### Nekazaritza Sailari ere partida garrantzitsua bideratuko zaio.



GOIENA

Galartza auzorainoko proiektua eginda dago. Horretan gabiltza, proiektuaren jarraipena eginez. Hala, 40.000 euro proiektu horren jarraipena egiteko bideratu ditugu.

### Auzo-konposta egiteko aukera herritar gehiagori zabalduko zaio aurten?

Eskaera badago. Oso harrera ona izan du. Jende asko animatu da eta aurten diru partida bat bideratuko dugu eskaera horiei erantzuna emateko. Oso da pozgarria guretzako.

### Zelako elkarlana izan da oposizioarekin?

Zaila izan da, batzorde batzuetara etorri dira eta gaiak batzordeetan lantzen dira. Bertan, herritarrekin landutako gaiak bideratzen dira, eta garrantzitsuak dira. Aurrekontua lantzeko bi Ogasun batzorde egin genituen eta ez ziren azaldu; horietako batera herritar bat etorri zen. Nahiz eta guk batzordeen berri eman, ez badira etortzen oso zaila da lanerako elkarlana.

### Hondakinen bilketa sistema defizitariola dela diote.

Gastu arruntak eta kapital transferentziak ez dira kontzeptu berdinak. Datu guztiak hartu eta non oinarritzen diren ikusi beharko litzateke; neuk ez daukat eurek duten iritzia.

### Zein balorazio egiten duzue?

Egun ditugun baliabideekin herritarren beharrei ahalik eta ondoen erantzuten dien aurrekontua dela uste dugu.

Maria Eugenia Arrizabalaga | EAJko bozeramailea



## "Kontinuistak eta etorkizunerako anbizio gutxikoak dira aurtengo aurrekontuak"

"Ezker Abertzaleak hitzez bestelakorik aldarrikatzen badu ere, Antzuolako aurrekontuan txinto-txinto betetzen dituzte egonkortasun baldintza 'neoliberalak'. Hori esan eta gero, erabat dokumentu kontinuitate, etorkizunerako anbizio gutxiak direla uste dugu. Aurrekoetan bezala:

Bilduren gabeziak agerian uzten dituena, zabor bilketak eragiten duen zulo ekonomikoari kobertura ematen diona—hiru urtetan 241.000 euro— eta alderdikieriez lepo dauden hainbat partida jasotzen dituena. Okerrena, baina, Bilduren prepotentzia izugarria da: Ogasun batzorde bakarra, handik Antzuolan oso ohikoak diren 'ezohiko' osoko bilkurara eramanez, gezurra erabiliz eztabaidatu, gehiengoaren 'errodilloa' pasa eta kito. Aurtengoan, behintzat, ez digute iaz bezala udalbatzan hitza ukatu! Hori bai, dokumentuan partida bakar batek ere ez duenez adierazten zertarako den, 'iker-keta' lan latza egin beharrean aurkitu dugu geure burua. Ea hor Bilduren 'gardentasunaren' neurria: hutsaren parekoa".



# %3ko igoera izan duen aurrekontua onartu dute astean

- ▶ 8.870.743 euro gorde ditu Udalak 2015erako
- ▶ Alkatearen esanetan, egoera egonkortu egin da
- ▶ Aralar eta EAJ aurka agertu dira; PSE-EE, abstenitu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak 2015ari dagokion udal aurrekontua: 8.870.743 eurokoa, hain zuzen ere. Pertsonal gastuak 1.795.732 euro dira; gastu arruntak, 4.488.996 euro; eta inbertsioak, 525.640 euro. Urats Gain zaharren egoitzari dagokiona, ostera, 338.177 euro da.

## Partidei eutsi

Garapen ekonomikoari eta enpleguari dagozkion aurrekontuko partida guztiei eutsi dietela esan zuen Ana Bolinaga alkatea. Hala, 96.600 euro onartu dituzte. Hortik, 35.000 euro dira enpresei zuzendutako diru laguntzendako; beste 35.000 euro enplegua sustatzeko kontratazioak egiteko; 15.000 euro autoenplegurako eta laneko prestakuntza ikastaroetarako; eta 11.600 euro merkataritzarako. Parte-hartze Sailari dagokionez, 7.000 euro gorde dituzte kuartel zaharraren eraikinaren gainean egin gura den hausnartze prozesurako.

Ingurumen Sailak bi ildo nagusi izango dituela jakinarazi zuen Lore Martinez Axpek: batetik,

## 2015EKO UDAL AURREKONTUA

	2015	2014 ALDEAN
Zor publikoa	923.463	-%12,16
Garapen ekonomikoa eta enpleguaren sustapena	159.865	+%44,79
Merkataritza	11.600	+%27,47
Genero berdintasuna	55.848	+%87,56
Parte-hartzea	36.714	+%83,57
Gazteria	189.952	+%17,69
Hezkuntza	346.644	+%31,82
Euskara	252.342	+%12,65
Musika eskola	81.250	+%2,78
Liburutegia	131.806	+%8,94
Basotxo erretiratuen etxea	15.450	+%7,67
Jaiak eta ospakizunak	159.825	-%5,28
Gizarte zerbitzuak	170.950	+%1,58
Etterik etxeko zerbitzua	380.000	-%5,00
Gizarte larrialdietarako laguntza	40.000	+%11,11
Ingurumena	50.022	+%6,13
Kirola	162.523	-%2,76

ingurumen heziketarako sentsibilizazio ekintzak egitea; eta bestetik, Zero Zabor programa ezartzea. Eta ekintzetarako aurrekontua 98.300 euro da.

Umeen eta nerabeen aisialdiari dagokionez, azken urteotan egindako ekintzek jarraipena izango dutela adierazi zuen Iñigo Louvellik. Eta gazteen artean kuartel zaharraren gainean hausnartu gura dela zioen, sormenari lekua egiteko han. Ekintzetarako 58.000 euro dituzte.

## Gizarte Zerbitzuak eta Kultura

Gizarte Zerbitzuei dagozkien partida gehienak mantendu egin dituzte. Harrera familiei bideratutako partida igo egin da apur bat eta etxerik etxeko laguntza zerbitzua, ostera, jaitzi: "Azken urteetan kasuak jaitzi egin dira, bi arrazoigatik: mendekotasun legearen prestazio ekonomikoak sortu direlako; eta erabilzailleen profila aldatu delako", zioen Mainer Aizkorbe zinegotziak.

Kultura da jaitzia izan duen sailerik bat; jaien partidak, hain zuzen ere. Zigor Quintanillak zioen herritarren elkarlanari esker murriztu dela partida.



Geltoki plaza, bidegorriari dagokion lehen zatia. | MIRARI ALTUBE

Ana Bolinaga | Alkatea

## "Arlo guztien arteko oreka lortu gura izan dugu"

Aurrekontu "egonkorra" onartu dutela dio, eta pozik dago, austerritate planaren "emaitza" delako. **lazkoa baino zerbait altuagoa...**

la 300.000 euroko igoera dago. Horrek esan gura du aurrekontuaren bilakaera egonkortzen dabilela. 2012an, lau milioiko jaitziera eginez hasi ginen eta poliki-poliki igotzen joan gara, nolabait egonkortzen, gure udal zorra jaisten doalako. Austeritate plan baten barruan jarraitu beharra dugu, horrek dakarrelako emaitza, eta horren oinarria da gastua kontrolatzea.

**Arloren batek jaitziera izan du, ezta?**  
Bai, Kulturak. Ikusi dugu posible dela herrigintza bitartez,

Politika egiteko estilo ezberdinak ditugu. Euren osoko garrantzitsua da Hirigintzan inbertitzea, baina horretarako gainontzeko arloetan izugarriko jaitziera egin behar dira. Eta guk bere garaian, kiroldegia 14.600.000 euroko herentzia jaso genuenean, aplikatu ginen jaitziera, baina ez goaz berriro halakorik egitera. Esandako moduan, arlo guztietan oreka mantentzea goaz. Gu, eta datozen agintaldiak, oso lotuta gaude kiroldegiarekin, nahiz eta poliki-poliki zorra jaisten joan. Eta gurako nuke hurrengo agintaldietan perspektiba hori ez galtzea, Udalak ez duelako diru sarrearik. Gastua murrizten saiatu behar da, zorra jaisten doan bitartean. Eta zorra jaisten bada, aurrekontua igo egingo da.



"Herrigintza bitartez ekintza asko egin daitezke"

ten saiatu behar da, zorra jaisten doan bitartean. Eta zorra jaisten bada, aurrekontua igo egingo da. **Agintaldiko azken aurrekontua onartu da. Udalak orain duen egoera ekonomikoarekin pozik?**  
Beti esan dut gure helburua, ikuspegi ekonomikotik, zorra jaiste eta aurrekontuak egonkortzea edo, behintzat, gutxiengo segurtasun maila bat lortzea datozen agintaldiak begira; luzera begirako politika egin dugu-eta. Eta datozen urteetan bestelako egoera izango dute. Zentzuz egiten bada politika, austeritate plan horren barruan, esanenez gabe erreskate ekonomiko egoera horretatik irtenda dagoela Udala. Bestetik, konpen-tsatu gura dugu herritarren inplikazioarekin. Oso garrantzitsua izan da lau urteotan elkarrekin eta herritarren inplikazioa. Horrek konpen-tsatu izan du askotan diruarekin ezin izan dena egin. Eta neuk ere eskertu gura diet aretxabaletarrei hori. Guk ahalegina, behintzat, egin dugu gauzak ondo egiteko.

## Inbertsiorik garrantzitsuenak

### GELTOKI PLAZAKO BIDEGORRIA

Herri barruko bidegorria sustatzea du helburu Udalak eta eginda dauka Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunean hasi eta Kurtzebarri eskola artekoaren proiektua. Aurten lehen zatiri helduko diote: Geltoki plazari dagokiona, hain zuzen ere. Saneamendu lanak ere egingo dituzte, eta ur-horniketa hodiak eta argiteria publikoa berritu. 345.524 euroko aurrekontua du horrek eta 2015eko aurrekontuan kopuru horren erdia sartu dute.

### UDALETXEA

Udaletxean igogailua jartzea da asmoa. Baita eraikinaren erreteila konpontzea ere. Eta horretarako 100.000 euroko partida gorde dute.



Aretxabaleta udaletxea. | M.A.

### IBARRA KIROLDEGIA

Ibarra kiroldegira bi diru kopuru bideratuko dute: bata fitness gelako makineria erosteko izango da, 113.200 euro; eta

bestea, 155.000 euro inguru, eraikitze lanetan jardun zuen Galdiano enpresa eraikitzailearekin duen zorra ordaintzeko.

**Inaxio Garro**  
Aralarko zinegotzia

## "Gestioaren balantzea oso kaskarra da"

"Aurrekontuak ulertu ahal izateko, zer lortu gura den ulertzeko, horrenbeste partida eta diru-kopururekin batera banatu beharko litzatekeen Memoria esplikatiboaren arrastorik ere ez dago, gaur egun Gobernuan dauden batzuek lehen majo eskatzen zuten moduan.

Beste inoiz ere esan dugun moduan, zenbaki batzuetatik harantzago, aurrekontuek ibilbide bat erakusten dute, jarraitu nahi den bidea. Eta bide hori lau hilabete barru bukatuko den arren, aurrekontuen zentzua zein izan den jakin gabe geratuko gara. Aurrekontuak plenora ekarri dira, eta oraindik egunean bertan aldatketak egon dira hainbat partidatan. Ez da oso serioa.

Lau urtetako ikuspegi global batetik ikusita, hau da, 2012tik 2015era bitartekoa, hauxe da Udalen errealitate mikatz eta kezkarria: gastuei dagokienez: 1. kapituluak (pertsonal gastuak) gora egin du %16; 2. kapituluak (gastu arruntak) gora egin du %15; 3. kapituluak (transferentziak) gora egin du %13; 6. kapituluak (inbertsio errealak) behera egin du %2.



Eta ez onartu arren, hori oso larria da; gastu arruntak marka guztiak gaintuta, transferentziak ere marka guztiak gaintuta, eta etorkizuneko garapenaren oinarri diren inbertsioak behera. Eta behar den moduko inbertsioak egin ezean, herriaren etorkizuna, lana, bizitza kalitatea, kolokan egongo dira.

Zeintzuk dira aurrekontuak ulertzeko gakoak, irizpideak? Langileen kopurua mantentzea? Ez. 2. eta 4. kapituluak jaistea? Ez. Inbertsioak areagotzea? Ez. Irizpiderik eduki ezean, jokabidea betikoa izan da: hemen zerbait gehitu, eta han hauxe gutxitu. Ez buru, eta ez hanka. Ez planik, ezta proiekturik ere. Lau urte hauetako gestioaren balantzea oso kaskarra da. Ez gaituzue gonbidatu aurrekontuak adostera, beti bezain autosufiziente jokatuta nahi izan duzelako. Beraz, guk aurrekontuen kontra bozkatu dugu.

Plantilla organikoaren planteamenduaren kontra egiten dugu, ez delako aretxabaletarren beharretara egokitzen: informatikoaren lanaldia egun osokoa izatea gurako genuke; parte-hartzete teknikaria zalantzan jartzen dugu; eta Hirigintzarako hirugarren langile baten falta ikusten dugu".

**Mikel Uribebarria**  
EAJko zinegotzia

## "Gastu arrunta aurrekontuaren %50era heldu da"

"Aurrekontu hauek agintaldi honetan eraman den kudeaketa eskasaren ondorio dira. Gaur egungo egoerak pertsonal eta gastu arruntaren kontrola eskatzen du, inbertsioetarako ahalik eta diru gehien gordezko. Agintaldi honetan ez da norabide horretan lan egin eta erabakiak plano politikoan bakarrik hartu dira.

Gastu arrunta dagoeneko aurrekontuaren %50 izatera heldu da. Kirolegia Udalak bere gain har-

tzeko erabakiak 280.000 eta 300.000 euro bitarteko defizita ekarriko dio aurrekontuari, gaurdainoko enpresaren kudeaketa integralak dakarren bikoitza. Hori gutxi balitz, Udalak fitness gelako makineria erosi (115.000 euro) eta aurrerantzean horren kostua bere gain hartu beharko du. Kirol etxearen gerentzia eta koordinazio lanak egiteko kanpoko enpresa bat kontratatzea ere ez da onargarria, Udalean bertan lan hori aurrera eramateko Kirol teknikaria eta gainontzeko balibideak aprobetxatu gabe.

Kuartel zaharreko eraikinean inolako gasturik egin baino premiazkoago jotzen dugu Hirigintza batzordean adosturiko 100.000



euro urtez urte gordetzea herria txukun mantentzeko lanak egiteko. Zaborraren atez ateko kudeaketak ere agintaldi hasieran existitzen ez zen 50.000 euroko defizita dakar.

Pertsonal arloan, iazko urtean parte-hartze eta berdintasun gaiak jorratzeko egindako kontratazioen ordez, aproposago ikusten dugu Udaleko beste sailetan lantzea alderdi hauek, beharrezko formazioa eta euskarria azpikontratatzuz. Parte hartze kultura ez dator bat erabakiak alde bakarrez hartzeko Udal honek daukan jarrerarekin.

Ondorioz, inbertsioetarako ia ez dago dirurik. Hau horrela, aurrekontu hauei ezezkia eman diegu".

**Jorge de Castro**  
PSE-EEko zinegotzia


## "Kirolegiaren kudeaketa arduraz egitea nahi dugu"

"Kontinuistak eta oso justu egin da dauden aurrekontuak dira. Eta pisu handiena kiroldegiaren kudeaketa dela ezin da ukatu. Kudeaketaren kostua aurrekontu osoaren ia %12 da, inbertsio partidetan sartu den diruaren bikoitza baino

gehiago (%5), edota Gizarte Zerbitzu partidan sartu den dirua baino 6 aldiz handiagoa (ez da %2ra heltzen).

Hala ere, gure taldea beti kudeaketa publikoaren alde egon da. Udal Gobernuari kiroldegiaren kudeaketa arduratsua eskatzen diogu. Adibidez, gerentea azpikontratatzearen aurka gaude, "etxe barnean" teknikariak baitaude.

Bestalde, gure proposamen hauek onartu dituzte: Hezkuntza Sailean, DBHko ikasleei laguntzeko 6.000 euroko partida; Ongiza-



te Sailean, elkartasun poltsa bat sustatzeko 1.000 euroko partida; hutsik dauden etxebizitza partikularak alokairuan jartzeko plan bat sustatzea; hirugarren adinekoentzat parke bat martxan jartzea; eta efizientzia energetikoa sustatzeko plan bat martxan jartzea.

Gure botoa abstentzioa izan da. Ez du esan nahi aurrekontuarekin ados gaudenik, ez baikaude ados etxeko zerbitzuaren prestakuntzan 20.000 euro kentezarekin, adibidez".



**Pausoka**

25 urteko bidea  
pauzoz betetzen

**0-3**  
urte

943 77 03 77  
pausoka@euskalnet.net  
www.pausoka.eu

Belorrieta 8  
20550 Aretxabaleta

## Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: Otsailaren 2tik 13ra (barne)

Bulego ordutegia: 09:00-14:00 / 16:00-18:00

zeuria  
zeuena  
geuria

# Athlonek emango ditu kirol jarduerak Ibarrran

Udalak bere gain hartuko du kiroldegiaren kudeaketa eta Igor Arenatza izango da koordinatzailea

**MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA**  
Domekan hasita, otsailak 1, Udalak berak kudeatuko du Ibarra kiroldegia. Bertako zerbitzuak bi enpresaren bitartez emango dituzte, eta lehiaketa deitu zuten abenduan horiek hautatzeko. Atzo jakinarazi zuen Ana Bolinaga alkateak zeini esleitu dizkioten horiek: Athlonek izango du harrera zerbitzuaren, mantentze-lanen eta kirol jardueren ardura; eta Bilboko Comercial de Limpieza Villar enpresak garbiketarena. Horrez gain, jardueren koordinatzailea bat egongo da han, Eki Coach enpresako Igor Arenatza.

**Koordinatzailea 2015erako**  
Lau enpresa aurkeztu ziren harrera zerbitzuaren, mantentze-lanen eta kirol jardueren lehiaketara eta puntu gehien jaso zituen Arrasateko Athlon enpresak. Horri eman diote urtebeterako, 344.000 eurotan, eta kontratua beste urtebetez luzatzeko aukera izango du. Garbiketa zerbitzua, ostera, 116.350 eurotan jaso du Comercial

de Limpieza Villarrek, luzatzeko aukerarik gabe. Eta Eki Coach enpresarekin kontratu txikia egin dutela jakinarazi du alkateak, 18.000 euroren truke. Arenatzak urtea bukatu arte jardungo du koordinatzaile lanetan.

Kudeaketa beregain hartuta Udalak egin beharko die aurre kiroldegiaren galerei: "179.000 euroko defizita aurreikusten dugu", dio alkateak eta gaineratu: "Gure estrategia da aretxabaletarren abonua kopurua gehitzea. Orain 2.100 inguru dira guztira, 2007an bezala, baina orduan baino aretxabaletar gutxiago daude. Hortaz, gure erronka da horiek ekartzeko, eta Eki Coachek horretan egin beharko du lan".

**Prezioak %21 behera**  
Orain arte emandako zerbitzuaren kalitatea ez dela jaitziko argi utzi du Bolinagak: "Eki Coach aukeratu dugu, eta batez ere Igor Arenatza bera, kiroldegia herrikoia egiteko. Aretxabaleako kirola sustrai-sustraitik ezagutzen du

Arenatzak, eta oso harreman ona du bai herritarrekin, bai elkarrekin. Hortaz, beste ukitu bat emango dio Ibarriari eta jarduera gehiago jarriko dira martxan".

Prezioari dagokionez, abenduan jakinarazitako moduan, %21eko beherapena -BEZa kendu delako- izango dute abonuguztiek. "Dena den, aztertzen gabiltza Getxoko Udalaren eredu, eta gurako genuke tarifarik justuenak aplikatu norberaren diru sarrerak kontuan hartuta", jakinarazi du.

**Kirol estrategia plana**  
Aurtun kirolaren estrategia plana abian jartzeko asmoa agertu du alkateak, eragile guztiekin koordinazio plan bat eginda. "Lehenengo plan hori geuk diseinatu dugu eta laster emango dugu kronogramaren berri. Urteroko kirol plan bat aterako da, gainerako arloetan legez, beste batzuen artean genero ikuspegitik aztertzeko, hirurgarren adina-koena bultzatzeko..."

## Mundukideko Beñat Artzadunek Mozambikeko berriak dakartza

**M.A. | ARETXABALETA**  
Herrien garapenerako lanean diharduen Mundukide Fundazioako kide Beñat Artzadun izango da datorren martitzenean, otsailak 3, 18:30ean, Arkupen, Mozambikeko proiektuaren gaineko argibideak ematen. Mundukidek antolatu du ekitaldia Hiruatz elkartearrekin batera eta Basotxoko erretiratu abestaldeak giro tuko du ekitaldia.

**Bizi baldintzak hobetzea**  
Artzadun da Mozambikeko programaren arduraduna eta orain dela hamahiru urte joan zen lehenengoz hara, Marrupa eskualdera. Ondo baino hobeto ezagutzen du hango egoera, eta lantalde profesional batekin elkarlanean 30.000 lagun bizi baldintzak hobetzea du helburu.


Programa hori Mozambique iparraldeko lau gunetan dabilteza garatzen, eta bi ildo nagusi ditu: batetik, nekazaritza sustapena, hau da, mikrokredituen programa abian jartzea nekazari produktio sistemak hobetzeko; eta bestetik, azpiegituren antolaketa: ureztatze sistemak, errepide sarea...



Mozambikeko lagunak. | MUNDUKIDE

## Unai Elkoro da EAJren alkategaia

Zapatuan Bergaran egindako ekitaldian Gipuzku Buru Batzarrak aditzera eman zuen Unai Elkoro izango dela EAJren Aretxabaleako alkategaia. Datorren eguaztenean aurkeztuko dute, batzokian.



MIREN ARREGI

## Estreinatu dituzte gela berriak Kurtzebarri eskolako ikasleek

Patio aldera handitu dute Lehen Hezkuntzako eraikina, eta hiru solairu ditu

**M.A. | ARETXABALETA**  
Urte berriarekin batera ikasgela berriak estreinatu gura zituzten Kurtzebarri eskolan, baina berogailuak lehenengo eta wifiak gero atzeratu egin dute estreinaldia. Bada, traba txiki horiek konpondu ostean, astean sartu dira ikasleak eta irakasleak horietan; martitzenean hain zuzen ere. Hori horrela, hemendik aurrera ez dute Irilabarri plazara joan beharrik izango, azken sei urteotan egin duten legez.

**Harrera gela lehen solairuan**  
Santa Kurtz kalean dagoen eraikina patio aldera handitu dute, eta hiru solairu dituen gehigarria egin. Sei ikasgela egin dituzte han; elbarriadako egokitutako komuna; eta igogailua. Hala, orain arte ez bezala, talde bakoitzak ikasgela propioa izango du: "Kostata, baina azkenean iritsi da. Behar handia geneukan; izan ere, 2009a ezkerko Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleak joan-ertorrian ibili behar izan dute Irilabarri plazan Udalak utzitako geletara", jakinarazi du Dorleta Gaztañaga zuzendariak.



Kurtzebarri eskolako ikasleak ordenagailuekin lanean. | AMAIA TXINTXURRETA

Lehen solairuan harrera gela egin dute; goizean, eskolak hasi aurretik eta arratsaldean, bukatu ostean, umeak egon daitezten. Opor sasoiaren ere han elkartuko dira zaintza zerbitzua dutenak. Psikomotrizitate gela ere lehen solairuan dago, eta eguaztenean izan zuten lehen eskola: "Orain arte Arkupen egon dira eta pozik hartu dute gela berria. Poliki-poliki joango gara hornitzen: ispilua jarri, rokodromo txiki bat...", argitu du Gaztañagak.

**Erabilera askotariko gela**  
Bigarren solairuan ere bi gela daude: laugarren mailakoena bata, eta ingeles eskolendako bestea. Eta hirugarren solairuan beste bi: bata, seigarren mailakoena, eta bestea, askotariko erabilera izango duena.

10 eta 12 urte arteko neska-mutikoak oso pozik sartu dira gela berrietan. Izan ere, gela dotore askoak egokitu dizkiete eta atzera eta aurrera ibili beharrik ez dute izango gehiago.

### EMAKUMEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

#### 15 bikotek hasiko dute txapelketa

Domekan, otsailak 1, hasiko dute UDAk antolatutako emakumeen bigarren frontenis txapelketa. 15 bikotek eman dute izena, eta bakoitzak, gutxienez, hiru partidu jokatu ditu dagokion taldeko kideen aurka. Bada, partidu horiek jokatu ostean, talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira final-laurdenetarako.

#### OTSAILAREN TEKO PARTIDUAK

**09:00** Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Oihana Mata - Leire Valle

**09:45** Urri Urizar - Miren Antxia / Maite Fraile - Maite Otxoa

**10:30** Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkorro / Lur Delgado - Lierni Zangitu

**11:15** Oihana Irazu - Anabel Mondragon / Ariane Unanue - Ibone Arrieta

**12:00** Nagore Martin - Laura Saez / Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo

**12:45** Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Naiara Amezuza - Iratxe Bravo

### OHARRAK

#### MUS TXAPELKETA URBALTZEN

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa izango da domekan, 16:00etan, Urbaltz elkartean. Parte hartzeko, hara joan behar da 16:00etarako.

#### KANDELARIO ETA SAN BLAS

Kandelario eguna ospatuko dute astelehenean, 19:00etan, parrokiarian. Meza esango dute eta kandelak bedeinkatuko dituzte.

Martitzenean, ostera, San Blas eguna da. 10:30ean esango dute meza Apotzagaetxebarrin eta jakiak bedeinkatuko dituzte. 19:00etan, agustindarren monasterioan da meza.

#### SANTA AGEDA EGUNA

Santa Ageda neska-mutilak kantuan eta eskean ibiliko dira eguaztenean baserrietan eta eguenean kalean. Eta dantzari egingo dute, 19:00etan, plazan.



# "Finaleko buruz burukorako sailkatzea dut helburu"

- ▶ Domekan ekingo dio Manex Agirrek Arabako txapelketari, Laudion (17:30)
- ▶ Beteranoena izanik, sailkatu diren beste lau herrikideak izan ditu hizpide

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako Bertsolari Txapelketan lehiatuko den lehen aramaiarra izango da Manex Agirre. Laudio Lanbide Heziketako Udal Ikas-etxearen aretoan izango da kanporaketa, domekan, 17:30ean. 2013ko txapelketatik "tarte handia" pasa dela dio eta, gainera, urtebetez bertsoaren mundutik "apur bat" aldentuta ibili da: "Urtebete deskantsua hartu nuen eta orain gutxi hasi naiz berriro mar-txan. Txapelketara begira gogotsu nago, asko entrenatu naiz, baina nire buruak nola erantzungo zain nago. Ez nago beste urte batzuetan bezain seguru, irrikaz nago nola erantzungo dudak jakiteko". Txapelketa nahiko ondo prestatu duela uste du, bertso eskolako beste kide batzuekin taldean egin ditu hainbat ariketa eta, horrez gain, saiatu da ohi baino bertso gehiago entzuten.

**Belaunaldi berri baten aurten**  
Arabako bertsolarien mailari dagokionez, "progresio lasaian"

doazela uste du: "Ez du txarrera egin, baina ez nuke esango larre-gi hobetu denik. Aurten belau-naldi berri bat sartu da eta horrek, gutxienez, beste kolore bat eman dio txapelketari. Hala ere, hori saioz saio ikusi beharko da; oraindik bakararra jokatu da".

Helburua zehaztu du aurten: "Finalerako sailkatzea eta buruz burukora heltzea dira nire helburuak, eta hori guztia saio ona

eginda lortzea gustatuko litzaidake. Horrek esan gurako du saioa orokorrean ona izan dela".

## Gainerako bertsokerak

Bost aramaiar sailkatu dira 2015eko txapelketarako: Manex Agirre bera, Iker Agirre, Xabi Igoa, Paula Amilburu eta Peru Abarrategi: "Hasi aurretik txapelketak eman duen albisterik onena da, nire ustez, poz handia izan da. Horrek adierazten du bertso zaletasunaren transmisioa indartsu dagoela; harro esan dezaket Aramaiokoa bertso eskolen artean indartsuenetakoa dela".

Beteranoena izanik, gainerako lau bertsolarien gainean galdetu dio GOIENAK. Hasteko, Iker Agirreraren bertsokera "berezia" nabarmendu du: "Garai bateko bertsokeratik Araban geratzen den bakarrenetakoa da. Erantzuteko gaitasuna du, eta hizkera bizia eta naturala. Gainera, umore puntu oso inportante bat dauka eta txapelketetan saiatzen da umoreari eusten; hori eskertzekoa



Manex Agirre. | GOIENA

da". Xabi Igoaren gainean uste du "etorkizun oparoa" duela: "2013ko txapelketa amaitu barik utzi behar izan zuen kanpora joan zelako, eta aurten bereziki gogotsu ikusten dut. Bertsokera serio-koa, bakarkakoan nabarmenduko nuke, eta betelanean Aramaioko onena da orain bertan; finalerako hautagai sendoa da".

Paula Amilbururi ere etorkizun ederra ikusten dio Agirrek: "Arabian bertso saio gehien ematen dabilenetako bat da, plazaz plaza dabil, eta horrek erreferentzialtasun bat ematen du. Bertsokera bizi-bizia du, eta hainbat baliabide. Ea txapelketan nola dabilen". Azkenik, 1997an jaiotako Peru Abarrategiren gainean honako hau dio: "Lehen txapelketa izango du eta, beraz, bere burua probatzeko aukera izango da. Bertsokari harremana finkatzeko garaia du; ondo ikusten dut".

## NIRE USTEZ

XABIER HERRARTE



## Kaxa hutsa

Gizakiok burmuina kaxaz beteta omen daukagu. Kaxa bakoitza arduratzen da gure eginkizun bakoitzaz: umeen ardura, diru kontuak, ikasketak, hau idazteko ideiak pilatu eta ordenatzeaz... Emakumeek, gizonok ez bezala, kaxa guztiak ondo beteta eta antolatuta izaten ei dituzte, eta horregatik esan ohi da bi gauza batera egiteko gaitasuna dutela.

Gizonezkook, ordea, kaxa guzti horietako bat behinik behin hutsa omen dugu, *nothing box* deritzona, horregatik ei dugu gizonok une batez deskonektatzeko erraztasuna, burua hutsik, *stand by* eran, atsedenean uztekoa.

Kontua da gaur eguneko gizarte honetan, sexuak berezitu gabe, gehitxok dutela nire ustez sistema operatiboa *stand by* eran. Ezer egin gabe egon nahia oso hedatua dagoen desira dela esango nuke.

Asko eta asko gizartearekin oso konprometituak dauden bitartean, beste hainbat gizarte honen bizkarroi gisara jokatzeko duten ustea daukat, inon ezertan eragin gabe, gainontzekoen nekeaz aprobetxatzen direnak, sistemak dena eginda eman behar bali-gu bezala. Sistema, baina, denon artean irunaz ehundu beharreko amarauna izan beharko luke, norbanako bakoitzak irun dezakeen seta ari muturra irunaz.

## Arias eta Fernandez txapeldun Alaiak-en mus txapelketan

Alaiak erretiratu elkartearen azken mus txapelketan Jose Maria Arias eta Angel Fernandez izan ziren irabazleak. Bigarren sailkatuak izan ziren Juan Mari Urizarren eta Enrique Ibabe eta hirugarrenak, berriz, Javier Nafarrate eta Begoña Etxabe. Zazpi bikotek hartu zuten parte.

## Patinaje ikastaroaren bigarren saioa egingo dute domekan

Guraso elkartek bosgarrenez antolatuta du patinaje ikastaroa: "Oso arrakastatsua izaten jarraitzen du, 80 bat lagunek eman dute izena", diote. Lehen saioa egin dute eta hurrengo hiru domeketan ere elkartuko dira kiroldegian. Otsailaren 22an Gasteizko izotz pista-ara egingo dute irteera.

## ESANAK

**"Gogotsu nago, txapelketarako asko entrenatu naiz; baina nire buruak nola erantzungo zain nago, irrikaz"**

MANEX AGIRRE | BERTSOLARIA



## Eratu da Korrika batzordea

Hilaren 20an, kultur taldeetan dabilzan herritarrak eta AEK-ko ordezkariak kultura etxean batu ziren Korrikaren etorrera antolatzeko. Izan ere, aurten Korrika Aramaiotik pasako da, martxoaren 23an. Ordura arteko ekintzak antolatzeko otsailaren 3an egingo dute hurrengo bilera; kultura etxean, 18.30ean. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

## Euskal komunitatearen gaineko gogoeta egiteko beste bi saio Txirritolaren eskutik

J.B. | ARAMAIO

Txirritola euskara elkartek euskal komunitatearen egoera aztertzeke hausnarketa prozesua ireki du asteon. Lehen saioa eguaztenean egin zuten, eta prozesuaren gaineko aurkezpen teorikoa izan zen, batik bat. Antolatzaileek iragarri dute jarraipenerako beste bi saio egingo dituztela, otsailaren 11n

eta martxoaren 4an. 18:00etatik 20:00etara egingo dituzte bi saio horiek, osoko bilkuren aretoan.

### Saio dinamikoak

Otsaileko eta martxoko saioak Txema Abarrategik eta Manex Agirrek gidatuko dituzte, eta "dinamikoak eta praktikoak" izaten saiatuko dira. Gogoeta piztu gura dute herrian.

## 'Ir a Kurrin Kurrin'-en bigarren saioarekin oso pozik daude eskolan

J.B. | ARAMAIO

"Oso positiboa, hunkigarria, zirraragarria. Sentsazioa dugu parte-hartzaile guztiek oso ondo pasatu zutela, oso giro ona izan genuen. Komunitatea sendotzen laguntzeko ekimena zen eta uste dugu lagundu duela". Horiek dira San Martin eskolakoek hitzak hilaren 23ko *Ir a Kurrin Kurrin* ekimenaren balorazioa egiterakoan.

Ikasle, irakasle eta gurasoak aintzat hartuz 46 lagun elkartu ziren, eta, Castillo Suarezren *Ebelina Mandarina* liburua oinarri hartuta, afari-merienda, saio dialogikoa eta jaialdia egin zuten. Bost taldetan banatuta, alde aurretik irakurritako liburuen pasarte baten gainean aritu ziren.

### "Seriotasuna eta errespetua"

Saio dialogikoarekin oso pozik daude antolatzaileak: "Azpimarratzeko da partaide guztien

seriotasuna eta errespetua, denon iritzien balioa berdina izan zen. Landutako gaien artean, beldurrak, lagunik gabe egotea, bakardadea, besarkaden beharra, zure herrian ez bizitzea, sekretuak... Egia esan, liburua askorako ematen zuen. Saioaren amaieran, bakoitzak paper laranja baten beldurra zeri diogun idatzi genuen. Bukatzeko, eskutik helduta jarri ginen, eta banan-banan paper laranjetan idatzitako beldurrak irakurri genituen. Azkenean, sua eman genien beldurrei... Bukarea oso hunkigarria izan zen".

Antolatzaileen arabera, parte-hartzaileak hurrengo saioa noiz egingo den galdetuz joan ziren etxera, eta egon ez ziren eskolako komunitateko beste kide batzuei ekimenera batzeko gonbidapena egin zieten. Hurrengo saioa, hirugarrena, maiatzean egitea aurreikusten dute.



Saio dialogikoaren aurretik guztiek batera afaldu zuten. | SAN MARTIN ESKOLA



# KIROLA

Miren Josune Bikuña eta Susana Arrese | Abixaran taldeko kideak

## "Nagusiok lotsa edo konplexu gehiago izan ditugu kirolean hasteko; atzean utzi horiek!"

- ▶ Datorren hilean lau urte beteko ditu elkarrekin kirola egiteko sortu zuten Abixaran taldeak
- ▶ Emakumezkoak batzeko sortu zuten, baina gizonezkoek ere zabalik dituzte ateak

XABIER URZELAI | ARRASATE

Iritzi artikulu batekin hasi zen dena, orain dela lau urte. Orduan, Susana Arresek GOIENAn idazten zuen zutabea baliatu zuen emakumezko oñatiarrak korrika egiten hasiera animatzeko. *Lotsak baztertu eta animatu!* izenburua zuen iritzi artikulu hark, eta, antza, helburua bete zuen. Batzuek ordurako bazuten kirola egiteko ohitura, eta beste batzuk orduan hasi ziren poliki-poliki. Egun, berrogei lagunetik gorako taldea osatu dute, elkarrekin korrika egiteko, lasterketetara batera joateko edo tarteka elkarrekin afaltzeko. Argi utzi dute gizonezkoak ere onartzen dituztela.

**Abixaran Oñatiko taldea da ala muga hori gainditu duzue?**

Bikuña: Taldea oñatiarrekin osatu genuen hasieran, baina, gaur egun, Aretxabaletako, Bergarako eta Arrasateko emakumezkoak ere baditugu; hortaz, ez da Oñatiko talde bat bakarrik.

**Horrenbestez, ateak zabalik?**

Bikuña: Duda barik! Ateak zabalik daude, bai emakumezkoendako, eta baita gizonezkoendako ere! Egia da, baina, oraindik ez zaigula gizonezkoen animatu.

**Eta hori, zergatik?**

Bikuña: Ba, ez dakit. Imajinatzen dut emakumezkoen talde bat tabu samarra dela gizonezkoendako, ez direla ausartzen, edo usteko dute oso motel egiten dugula korrika eta ez dute gurekin etorri nahiko. Baina horiek ez dakite ondo zelan egiten dugun korrika. [Barre]

**Ze behar ikusi zenuten orain dela lau urte halako talde bat sortzeko?**

Arrese: Ni sasoi hartan bakarrik ibiltzen nintzen korrika, eta konturatu nintzen beti elkartzen ginela kuadrilla antzerako samarra korrika egiten, edo gimnasioan. Elkar agurtzen genuen, baina nor bere kontu ibiltzen zen. Hala, garai hartan GOIENAn iritzi artikuluak idazten nituen bezala, halako bat aprobetxatu nuen proposamena egiteko eta, batez ere, adin batetik aurrerako emakumezkoak korrika egitera animatzeko.

**Eta, ikusitakoak ikusita, ze balorazio egiten duzue?**

Bikuña: Bada, ezin hobea. Ni sasoi



Abixaran taldeko neska Iban Perezekin batera, Torreauson batera helmugaratzen, artxibo argazkian. | GOIENA

hartan gimnasioan bakarrik ibiltzen nintzen korrika, ez nintzen kalera irtetera ausartzen, lotsagatik... Ez dakit zergatik. Baina taldean elkartzen hasi ginen, eta gauzak elkarrekin egiten; lotsa horiek baztertu eta niretako oso-oso positiboa izan da. Gainera, lagun berriak egiten ditugu, elka-

rrekin korrika egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta horregatik bakarrik, askotan, nahiz eta gogo handirik ez izan, korrika egiteko zapatilak janzten ditugu. **Zer-nolako jendea zaudete taldean?** Arrese: Denetik dago. Gazteak, helduagoak, korrika ondo egiten dutenak, hasiberriak, seme-ala-

bak dituztenak... Batzuetan komentatzen dugu jendea gustura etorriko litzatekeela taldera, baina beldurragatik edo lotsagatik ez direla animatzen. Bada, anima daitezela!

**Gogoan dut Torreausoko kros bat, taldeko kide askoren helburua azkena iristea zela, emakumezkoen bel-**

**durra kentzeko-edo.**

Arrese: Bai. Gogoan dut 2007an ez nuela Torreauson batera gozatu. Oso azkar egin nuen; denbora ona egin nuen, baina sufritu. Eta hurrengo urteetan ez nintzen itzuli. Hala, uste dut 2012ko krosean izan zela, erabaki genuen Torreauson parte hartzea, baina lasai, lasterketaz gozatzen, eta inork beldurrik izan ez zezan. Ederto ibili ginen.

**Talde moduan, ze lasterketatan ez duzue hutsik egiten?**

Arrese: Bada, urtarrilean urtero joaten gara Idiazabalgo krosera, Udaberriko Txapelketara, maratoi erdiak egin izan ditugu, Torreausora, Arrasate-Oñati, Antxintxika krosa, San Silvestre proba...

Bikuña: Badira hutsik egiten ez dugun batzuk. Baina gutxi batzuk beste lasterketa askotara joaten gara, eta horietara joateko jendea animatzen ibiltzen naiz ni. Lasterketa mordoa daude!

**Asteburuan, behintzat, zuetako batzuk batera eta bestera ibili zarete...**

Arrese: Bai, batzuk Beret-en egon dira eta beste batzuk Idiazabalen. Eta oso ondo dago hori, Whatsapp taldea dugulako eta lasterketa ostean erretratuak eta komentarioak partekatzen ditugulako. Hala, beste lasterketa batzuen gaineko informazioa iristen zaigu, eta gure artean harremanari eusten diogu.

**Baina ez zarete atletismora mugaratzen.**

Bikuña: Ez, denetik dago taldean. Korrika egiteari utzi eta bizikletan ibiltzen direnak, mendi lasterketetan dabiltzanak, triatloiak egiten dituztenak...

**Zein da gaur egun emakumezkoen kirola egiteko duten trabarik handiena?**

Bikuña: Nire ustez, adina. Nik ikusten dut gazteek askoz ere erraztasun handiagoa dutela, badutela kirolerako ohitura, beste kultura batetik datozela. Nagusiagoak garenok, berriz, konplexu asko gainditu behar izan ditugu, jendearen esamesak, lotsak. Eta ezinbestekoa da horiek gainditu eta gura dugun hori egiten hastea, onurak baino ez ditugulako batzen.

### Oñatiko Kirol Sarietan onarpena

Bistan da Abixaran taldeko neskek ez zutela taldea sariak jasotzeko sortu, baina emakumezkoak kirolera gerturatzeko egindako ahalegina ez da ezkutuan geratu. Hala, 2014ko Oñatiko Kirol Sarietan jaso zuten onarpena.

Orain, berriz, beste denboraldi bat dute aurrean: "Eta taldeko ateak zabal-zabalik daude. Ez da ezer ordaindu behar, nahikoa da helbide honetara idaztea: [susana.arrese@gmail.com](mailto:susana.arrese@gmail.com)".



Oñatiko Kirol Sarietan ateratako talde argazkia. | ABIXARAN



Murias taldeko txirrindulariak Jon Odriozolarekin. | MURIAS TALDEA

## ESANAK

"Euskal ziklismoaren proiektua da eta guztion laguntza behar dugu; batez ere, zaleena"

JON ODRIOZOLA | KIROL ZUZENDARIA

terraneoko Tourrera joango gara eta horren ostean Argarvera. Proba horietan guztietan UCI ProTourreko taldeekin egongo gara eta ziklista onenekin lehiatuko gara", esan du Odriozolak.

## Zaleen babesa

Talde eta txirrindulari onenekin lehiatzea da Muriasek duen helburuetako bat. Bestea, zaleengana heltzea. "Asko kosta zaigu proiektua martxan ipintzea. Baina lortu dugu. Errepedean gaude. Orain, zaleen babesa behar dugu aurrera egiteko. Euskaltel taldea babestu zuten moduan, gu ere babestu behar gaituzte. Euskal txirrindularitzaren proiektua da. Euskaldunok daukagun profesional mailako talde bakarra da", azpimarratu du.

Helburu horiek guztiak betetzeko, aurretik egindako lanaren emaitzak errepedean erakutsi beharko dituzte orain. Erronkak zehaztu dituzte, baina burua galdu barik. "Euskaltelek utzitako lekua betetzera gatoz. Profesionalak gara, baina hasiberriak maila honetan. Lana gogoz egingo dugu, eta, akaso, etorkizun ertain baten, Tourrera itzultzeko moduan egongo gara", azaldu du Jon Odriozolak.

Lasterketaren bat irabaztea ez dute baztertzen, baina bada-kite zein den euren lekua tropelean. "Zuzendari zorrotza naiz eta zorrotzasun horren arabera emaitzak eskatuko dizkiet. Lasterketak irabazteko daude, baina pazientzia eskatzen diegu zaleei", azaldu du.

## Emakumeen Birako bigarren etapa Arrasaten amaituko dute

X.U. | ARRASATE

Europa mailako ziklismo lasterketarik garrantzitsuenetako bat da Emakumeen Bira. Ekainaren 10ean hasiko da aurten, Iurretan, eta Arrasatekoa bigarren etapa izango da; hala, etxeko etapan, ziklistek Kruzetako mendatean izango dituzte maldarik gogorenak.

Guztira, 400 kilometroko ibilbidea izango du lasterketak eta puntuagarri diren zazpi mendateatik pasatu beharko dute ziklistek. Arrasatekin batera, Iturmendin (Nafarroa), Fruizen (Bizkaia) eta Markinan izango ditu gainerako helmugak 18. aldian.

## Amateurren egutegia gertu

Bestalde, amateur mailako denboraldia gertu dago. Hala, Lehendakari Txapelketa barruan, bailaran lau lasterketa egingo dituzte: Bergaran bi (Gorlako Igoera eta Pentekoste saria), Oñatin eta Antzuolan. Eta Euskalduna Torneoaren barruan beste bi lasterketa izango dira: Aretxabaletan Andra Mari Saria eta Gatzagan Dorletako Ama Saria, hain zuzen ere.

# Muriaseko ziklistak errepedera

Mallorcako Challengean hasi du denboraldia Jon Odriozolaren taldeak

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Murias taldeak hasi du denboraldia. Jon Odriozolaren txirrindulariek atzo ezkererik dihardute lehiari Mallorcako Challengean, maillot berdearekin. Domekara arte lau proba izango dituzte.

Denboraldiko lehen probarako zortzi txirrindulari ditu Odriozolak:

Egoitz Gartzia, Garikoitz Bravo, Beñat Txoperena, Imanol Estevez, Jon Ander Intsausti, Unai Intziarte, Aritz Bagues eta Eneko Lizarralde bergararra. "Txirrindulari batzuk min hartuta daude, baina Mallorcan lehiatuko direnak Euskal Herriko ziklista onenak dira. Murias tal-

dea Euskadiko selekzioa da", esan du zuzendari oñatiarrak.

## Egutegi dotorea

Mallorcan hasita, egutegi dotorea osatu dute Muriaseko arduradunek profesionalekin lehen denboraldirako. "Zaila izan da, baina lortu dugu. Mallorcatik Medi-

## Eneko Lizarralde, profesionalekin lehiari

Eneko Lizarralde (Bergara, 1993) profesional mailan debuta egin zuen atzo, eguena, Mallorcako Itzulian. Domekara arte han lehiatuko da Cancellara, Chavanel eta Mollemarekin. Hotel berean daude guztiak. "Horrek harritu nau gehien. Lasai heldu nintzen Mallorcara, baina maila handiko ziklistekin batera gaude hotelean eta urduritzen hasi naiz dagoeneko", dio Lizarralde. Murias taldeko ziklistarik gazteena da eta oraindik ez daki zein izango den bere lana. "Jonek esandakoa bete beharko dut, beti izan dut konfiantza harengan eta esandakoa gustura egingo dut. Argi dago ihesaldietan egon beharko dudala, batez ere etapa lauetan". Mallorcan hasita profesionaletan "bide luzea" egin gura duela esan du bergararrak: "Txikitako ametsa betetzen hasi naiz eta disfrutatzeke ueña dela uste dut".



Eneko Lizarralde. | MURIAS



Ane Santesteban, Oñatin. | GOIENA

## Ayastui elkarteko ginkana, bizikletan trebatzeko

Ayastui elkartekoek antolatuta, Antzuolako hogeitaz gaztetxok bizikletan trebatzeko saioa egin zuten Kalebarrenen. Ondoren, asteburuan Mallorcan debuta egingo duen Eneko Lizarralde ziklistarekin jardun zuten. Bestetik, Ayastui elkartekoek 2015eko bazkide kanpaina jarri dute abian (10 euro).





Bi jokalaria mahai-inguruan, Zuazola-Larrañako ikasleekin. | JULEN IRIONDO

## Mikel Gonzalez eta Jon Antsoategi Oñatiko institutuan izan dira

JULEN IRIONDO | OÑATI

Oñatiko Zuazola-Larraña institutuan kultur jardunaldiak ari dira egiten, eta Realeko Mikel Gonzalez eta Jon Antsoategi jokariaren bisita jaso dute, beste hainbat ekintzaren artean. Mahai-ingurua egin dute, eta jokari txuri-urdinek zintzo erantzun dituzte ikasleen galderak. Besteak beste, galdetu diete, ea Andoni Ugarte, Sansen ari den Oñatiarra, zer iruditzen zaien, edo Atletico Madrilera joan ondoren Antoine Griezmanekin harremanik mantentzen ote duten.

**David Moyesen gidaritzapean** Eibarren aurka irabazita, animoa berreskuratuta iritsi ziren bi

jokalaria Oñatira. Entrenatzailer berria iritsi zenetik, ordea, Realari kosta egin zaio goranzko bidean jartzea, baina Antsoategik azaldu du kanpotik aldaketa bat -batekoa izatea espero den arren, horrelakoetan "normala" dela pixkanaka joatea. "Pertsona bat aldatuta bakarrik ez da dena aldatzen", esan du "orain egin beharrekoa jokari bakoitzaren maila igotzea da, eta horrela igoko da taldearen maila".

Real Madrilen aurka, Bernabeun izango dute hurrengo erronka. "Dagoen kanpo zailenetakoa da, baina gauzak ondo egiten baditugu eta geure buruan sinesten badugu, badakigu aukerak izango ditugula", dio Gonzalezek.

## Goi mailako pilota partiduak izango dira asteburuan

M.T. | BERGARA

Eskuz binakako txapelketako bi partidurekin ekingo diote gaur asteburuari Udal Pilotalekuan. 22:00etan hasita, Mendizabal III.a eta Urruzola Gorkaren eta Larrinagaren kontra arituko dira.

Ondoren jokatuko den partidu nagusian aldaketak egon dira. Izan ere, Retegi Bik Rezustarekin osatu behar zuen bikotea, baina bergararra ez dabil bere onenean, eskuko arazoak direla eta. Arazo horrek eta Retegi Bik izandako gripeak eragin nabarmena izan dute txapelketa hasiera txukuna egin zuen bikotearengan. Dena den, lanean jarraitzeko gogoz jarraitzen dute, txapelketa "luzea" da-eta. Rezustaren ordez Merinok jokatuko du, eta bikoteak Artolarekin eta Albisurekin neurtuko ditu indarrak.

Partiduak goiko harmailetatik ikusteko, 10 euro ordaindu beharko dira eta beheko harmailetarako, berriz, 25 euro. Sarrerak aurrez erositara, bost euro merkeago lor-tu ahal izango dira. Gaur 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era egongo da irekita Bergarako Udal Pilotalekuko leihatila.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

Zarautz-Aretxabaleta

Zapatua. 16:00. Zarautz.

Usurbil-Bergara

Zapatua. 16:00. Usurbil.

Antzuola-Hondarribia

Zapatua. 16:00. Estala.

#### ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondra-Zumaia

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Ikasberri-Aretxabaleta B

Zapatua. 16:30. Azpeitia.

#### LEHEN ERREGIONALA

Soraluze (Atsedena)

#### OHOREZKO GAZTEAK

Zestoa-Bergara

Zapatua. 18:00. Zestoa.

Ordizia-Aloña Mendi

Domeka. 12:00. Ordizia.

Aretxabaleta-Amaikak Bat

Domeka. 16:30. Ibarra.

Ilintxa-Mondra

Domeka. 16:30. Legazpi.

#### EMAKUMEZKOEN

##### ERREGIONALA

Añorga-Eibar

Zapatua. 16:15. Donostia, Rezola.

Intxaurdi-Mondra

Domeka. 17:30. Oñartzun.

#### ARETO FUTBOLA

##### EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Atxurre Bakio

Zapatua. 18:15. Manuel Muñoz

Kiroldegia.

#### GIPUZKOAKO LIGA

Aretxabaleta-Hirukide

Zapatua. 18:00. Ibarra.

#### BIGARREN MAILA

Mondrate-Denak

Zapatua. 16:45. Musakola.

#### GAZTE MAILA

Goierri-Mondrate

Zapatua. 10:40. Urretxu.

#### ESKUBALOIA

##### LEHEN NAZIONAL MAILA

Anaitasuna-Ford Mugarri

Arrasate

Zapatua. 20:15. Iruña.

#### EUSKADIKO TXAPELKETA,

##### GIZONEZKOAK

Deusto Loyola-Bergara

Zapatua. 16:30. Bilbo.

#### EUSKADIKO TXAPELKETA,

##### EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Asador Basusta

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Izarraitz Aloña-Tolosa

Domeka. 12:00. Zubikoa.

#### GIPUZKOAKO BIGARREN

##### MAILA

Bergara-Ordizia

Zapatua. 18:00. Labegaraia.

#### SASKIBALOIA

##### EBA MAILA

MU-Megacalzado Ardoi

Zapatua. 18:00. Iturripe.

#### SENIOR GIZONEZKOAK

Paules Skoda-Natra Oñati

Zapatua. 18:00. Santutxu.

#### EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatza-Bera Bera Amara

Gaur. 20:15. Manuel Muñoz

Kiroldegia.

#### SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA

MU-Bosteko Iruñi B

Gaur. 20:00. Musakola.

Soraluze Bergara-Zarautz

Sharks

Zapatua. 19:30. Labegaraia.

#### GAZTEAK, ERRENDIMENDUA

Arri BKL A-MU

Domeka. 17:30. Beasain.

#### ESKU PILOTA

##### PROFESIONALAK

Bergaran, gaur:

22:30ean hasita: Mendizabal III

eta Urruzola-Gorka eta Larrinaga

Ondoren: Retegi Bi eta Merino-

Artola eta Albisu

##### FEDERATUAK

Bergaran, zapatuan: 11:30.

Euskal Liga, kadeteak:

Illunpe-Bergara (M. Balerdi)


Udaberri Txapelketa, nagusiak:

Goierri I-Bergara (Aristi, A.

Rezusta)

Eskoriatza-Bergara (J. Perez,

Iñarra).



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

# EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako  
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

# KULTURA



Bilboko Guggenheim museoan Ines Osinaga eta Jon Zubiaga Osoron. | GOSE



Korrika Kulturalerako estreinako emanaldian Arrasateko Gose taldeko Iñaki Bengoa eta Ines Osinaga. | GOSE

## Korrikaren motorra berotzeko, 'Gosariak' zuzenean bira

- ▶ Korrika Kulturalarekin bat, Gose taldeak zazpi kontzertu egingo ditu
- ▶ Bihar, zapatua, Eskoriatzako Zaldibar aretoan izango dira, 23:00etan

**A. ARANBURUZABALA** | ESKORIATZA  
"Egueneko Guggenheimeko kontzertua espeziala izan zen. Euskalgintzarentzako nahiko arrotza den toki baten *Gosariak* aurkeztea konkista txiki bat izan zela esan genezake; eta horrela sentitu genuen guztiok.

Lehenengo aldi gehienetan moduan, ez zen onena izan; baina berezietakoen artean gogoratuko duguna, seguru. Oso giro polita sortu zen", dio Ines Osinagak, aurreko astean Korrika Kulturala zabaldu zuen *Gosariak* emanaldiaz galdetuta.

Eskoriatzako Zaldibar aretoan egingo dute bigarrena, bihar, zapatua, 23:00etan. "Eskoriatzatan jotzea, guretako, etxean jotzea da. Aspaldiko lagunak ditugu Atxorrotx Kultura Elkar-tekoak; esango nuke aurreko disko guztiak aurkeztu izan

ditugula Inkernu tabernan. Bihar, eleganteago jantziko gara, antzoki estreinatu berrira gonbidatu gaituzte-eta; baina ez dezala inork dudatan jarri gu ere dantzarako gogoaz joango garela", gaineratu du Arrasateko abeslariak.

### 2011 ezker Korrika Lagun

Korrikari herritarrek ematen diotena eskertzeko modu bat da Korrika Kulturala egitaraua. Orain dela lau urte, arrasatearrek *Euskalakari* kantua egin zutenetik, bidelagun dira Korrika eta Gose. Oso harro daudela diote, Korrika Lagun direlako; eta oso gustura daudela, *Gosariak* Korrikarekin bat jendaurrean erakutsi behar dutelako.

Biharkoaz gainera, beste sei emanaldi egingo dituzte: Intxaurrendon; Hendaian, Gasteizen, Igorren eta Iruñean, hurrenez hurren. Emanaldi bakoitzak bere berezitasunak izango dituela dio: "Ez da gauza bera Hego Euskal Herrian edo Iparraldean jotzea; eta ezta hiri baten edo herri baten jotzea ere. Taularen gainean dagoenaren ardura da aurrean duen horretara moldatzea. Saiatuko gara horretan ere".

**INES OSINAGA** | GOSE MUSIKA TALDEA

### "Emanaldietan jasoko ditugun zaleen idatziekin, Sarrionandiari liburu polit bat idatziko diogu"

Urrian kaleratu zuten *Gosariak* CD kaxa, Durangoko Azokan aurkeztu zuten gero, eta orain, taularen gainean erakutsiko dute; Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan.

**"Erditu dugu!", zenioten egubakoitzean, segidan hasperen bat botata.**

[Barre] Bai; izan ere, oraingoan ezberdina izan da, diskoa kaleratu dugunetik denbora pasatu da. Zaleen artean sumatu genuen diskoa entzunda eta batzuek ikasita ere bazutela, leloak abesten zituzten-eta.

**Ezohiko proiektua izan da; ezohiko kontzertuak egitera bultzatu zaituzte?**

Guk bultzatu gura izan dugu hori. Hamar urte goaz Goseren kontzertu ideia batekin eta iruditu zitzaigun aukera ona zela orain artekoa, neurri baten, alboratu eta gauzak beste modu

batera erakusteko. Iraultza egiteko modu asko dauden moduan, dantza egiteko ere modu asko daude. Gureak entzuteko eta ikusteko kontzertuak izan dira beti, eta horrelakoak izango dira *Gosariak*-enak ere.

Taularen gainean ohiko Gosekideak gauden arren, beste jarrera batekin gaude. Eszenografia ere aldatu egin dugu, adibidez, argiztapenari dagokionez. Ez dira Goseren betiko kontzertuak izango.

**Hainbat sortzailerekin elkarlana izan da; ikas bidaia emankorra izan dela diozue.**

Aberasgarria eta emankorra izan da, duda barik; beste batzuekin lan eginda, beste bide batzuk arakatzera bultzatzen du. Goseren

**"Ez dugu 'Gosariak' kontzertu askorik egingo, honako hau irautziko duen proiektua da-eta"**

ohiko irudia apurtu gura genuen eta Iñigo Arregik eta Juan Luis Goikoleak ederto boro-bildu dute nahi hori; eurak ere pozik daude egindakoaz. Era berean, Joseba Sarrionandiaren testuek beste era bateko eritmoetako kantuak sortzera bultzatu gaituzte.

**Zure burukomin handienetakoa izan da kantuetan Sarrionandiaren mezua modu egokian ematea.**

[Barre] Nire obsesioetako

bat zen, kantu bat egiten genuen bakoitzean Josebak testu hori idatzi zuenean horrelako bat ote zuen buruan. Hark oso argi zuen sarritan nondik nora joan behar zuen; izan ere, hitzekin batera nota batzuk bidaltzen zituen.

Sekulako altxorak dira testu horiek eta baimena eskatu genion horiek ere kaxan sartzeko. Erantzukizun handia sentitzen genuen *Sarri-k* erbestetik kontatzeko zuena kantatzen. **Orain, hura dago arduratuta; zaleek zer dioten jakin-minez.**

Galdetu eta galdetu dabil. Horregatik, liburu zuri bat eskuratzea erabaki genuen, eta *Gosariak* emanaldi guztietara eramatea. Josebari zerbait esateko duenak eskura izango du liburua. Gure hitza duzue hari liburua helaraziko diogula gero. Denon artean Josebari liburu bat idatzi eta oparituko diogu.

**Hasi da liburua dagoeneko kolorea hartzen?**

Bai, hasi da bai. Jaso ditugun lehenengo iritziak oso onak dira. Badakizu, herri honetan ez gaude gauza txarrak esatera oso ohituta. Gozoegiak dira orain arte jasotako gehienak. Ziur nago egongo dela Gose gustatu baina *Gosariak* gustatu ez zaionik, edo alderantziz.

**Korrika Kulturalerakoak izango dira *Gosariak* proiektuaren zuzeneko guztiak?**

Bat edo beste gehiago izango da; baina, hasieran genion moduan, irautziko du.

# Debagoieneko piano-jotzaile gazteek emanaldia egingo dute

Oñatiko, Bergarako, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Elgetako eta Arrasateko ikasleek hartuko dute parte

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Andoingo piano jaialdiaren hamargarren edizioan parte hartzeko gogor egin dute lan Debagoieneko hainbat ikaslek, baina, hara joan baino lehen, otsailaren 4an euren dohainak erakutsiko dituzte Arrasateko Amaia antzokian, 18:30ean. Edorta Aiastuik, Arrasate Musikaleko irakasleak, azaldu du datorren eguazteneko emanaldiak "prestakuntza gisa" balioko diela ikasleei, Andoingo saiora begira.

Hamargarrena izango da aurtengo Andoingo piano jaialdia. Bertan, Euskal Herri osoko 18 urtetik beherako 700 piano-jotzaile inguruk hartuko dute parte, bi modalitatetan banatuta. Bakar-lariak arituko dira, batetik, eta, bestetik, pianoa lau eskutara jotzen dutenak. Horrez gain, hiru maila bereizten dira, adinaren arabera: A, B eta C.

## Presiorik gabeko lehia

Andoingo jaialdian egiten duten lana epaimahai batek baloratu du, eta maila bakoitzeko onenek dominak jasoko dituzte, baina parte hartzaile guztiei emango dizkiete diplomak. Dena den, Aiastuik azpimarratu du jaialdiak ez duela lehiaketa kutsurik, helburua "nork bere maila erakustea" da-eta. Gainera, era berean, Arrasate Musikaleko irakaslearen ustez, epaimahai baten aurrean aritu beharra lagungarria da ikasleentzat, aurrerantzean izango dituzten azterketei begira.



Piano-jotzaile gazte bat, iazko Arrasateko emanaldian. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Araceli Guridi, Amaia Urdangarin, Ainhoa Galdos, Lorea Larrañaga, Paul San Martin, Elisabeth Mendirarantz, Isabella Blezien eta Rakel Hernandez izan dira ikasleok trebatzeko lanean aritu diren irakasleak. Aiastuiren iritziz, ikasleak "oso prestakuntza" joaten dira Andoingo saiora. "Gogor egiten dute lan, baina oso prestakuntza ona jasotzen dute", esan du.

## Arrasaten, erakustaldia

Oñatiko, Bergarako, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Elgetako eta Arrasateko piano-jotzaileak izan-

go dira Amaia antzokian kontzertua eskainiko dutenak; beraz, ia bailara osoko gazteak elkartuko dira otsailaren 4an.

Musikari gehienak bakarka arituko dira, baina izango dira lau eskutara joko duten bikoteak ere. Guztira, 48 pieza joko dituzte, kanpoko artistenak zein bertakoak. Adibidez, Arteagaren *Behin edo behin*. Bada, Strauss eta halako konpositore klasiko lanetatik hasi, eta *Over the rainbow* eta *We like to swing* obra garaikideagoetaraino, abesti zerrenda luzea eskainiko diete entzuleei.

# Emon eta Patxuko Nice gaur, egubakoitza Espaloian

Lehen aukera izango da Debagoienan 'Sua', Emonen disko berria, zuzenean entzuteko

M.T. | ELGETA

Urteari ekiteko hartutako erritmo indartsuari eutsiz, Espaloiak beste kontzertu bat dakar Elgetara. Emon talde bergararrak Patxuko Nicerekin batera kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean. Sarrerak 6 eurotan salduko dituzte.

Gaurkoa izango da, gainera, Debagoienan Emon taldearen *Sua* diskoa zuzenean entzuteko lehen aukera. "Kantu alaiak izaten jarraitzen dute, baina badute jenio txarra", diote disko berriaz. Taldeak azaldu duenez, aurreko *Konfeti kolore* lana baino "landuagoa" da Durangoko Azokaren atarian kalera tu zutena, batez ere letrei dago kienez. Eta ez da harrizkoa. Izan ere, oraingoan, Amets Artzallusen, Josu Ganuzaren eta Gurutze Ostolatzaren lagun-

tza izan dute alor horretan. Musikari ere "arreta berezia" jarri diote grabaketa prestatzeko garaian, eta gitarrak zaindu dituzte gehien.

Patxuko Nice, berriz, Sergio Ordoñez *Patxuko*-ren bueltan sortutako taldea da, eta 435.0 izeneko diskoan, pop musikatik hasi eta ska doinueta raino, era askotako abestiak bildu ditu Hondarribia eta Irun inguruko taldeak. Disko berria, Emonekoen antzera, Durangoko Azokaren aurretik kaleratu zuten.

## Bihar, boleroak

Zapatuan, Hego Amerikako musika izango da Espaloian, Trio Medianoche taldearen eskutik. Eibarko hirukotea ikustera joateko sarrera 10 eurotan eros daiteke aurrez, eta leihatilan bertan, 12 euro ordainduta.

# 'Sketchcrawl' topaketa egingo dute, bihar, zapatua Arrasaten

M.T. | ARRASATE

Zapatuan, arkatza eta koaderno esku artean hartuta, herriko plazan hainbat marrazkilarik elkartuko dira, begien aurrean ikusten dutena zuzenean marrazten. Izan ere, horixe da *sketchcrawl*-a: marrazteko hitzordua.

10:00etan emango diote hasiera topaketari, eta, hortik aurrera, partaide bakoitzak gustuko duen txokoa hautatuko du marrazkiak egiteko.

Joan den asteburuan izan zuten 46. World Wide Sketchcrawl topaketa, Balmasedan. Bergararik eta Arrasateko joandako 27 lagunek "oso ondo" pasa

zuten bertan, eta horregatik erabaki dute asteburu honetarako ere beste topaketa bat antolatzea.

## Marrazkien elkartrukea

Mundua marrazkiz marrazki erakustea da topaketa horien asmoa, eta, horretarako, inguruan ikusitakoa marrazteaz gain, euren artean partekatuta eta jendeari erakusten diote ondoren. Gainera, esperientzia aberasteko, topaketa irekia antolatuko dute. "Marrazkiak egiteko gogoz dagoena pozik hartuko dugu", esan du antolatzaile lanean dabilen Pili Azkaratek.

# Itziar Aizpuruk bere lanaren aitortza jaso du Feroz sarietan

Joan den domekan, Espainiako zinema kazetarien elkarteak Feroz sariak banatu zituen. *Loreak* filmak sei izendapen zituen arren, azkenean, Itziar Aizpuruk taldeko emakumezko aktore onenaren saria jaso zuen Madrilan. Horrez gain, otsailaren 6ko Goya sarietarako ere baditu bi izendapen filmak.



HARITZ DENDATEGI

# Bergarako Orfeoiaren kontzerturako sarrerak salgai dira dagoeneko

San Pedro elizan eskainiko du kontzertua Bergarako Orfeoiak otsailaren 7an, 20:00etan, eta Haendelen *Mesias* kantatuko dute. Gainera, kontzertuan ez dira bakarrik izango, emanaldirako bereziki antolatutako ganbera orkestra bat arituko da-eta eurekin.

Sarrerak 10 eurotan jarri dituzte salgai, Bergarako kultur Etxean, Benjamin oinetako dendan eta Pikupe Produzioetan, hain zuzen ere. Gainera, kontzertuan eskuratutako etekinak San Pedroko Stolz Freres organoaren konponketa lanak egiteko erabiliko dituzte.



Astelehenean aurkeztu zuten aurtengo edizioa. | ARTEMAN

## Autoen eta pertsonen elkarbizitza hizpide Euspoten

Aurtengo lehiaketarako lanak bidaltzeko epea zabalik da, apirilaren 24ra arte

**AMAIA TXINTXURRETA** | DEBAGOIENA  
Euskarazko sormena bultzatu eta publizitate arloan euskararen erabilera hedatzeko helburuarekin, apirilaren 24ra bitartean bidali ahal izango dira 20 eta 30 segundo arteko *spot*-ak Euspot Euskarazko Spot Lehiaketara. Aretxabaletako Udala, Mondragon Unibertsitatea eta Arteman Komunikazioa dira sustatzaileak. Eta honako hau izango da aurtengo gaia: *Autoak eta pertsonak, elkarbizitza orekatua*.

Lanak *Euspot.eu* webgunean aurkeztu beharko dira. Edizio honetan, gainera, antolatzaileek akordio bat sinatu dute Music Library etxearekin, eta, hala, partaideek haien musika doan erabili ahal izango dute.

**Bertakoa, baina irekia**  
Lehiaketak Euskal Herrian parte-hartzea sustatu nahi du, baina Debagoienez oinarriak jarrita. Horretarako, Mondragon Unibertsitateak bere ikasketa curricu-

lumean sartu du *spot*-en gaineko ikasgaia eta Arizmendi Ikastolako eta Kurtzebarri Eskolako DBH-ko ikasleek ere parte hartu ahal izango dute.

**Sariak**  
*Spot* onenarendako saria 1.000 euro izango da; publikoaren sari-gatik 500 euro emango dituzte; Mondragon Unibertsitateko ikasle onenarendako, berriz, 500 euro; eta gazteen sariarendako (14-18 urte), 250 euro.

## Bertso Egunean jolasa eta seriotasuna batuko dituzte

**MAIALEN TORRES** | DEBAGOIENA  
Zapatuan Kursoala bertsozaleen elkargune bihurtuko da, beste behin. Izan ere, 46. Bertso Eguna ospatuko dute, *Jolastu nahi?* lelopean. 12:00etatik aurrera Donostiako kaleak girotzeari ekingo diote, eta ekitaldi nagusia 18:00etan izango da, Kursoaleko areto nagusian. Hura amaitzean, Manteo kiroldegian afaria eta festa egingo dute, bat-bateko saio eta guzti.

Aurten, iazko urria ezker martxan den gai-jartzaile eskolatik abiatuta, Ainhoa Aranburuk, Arnaitz Lasartek, Eñaut Agirrek eta Josu Goikoetxeak hartu dute egunean zehar gertatuko dena prestatzeko ardura, eta gaiak ere euren landu dituzte. "Bertsolariei jolaserako proposamena egingo zaie, jolastea nahiko genuke, baina serio jolastea. Bertsotan egin deza-

tela", adierazi dute Bertsozale Elkartetik.

**Debagoiendar bat tartean**  
Goizeko saioetan kantuan arituko direnen artean, Xabi Igoa aramaioarra ere izango da, beste hainbat bertsolarirekin batera. Bertsozale Elkarteak deituta, bi aldiz pentsatu gabe eman zion baiezkua Igoak eskaintzari, eta onartu du horrelako eskaintza batek, nola ez, "ilusioa" piztu diola. Dena den, aramaioarra ez dago urduri, jendaurrean aritzera ohituta dagoela esan du, eta zapatukoa "saio bat gehiago" izango dela.

Oraindik bada sarrerak erosteko aukera, *Bertsosarrerak.eus* webgunean. Sarrera arruntak 18 euro balio du -bazkideentzat 13- eta afarira ere joan nahi dutenek 40 euro ordaindu behar dituzte -bazkideek 33.



Zea Mays taldeko kideak Oñatiko gaztelekuan 2012an. | JULIO CALLEJA

## Enkoreren rock eta hardcore doinuek emango diote hasiera otsaileko Kooltur egitarauari

Txuma Murugarren, La Hora Del Primate eta Txarango izango dira hurrengoak

**M.T.** | ARRASATE  
Bilboko Errekalde auzoan jaio zen Enkore taldeak kontzertua eskainiko du datorren egunean Arrasaten, Kooltur egitasmoaren baitan. Rock eta hardcore melodiko doinuek nahastu dituzte, eta euren musika ezagutzeko, *Enkore.eu* webgunean dituzten lanak entzun besterik ez dago.

2012an kaleratu zuten *Faktore komunak* diskoak Top Gaztea zerrendaren gailurrera eraman zuen taldea, eta geroztik kontzertu ugari eskaini dituzten arren, ez dute lan berririk kaleratu.

Ohi bezala, gaztetxean izango da kontzertua, 22:00etan, eta sarrerak bost euro balio du.

### Hurrengo kontzertuak

Txuma Murugarren izango da hurrengo gonbidatua eta Nick



Enkore taldeko kideak. | JUAN BOADO

Cave artista australiarraren abestiak eskaraz kantatuz egingo du emanaldia, hilaren 12an.

Hilaren 19an, La Hora Del Primate taldekoak izango dira,

euren doinu basatiekin. Otsailari amaiera emateko, berriz, hilaren 26an, Kataluniako Txarango taldearen rumba izango da gaztetxe oholtzan.

## Salgai daude Zea Mays Oñatiko gaztelekuan ikusteko sarrerak

Otsailaren 6an eskainiko dute kontzertua, eta, aurrez erosita, sei eurotan lor daitezke sarrerak

**M.T.** | OÑATI  
Zea Mays taldeak datorren egubakoitzean zuzeneko eskainiko du Oñatiko gaztelekuan, 23:00etan. Sarrerak eskuragarri daude dagoeneko, eta sei euroren truke eros daitezke Oñatiko Pako eta Boga, Arrasateko Amairu eta Bergarako Depor tabernetan.

Bada, taberna horietan izango dituzte sarrerak, emanaldiaren aurreko egunera arte. Horik aurrera, aukera bakarra leihatilan erostea izango da; hori bai, 8 euro ordainduta. Egunean bertan, kontzertua hasi baino ordubete lehenago irekiko dute leihatila: 20:00etan, hain zuzen ere.

Antolatzaileek, ordea, aurre salmentan jarria dute esperantza; beraz, Zea Mays taldekoen zuzeneko emanaldirako tokia ziurtatu nahi dutenek hobe dute sarrerak aurrez erosi.

### Gaztelekuak, 20. urteurrena

Aurtengoa urte berezia izango da gaztelekuan; izan ere, 20 urte betetzen dituztenez, "kontzertu entzutetsu gehiago" antolatzeko asmoa dute. Horretarako, Gaztedia teknikari Jon Lopezek azaldu duenez, lantalde bat jarriko dute martxan. Gaztelekuaren parte direnekin eta izan direnekin osatuko dute taldea, eta euren ekarpenak jasota erabakiko dute zein ekintza antolatu.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



## ZORION AGURRAK



**ARETXABALETA**  
**Intza Eraña Larrea**  
Otsailaren 6an, urtebete. Zorionak, sagutxo! Urtetxo bat. Ze handi ein zaren! Patxo potolo-potolo bat etxeko danon partetik!



**OÑATI**  
**Ekain Lizarralde**  
**Martinez de Zuazo**  
Otsailaren 4an, urtebete. Zorionak, Ekain! Ondo ospatu zure eguna. Txokolatzeko patxo bana familixakuen partetik eta segi orain artian bezain alaixa izaten!



**ARRASATE**  
**Garazi Prieto Gofii**  
Otsailaren 4an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna, familia eta lagunuen partetik, *super guapa!*



**OÑATI**  
**Ane Osinaga Osinaga**  
Otsailaren 4an, 5 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, sorgintxo! Muxu eta besarkada handi bat etxekoan partetik.



**ARRASATE**  
**Iraia eta Joritz Isasi Rodrigo**  
Otsailaren 3an, 6 urte egingo ditu Iraiak eta 9an, 2 urte Joritzek. Zorionak, pitxintxos, aitatxoren eta amatxoren partetik!



**URRETXU**  
**Itziar Zabaleta**  
Urtarrilaren 31n, 9 urte. Zorionak, Itziar. Hartu muxu handi bat inguruko guztien partetik. Tio, tia, Edurne eta bereziki zure anaia Markelen partetik.



**OÑATI**  
**Eki Palacin Aldea**  
Urtarrilaren 31n, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat danon partetik. Bereziki Odei, aitatxo eta amatxo.



**BERGARA**  
**Irati Barrigon Gauna**  
Urtarrilaren 31n, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure hirugarren urtebetetzea familia osoaren eta, bereziki, Sararen partetik! Muxu handi bat.



**OÑATI**  
**Joseba Eri Rodriguez**  
Urtarrilaren 31n, urtebete. Zorionak, politta! Primeran pasatu eguna eta patxo handi bana etxeko danen partetik.



**ARRASATE**  
**Nahia Garro Arana**  
Urtarrilaren 31n, 7 urte. Zorionak, politte, eta ondo pasatu zure eguna etxekoan partetik.



**ARRASATE**  
**Danel Mena**  
Urtarrilaren 31n, 12 urte. Zorionak, Danel! Ondo pasatu zure eguna, lagun guztien partetik!



**BERGARA**  
**Nuria Sanchez**  
Urtarrilaren 30ean, 38 urte. Zorionak, amatxo!



**ARETXABALETA**  
**Markel De Cesero Eraña**  
Urtarrilaren 29an, 13 urte. Zorionak, artista! Besarkada bat etxekoan partetik.



**ARETXABALETA**  
**Ganix Gomez Iturbe**  
Urtarrilaren 28an, 2 urte. Kuku! Ezetz asmatu urtarilaren 28an nork bete zituen bi urte? Ganix bihurriak! Pasteleko kandelak zitu batean itzali zituen. Asko maite zaitugu, txipiron! Zorionak!



**BERGARA**  
**Julian Aiestui Elorza**  
Urtarrilaren 28an, 92 urte. Zorionak, Txantxi, bihotz-bihotzez zure urtebetzean etxekoan partetik. Jarraitu orain arte bezain gogor!



**ARRASATE**  
**Jon Laiseka Leturia**  
Urtarrilaren 27an, 8 urte. Zorionak, Jon! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta segi horren alai eta jator. Zure arreba Noaren, eta lehengusu-lehengusina guztien partetik.



**ARRASATE**  
**Hodei Garitaonandia Uriarte**  
Urtarrilaren 26an, 7 urte. Zorionak, maite zaitugun denon partetik! Mila muxu eta besarkada handi-handia zuretako. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu.



**ARRASATE**  
**Nerea Amaia Bengoa**  
Urtarrilaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, amandria! Oso ondo pasatu zure egunean. Besarkada eta muxu potolo bat etxekoan partetik eta handiena nire partetik. Pa!



**DEBAGOIENA**  
**Ainhoa Villaverde Barrutiabengoa**  
Urtarrilaren 24an, 29 urte. Zorionak, Ainho! Disfrutatu egunaz. Besarkada handi eta muxu potolo bat Mondrauko familiaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Xabier Lazpiur**  
Otsailaren 2, 45 urte. Euskal Herriko aitxatxorik onenari, zorionak! Asko disfrutatu zure egunean, etxeko hiru izarren partetik. Patxo eta besarkada erraldoia! Asko maite zaitugu!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte**  
jasotako zorion agurrak  
bakarrik iragarriko ditugu.

**Hortik aurrera jasotakoak**  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.



## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

### ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

### ESKER ONA



## M. Carmen Mendizabal Sagastigutxia



2004ko abenduaren 30ean hil zen, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali  
zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

*Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza,  
beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.*

Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 30ean.

### ESKER ONA

## Vidal Garcia Delgado



Oñatin hil zen 2015eko urtarrilaren 21ean, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali  
zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 31n, 19:30ean,  
Oñatiko agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik, eskerrik asko.

Oñatin, 2015eko urtarrilaren 30ean.

### URTEURRENA



## Felisa Urrutia Makazaga



Osintxun hil zen 2014ko otsailaren 1ean, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza  
domekan izango da, otsailaren 1ean,  
12:00etan, Osintxuko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran (Osintxu), 2015eko urtarrilaren 30ean.

### URTEURRENA

## Manu Otero Garcia



Soraluzen hil zen 2014ko urtarrilaren 30ean, 42 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 1ean, 12:00etan,  
Bergarako Santa Marina parrokian.

*Joan zinen gu hemen utzita baina,  
jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2015eko urtarrilaren 30ean.

### URTEURRENA



## Jose Luis Diosdado Encinas



2014ko urtarrilaren 27an hil zen.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 31n, 19:00etan,  
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

*Nahiz eta gureartetik joan,  
beti izango zaitugu gogoan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko,  
haren emazte M. Carmen Aberasturiren, seme-alaben eta biloben izenean.  
Oñatin, 2015eko urtarrilaren 30ean.

### URTEURRENA

## Maria Teresa Umerez Ugarte



Oñatin hil zen 2014ko urtarrilaren 27an, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan izango da, urtarrilaren 31n, 19:00etan,  
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2015eko urtarrilaren 30ean.

### URTEURRENA

## Luciana Izurrategi Ruiz de Azua



'Lutxi'  
Bruno Isasmendiren alarguna  
Aretxabaletan hil zen 2014ko otsailaren 1ean, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza  
domekan izango da, otsailaren 1ean, 11:30ean,  
Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Aretxabaletan, 2015eko urtarrilaren 30ean.

# OROILORE

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek  
eskatzen duen errespetu,  
arreta eta ardura handienarekin,  
nire asmoa da familiari ahalik eta  
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu:*

*Ez onartu besterik gabe  
zure aseguru-konpainiak  
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

*NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## HILDAKOAK

**Juana Izurrategi Ruiz de Azua.** Arrasaten, urtarrilaren 14an. 95 urte.

**M. Concepcion Goenaga Alvarez.** Oñatin, urtarrilaren 15ean. 83 urte.

**Jose M. Alonso Muñoz.** Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 59 urte.

**Rosa Moyano Segovia.** Arrasaten, urtarrilaren 15ean. 84 urte.

**Migel Aramendi Ugarte.** Arrasaten, urtarrilaren 16an. 89 urte.

**Avelina Bueno Blazquez.** Arrasaten, urtarrilaren 18an. 91 urte.

**Angela Calzada Pulido.** Oñatin, urtarrilaren 18an. 83 urte.

**Jose Gomez Gonzalez.** Oñatin, urtarrilaren 21ean. 93 urte.

**Ruperta Mateos Vega.** Arrasaten, urtarrilaren 21ean. 83 urte.

**Vidal Garcia Delgado.** Oñatin, urtarrilaren 21ean. 79 urte.

**Jose Andres Aranburu Kortabarria.** Oñatin, urtarrilaren 22an. 93 urte.

**Francisco Cespedosa Casado.** Aretxabaletan, urtarrilaren 22an. 82 urte.

**Laurentzi Lazpiur Ibarra.** Bergaran, urtarrilaren 24an. 81 urte.

**Jose Cabezas Delgado.** Eskoriatzan, urtarrilaren 24an. 80 urte.

**Piedad Bolinaga Madinabeitia.** Arrasaten, urtarrilaren 25ean. 84 urte.

**Javier Zabaleta Beitia.** Bergaran, urtarrilaren 25ean. 67 urte.

**Pedro Aiausti Lizarralde.** Oñatin, urtarrilaren 26an. 73 urte.

**Juana Testa Fernandez.** Bergaran, urtarrilaren 26an.

**Jose Manuel Gonzalez Lopez.** Bergaran, urtarrilaren 26an. 52 urte.

**Purificacion Gastañaga Iriarte.** Aretxabaletan, urtarrilaren 27an. 85 urte.





SAIDA CABAÑAS

#### ARRASATE Debagoieneko piano-joleen kontzertua

Arrasateko, Oñatiko, Bergarako, Aretxabaletako, Eskorriatzako eta Elgetako musikari gaztetxoek emanaldia egingo dute. Martxo bukaeran Andoaingo jaialdian parte hartuko dute guztiek, eta prestakuntza saio berezia egingo dute gurasoen eta lagunuen aurrean.

Otsailaren 4an, Amaian, 18:30ean.



GOIENA

## LEHIAKETAK

#### ARRASATE Aratusteetako kartela

2015eko Aratusteetako kartel lehiaketako lanak aurkezteko azken eguna gaur da. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Urtarrilaren 30era arte, BAZen.

#### ARRASATE Martxoaren 8rako kartel lehiaketa

Aurtengo leloa *Feminismoaz danok aurrera goaz!* da. Lanak otsailaren 20ra arte aurkez daitezke BAZen. Saria 450 euro. Otsailaren 20ra arte, BAZen.

## IKASTAROAK

#### ELGETA Dinamizatzailea KZgunean

Ikastaroak eta kontsultak egiteko aukera. Otsailaren 4an, kultura etxean, 09:00etan.

#### ARRASATE Dantza flamenkoa

Askoa Etxebarrieta *La Pulga*-k emango du ikastaroa, otsailaren 12tik martxoaren 26ra arte, eguinetan, 20:00etatik 21:30era arte. Izenak Gazte Informazio Bulegoan.

#### OÑATI 'Emakumeon dibertsitatea ezagutzen'

Askotariko errealitateak eta identitateak dituzten emakumeenganako ezberdintasuna, bazterkeria eta indarkeria azalarazten dituzten elementuak aztertuko dituzte, gazteleraz.

Otsailaren 3an, Eteon, 18:15ean.

#### OÑATI Txirindularitzari buruzko mahai-ingurua

Markel Irizarrek eta Markel Uriartek parte hartuko dute. Otsailaren 2an, Zuazolan, 18:00etan.

#### ARETXABALETA 'Atxabalta Mozambikera begira'

Beñat Artzadunek egingo du berbaldia; Mundukideko arduraduna da Mozambiketan. Otsailaren 3an, Zeraian, 18:30ean.

943-79 64 63 telefonoa edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbidea. Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

#### OÑATI Aratusteak 2015

Oñatiko Aratusteak prestatzeko entsegua egingo dute. Bihar, zapatua, Larrañan, 12:00etan.

#### OÑATI Mus txapelketa

Euskal Herriko VII. mus txapelketari dagokion kanporaketa. Oñatiko irabazleak Gipuzkoako kanporaketarako sailkatuko dira. Bihar, zapatua, Aloña Mendi tabernan, 16:30ean.

#### ARRASATE Udalpe elkarte

Urteko ezohiko batzar orokorra egingo dute. Otsailaren 2an, Kulturaten, 19:00etan

#### ARETXABALETA Odol-ateratzea

Arabako odol-bankuko kideak egongo dira osasun etxean. Otsailaren 2an, osasun etxean, 16:30ean.

#### ARAMAIO Korrika batzordea

Korrika Aramaiotik pasako da martxoaren 23an eta ekitaldiak zehazteko batzarra egingo dute. Otsailaren 3an, kultura etxean, 18:30ean.

#### OÑATI Txirinkaren batzarra

Otsaileko batzar irekia egingo dute bazkideendako. Otsailaren 3an, Zubikoan, 19:30ean.

#### OÑATI Santa Ageda bezpera

Kalera aterako dira Elkar Hezik ikasle eta irakasleak kantuan. Otsailaren 4an, kalerik kale, 10:30ean.

#### ELGETA Korrika batzordea

Lehen Korrika batzorderako dei egin dute. Korrika 19 martxoaren 23an helduko da Elgetara, 12:30 aldera, eta askotariko ekintzak egin gura dituzte. Otsailaren 4an, udaletxean, 19:00etan.

#### LEINTZ GATZAGA Martin Mendizabal

Arantzazuko frantzikostarrak hainbat gairen gaineko berbaldia egingo du; besteak beste, *1548ko Leintz-ko Udalaren erabakiak eta egungo egoera, Dorletaren jatorria eta Leintz Gatzagako baserrien izenak*. Martin Mendizabalen hitzaldia irekia da herritar guztiendako.

Otsailaren 4an, udaletxean, 19:00etan.

## DEIA

**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**  
Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatua. Izena emateko:

# Denon ardura delako, ondo dihardugu!




## GAIKAKO BILKETA DATUAK BERGARAN

## ZORIONAK

Otsailetik irailerako tartean gaikako bilketa osoan % 81,6ko emaitza lortu dugu.

Fokua etxeko hondakinetan jartzen badugu, datu hauek izan ditugu 2013an eta 2014an.

Emaitzak ikusgai [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean.



# Goiena Klubeko urtarrileko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideek irabaz ditzakeuzuen sariak hauek dira. Hartu parte!

## PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
 Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.  
 Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburua bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.  
 Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



QuickSilver motxila eta ipuinak



Bazen behin biritza joko



Prime Time liburua John Andueza

# goiena

2015-01-30

BUKATZEKO

## Herriko 'saltsaren' berri bideoan jasota

- ▶ Aretxabaletako giroa islatzeko egin dute Udalaren enkarguz 'Herrixa saltsan', eta astean aurkeztu
- ▶ Durana kalean, ikastetxeetan, elkarteetan eta ekitaldietan hartu dituzte irudiak, asko 'drone' bidez

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaletan ez dute Aratusterik behar dantzan hasteko kalean; ez horixe! Hala erakutsi dute Ibai Zangituk eta Mikel Alberdik egin duten bideoarekin: *Herrixa saltsan*. Ia zazpi minutuko musika-dun bideoa da, eta Aretxabaletako herri giroa erakustea du helburu. Eguaztenean aurkeztu zuten, Arkupen, alfonbra gorri eta guzti, eta herritarrak dotore jantzita agertu ziren estreinaldian.

### Ekintzak eta ekintzak

Andramaixa jaien ostean bi aretxabaletar koma egoeran geratu dira, eta iratzartzerakoan guztiz bestelako herria topatu dute: "Astelehenetan ekintzak, martitzenetan ekintzak... Aretxabaletan ezin da deskantsatu!", dio Kepa Errastik. Horixe da abiapuntua eta Nerea Etxeandia eta Jon Ander Alberdi bikotea herriko *saltsan* sartuko da LMFAO-ren *Everyday I'm shuffling* kantua eta herritarrak lagun: Igor Arenatza, Jose Javier Barkero, Antonio Guisado eta beste asko. "Herritarrek bikain erantzun diete parte hartzeko egindako deiei. 1.000 bat lagunek jardun dute, ikastetxeetako umeak ere kontuan hartuta", dio Zangituk.



Bideoa bi protagonistak eta herritarrak Durana kalean. | IBAI ZANGITU



Bideoaren egileak eta sustatzaileak. | J.I.

Lekaixoka bertso eskolakoak; ikastetxeetako neska-mutikoak; gaztelekuko gazteak; Aretxabaletako Abesbatzako kideak; erretiratuak; karate taldekoak; Aratzeko lagunak; UDako eta Arizmendiko kirolariak... Txapel Txin bera ere dantzan. *Dronea* erabili dute irudi asko hartzeko eta Durana kaleko dantza grabatzeko garabia ere jarri zuten. Aretxabaletako kirol elkarteetako taldeen aurkezpen ekitaldia aprobetxatu zuten beste irudi batzuk hartzeko, baita Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako

moda desfilea ere. Gainerakoak elkarte bakoitzaren egoitzan hartu dituzte.

### Jarraipena izango du

Herriko giroa eta elkarteetan lanean dabiren jendetza erakustea izan du helburu bideoak. Ana Bolinaga alkateak jakinarazi du, gainera, jarraipena izango duela.

Bada, bideoa estreinatuta, sare sozialen bitartez zabaldu dute. Belar Meta dendako erakusleihoan ere ematen dabilta eta Arkupen emango diren film guztien aurretik eskainiko dute.

### AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



## Bestelako Europa

Sozialdemokraziatik ezkerreko dagoen Syriza iritsi da gobernura Grezian. Aurrez agintzen zuen udal eta lurralde batzuetan, baina azken jauzi honekin sortu du zalaparta galanta Europan.

Grezian ere 2007tik bizi dugun krisiarekin azaleratu ziren ekonomiaren ajeak: iruzur fiskala, kapitalen ihesa, ezkutuko jarduera, ustelkeria orokortua... Aspaldidanik ari ziren zorra pilatzen, baina troika Grezian sartu zenetik zorra konpondu ordez handitu besterik ez da egin.

Europak kale egin du krisiaren kudeaketan. Nazionalismo eskasenez erantzun dio ikuspegi europarra eskatzen zuen egoerari. Kalifornia oke-rrago egon omen da Grezia baino, eta, hala ere, Estatu Batuen babes erabatekoa izan du eta buelta ematen ari zaio egoerari. Grezian arazoak azaleratu direnean ez du babesik jaso, baizik eta mailegu garestia. Ekonomialari aleman bati entzuten nion berriki: "Haiek egin dute zorra, haiek ordain dezatela". Ez da egia zor guztia haiek soilik egin dutenik, eta, gainera, ezin dute ordaindu.

Horrek eraman ditu matxinatzena eta bestelako Europa aldarrikatzena; besteak beste, bazkideen duintasuna ere zainduko duena. Europar guztion mesede.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA, ITE, CEE...

LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA FATXADAK ETA ESTALKIAK

ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE



ERAIKIN PROJECTS

www.igosl.com

943798864

696159959

ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE